

KLASIKOAK  
RESURRECCION M.<sup>a</sup> AZKUE

RESURRECCION M.<sup>a</sup> AZKUE

BEIN DA BETIKO  
BATXI GUZUR

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

Edizio honen prestatzailea: Ines Pagola  
©EREIN. Tolosa Etorbidea 107 - 20009 - Donostia  
I.S.B.N.: 84-7568-148-4  
Legezko Gordailu: 844-86  
Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. Zarautz

## AGUR IRAKURLE

*Edozein hizkuntzatan ditugu idazle klasikoen bildumak. Euskaraz ere hala behar genuke, eta asmo honekin bultzatu nahi izan da gaur eskuetan duzun bilduma hau.*

*Orain arte ere izan dira gure artean euskaldun klasikoen lanak argitaratzeko ahaleginak. Kultura eta Turismo Sail honek ahalegin hauen osagarri izan nahi luke: beharrizana aurrean dugu eta erantzun bat eman nahiean eskatu ditugun iritziak jaso ondoren, bilduma merke eta landu bat bultzatzeko erabakia hartu dugu. Baina "landu" esatean ez dugu esan nahi goi-mailako argitalpen kritiko bat denik. Ez. Bilduma honek ez du irakurle berezirik bilatzen; eguneroko irakurlea, edozein tokitan (etxeetan, euskaltegietan, ikastetxeetan, edo Unibertsitateetan) aurki daitekeen irakurlea nahi du.*

*Irakurle honi begira gertatu dira hitzaurreak ere: Koldo Mitxelena jaunak hemeretzigarren gizaldiko euskal literaturaren egoera azaltzen digu, idazlan bakoitza irakurtzen hasi baino lehen irakurlea literatur giro-inguruaz jabetu dadin.*

*Argitalpen-prestatzailearen hitzaurreak, ordea, idazlearen bizitza eta lana aztertzen dituzte, argitalpen honetarako hartutako jokabideak azalduz.*

*Idazlan aukeraketa eta hizkuntzaren trataerarekiko irizpideak euskal literaturan berezilari direnen ardurapean egin dira. Aurrerantzean ere hala egiteak bilduma honi kalitatearen maila ziurtatzen dio.*

*Bestalde, honelako egitasmo batetan Euskal Editoreen Elkarteak partehartzea ere aipagarritzat jotzen dugu: ezin dugu txalotutzeke utzi antzerako argitalpenetan ari diren argitaletxe batzuk. Baina bilduma honen garrantziaren erakusgarri hobe bat dugu egitasmo honetan Elkarteak elkarte bezala parte hartzea.*

*Bilduma honen berma, irakurle, egitasmo honetan gurekin batera parte hartu duten guztien lanean datza.*

Izp.: Luis Maria BANDRES  
Kultura eta Turismo Sailburua

## LIBURU SORTA ZAHARBERRITU BATEN ATARIAN

Euskal literaturaren ospe eta entzutea ez da gehiegizko neurrian hazi eta gurendu. Egungo egunean bertan, han edo hemen, esango luke zenbaitek ez dela behar bada horrelako gauzarik, esateko moduan bederen; are gehiago, ez badu azaltzen ez dela sekula horrelakorik izan. Duela urte batzu, ez hainbeste, barreiatuago zebilen segur aski iritzi hori, arestixean zabaldu diren berriak zabaldu baino lehen. Azken aldi honetan, izan ere, literaturak berak bere funtsean ezin-neurtuzko aldakuntzarik ez duelarik ezagutu, besterik gertatu da literaturarekiko literaturarekin. Argitaratzearen daudenak saihestuaz, badugu argitaraturik liburu eta liburuska mordoak —artikulu eta gainerantzeko idazki laburragoak aipamen berezirik gabe gelditzen direla— euskal literaturaren erabateko nahiz zatikako atze, kondaira eta historiaren mintzatzen zaizkigunetakoa, euskaraz zein erdaraz. Eta horrelakoen egile-argitaratzaileak erotxean giltzatu ez zituztenez gero —gogora zaitezte etxe horiek zenbaitentzako pausaleku egokitzat zeuzkatela artean gehientsuek—, sinestekoa da izan zutela zertaz mintza eremu horretan, asmaketarik asmaketa ibili gabe eta, onean behintzat, ez zeharo ergel eta bidegabeki. Nola bada entzungen egin jende pilo mardul horren esanari? Baiezkoan bat aurkitzen ditugunez gero, nahiz esanaren mamia ez beti nabari agertu entzule eta irakurleari.

Eman dezagun, beraz, badela eta izan dela, gutxiengo hitzun bezain jakintsu eta gehiengo mutu bezain ezjakinari lotzen bagatzaizkio. Zalantzati agertuko litzaizkiguke, haatik, baita baikorrenak eta arranditsuenak ere, literatura horren hedadura eta aberastasunaz balute hizpide.

Nahiz eta euskaraz idatzi den guztia (eta esan edo kantatu den franko) euskal literaturan sartzen dugun, hemen sartzera goazen gisa, ezin uka lezake gauzen berri dakien edozein guretarrek maizago topatzen dugula behe-aldeetan narrazka gaindegietan hegaka baino. Urria dugu, arras berankorra izateaz gainera; exkax xamarra ere bai, hitz lotsagarri honetaz balia banaiteke. Agian, bai, behar bada, badaiteke zenbait mota, hala nola honelako edo halako aho poesia, tontor garaietan gainez-gain ibilia izatea inoiz. Egite horretakoak gertatuak izatea ezinkizun ez delarik inondik ere, nekez mugituko gaituzte, jakinarean gainean ez gaudeino, alderdi ustel diren besteatarik haruntzago.

Urria, berankorra, ñaño-antxekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena: txit mugatua izan dela, erlijio edo hobeki eliz-arazoetara iraulia gehienbat luzaroko mendeetan. Hizkuntzari darion betiko leloa, beti-batekoa ez izanik ere, ez da batere aldakorra gertatu. Geure egunotan bertan, lanak izango genituzke obra mordoska (hitz lañoz nahiz neurtuz ondua) biltzen, dozenatxo bat bederen, geure munduko inguruko eta urrutiagoko literaturetan sortuen aldameanean pareka dezakegunik: gai direnek ere, huts ematen dute neurrian eta tamainan. Ba omen dugu euskaldunok lurberan harro eta buruzut ibiltzeko nahikoa arrazoi, baina ozta-ozta aurkituko dugu horien artean, eta ez naiz arrotzez ari, literaturaren bitartez eskura ditugun gorenko merezimenduak aldarrikatuko dituenik.

Halaz guztiz ere, gure adineko eta gazteagoen artean baten bati suertatu zaionez sarri aski, dena delako literatura hori, lehendanik doi-doi ba omen zelakoa entzuna zuena, ustekabeko harri preziatuz josia irudi zekiokoen. Josia ez bazegoen ere, urre gorrizko printzak atzemango zituzkeen, bakanka bederen.

Esana dirudi dagoela horrenbestez ez direla euskal idazleak ugariak izan: urriak eta berandu etorriak bestalde. Eta idazleak ez ezik, ez dela haziegia euskal irakurleen samalda, oraintsu gehitzen hasia badugu ere. Eta, hau dela eta, darabilgun hariari zeharka baizik ez dagokion oharen bat bitartekatu nahi nuke, urrutirago baino lehen. Ez digute, erabat esanik, euskaraz idaztea debekatu, are gutxiago irakurtzea: badakit ez dutela esana ontzat hartuko euskaltzale askok, behar bada gehienok. Gogo onez, are onegiz, mintzatzan dira modu honetan, geure gaitzak besteri egotzi nahian, baina eskaini dituztenak baino arrazoi bortitzaagoak eskaini beharko dituzte honako sinesgogor hau beren bidera eraman nahi baldin badute.

Gertatutakoen aztarrenak azter ditzakegunez gero, izan ere, eskal idazle gehiago (eta goiztarrago) izan da Iparraldean Hegoaldean baino, arestiko berriez ez bagara ari: goiko eta beheko idazleak, baita argitaratzeko ez ziren zirriborroak egin zituztenak ere. Eta irakurleen arteko aldea idazleenaren parekoa da, ezinbestean. Eskaintzen dena hartzen da edota, behar bada, eta alderantziz, hartzen dena eskaintzen.

Hauxe litzateke goikoaren ondorioa. Ez geunden batzuek besteak baino besteren hizkuntzak menderatuago (bestela uste duenak azal bitza kolkoan daramatzanak), eta halaz guztiz batzuek lotuago agertu ziren etxeko mintzairari besteen aldakan. Barrenak hala agintzen zuen dirudienez eta epeltasun hori izkribuz agertzen da bakarrik, ez ahoz. Hemen, ematen duenez, ez zuten indar zapaltzaileek ezberdintasun larregirik sorrerazi.

Ez dira horrenbeste gure artean jende arruntaren eskea (eta gehienok izan gara arruntak arlo honetan) biztu duten irakurgaiak. Gipuzkoan gelditzen naizelarik, Lardizabalen *Kondaira* datorrik gogorra, edo Arrueren *Brabanteko Jenobeba* edo, geroago, G. Muxikaren Fernando Amezketarrarenak. Hauek, ordea, chunka aldiz esanak eta entzunak ziren dagoeneko eta soinua lagun bizi zirenak ere iraukor agertu dira behin eta berriz. Jenobeba bera bertsean, Arrueren liburuaz baliatuz J. K. Zapirainek eman zigun.

Etxeko eta betiko irakurleagoak izan zuen, egia esan, gehigarri bat, aspaldikoa hau ere, baina ixilka ibilia. XIX. mendean kutsatzen zaio gure izkribuen aldeko ixuria jende izandun eta ikasari. Humboldt-ek hartu zuen bidetik segitu zuten, beste hainbesteren artean, Bonapartek, Abbadiek, Aizkibel umilagoak, Francisque-Michelek, Vinsonnek, Urkixok... Kontuan eduki behar genuke, haatik, euskarazko ez gainera, euskararekikoak eta Euskal herriarekikoak bilatzen dituztela horiek, nahiz edozein erdaratan eginak izan. Ez zaie, halere, izan duten eragina ukatu behar euskal gaietara jendea makurtzen eta makurtu-makurtzekoei sarbideak prestatzen.

Ez genuke bestalde atzendu behar ez dela euskal literatura gutaz eta gure artean izan dugun literatura bakarra gure herri honetan. "Literatura vasca" ez da beti, ezta maizenik ere, antzina "literatura vascongada" deitu ohi zutena (hots, "euskal literatura"), nahiz guk besterik nahi. Zein hizkuntzatan agertu dira gure antzina-ko eta beranduagoko balentriak zabaldu zituzten irakurgaiak? Zenbat aldiz izan da euskara erdararen mirabe horrelakoak iraultzean,



teatro-lanetan esate baterako? Ez da *Altabizkarko kantua*, gero Hiri-barrenek ere jasoa, erdal jantziz estreina egin zuen bakarra; hor dago, beste bat aipatu behar bada, *Ateka gaitzeko oihartzunak*-en itzulinguruka bihurria.

Euskara lantzeko ere, egunoroko elkarrizketa eta elizkizun-jaiegunetako kantuez kanpora, ez zegoen sorleku hautaturik. Lehen burutik hasteko, badakigu nolako hondabidean ibilia zen gure irakaskuntza eta irakaskuntza horretan, Etxeberri bezalakoren baten ahaleginak gora-behera, euskarak izan zuen sarrera eta eragin urria. Hobe genuke (agian gehiegi goraiiputzen dugun) Oñatiko Unibertsitatea ahazmenaren osinean murgildurik utzi. Horretarako eta bestetarako, izan ez bagenu bezalatsu moldatu ziren gauzak; okerrago, heldu bada, genuen etxeteilape ederreko barrunbe kaxkarra lagungarri izan baitzen, zerbait genuelakoan, behar genuenaren gose-egaria uxatzeko. Eta euskal literaturaren mesederako deus onik jaio bazen han, ongi izkutaturik dago. Ezagun den emaitza Salamankako Unibertsitate eta Limako Ikastetxearena baino ezerezago baita.

Aurpegi lasaiagoa ager dezakete bai *Bascongada*-k Muniberekin eta bai Loiolak Larramendirekin. Gero eta argiago ageri baita, nahiz Bergarako Mintegiarenak ez hain hedatuak egon, orduan hasi zela eta ez lehenago gure Hegoalde honetan gero eta aberatsago (ia paperetan soilik, zoritxarrez) egungo eguneraino iraun duen bizialdi berria.

Hizkuntzari dagokionez, bat datoz, gutxi gora-behera Munibe eta Larramendi, hura honekin ados datorrela esatea ez baldin bada zuzenago. Hemen biztu zen su<sup>a</sup> ez zen Gipuzkoako lurretan gelditu: bizkaieraren loraldia luzaro gabe dator, Nafarroa (bakarti gehienetan) ez zen erabat lozorroan gelditu eta beste aldekoek hartu zuten ordutik aurrera lehen guk haiengandik bildu genuenaren truk. Harremanak, ongi uler bedi diodana, bitara izan ziren XVIII. mendearen erditik hona, batetik bestera eta bestetik batera, eta hala behar ere. Baina artean zordun huts ginenok hartzekodun ere gertatu ginen orduan hasi eta gaurdaino.

Orainagokoak oroiteraztea ez da agian dirudien bezalako alferlana. Joan den mendearen erdi alderaino euskal arazoak, bizi-bizi hasiak, bere bidetik ibili ziren, lasai eta nagi-antxean. Nagiak ernatuko ziren, ordea, 1870 ingurutik aurrera, eta esan daiteke gehiegikerietan amildu gabe Donostia izan zela, besteri kendu gabe, eragile nagusi.

Gerokoak hobeki gogora ditzakegu, neke larririk gabe. Larramendigandikakoek eta horien ondorioak irauten dutelarik gogor baino gogorrago hartuko ditu laster 1900 aldean sortzen den iraultzak. Bestela esan, iraultza pareak, Arana-Goiri eta Azkue ez baita biltza bat —hori izan ohi da iraultzaileen zoria— desegite lanetan baizik. Egin eta eraiki, nork berea egin eta eraiki nahi du eta, Larramendirenak aho batez arbuiatzen dituztelarik, ez du batarenak zer ikusi handirik bestearenarekin: honentzat maitagarri, harentzat higuigarri.

Ez ginen oraindik bakebidean, aski hurbil bageunden ere, inoiz ikusi ez genuen bezalako ekaitzak harrapatu gintuenean. Lehen ere ezagutu genituen aldakuntzak, XIX. mendearen azken aldetik honuntz, batez ere, baina ez genuen somatu erauntsi honen eztanda urrikigabearen gisakorik. Eta erasoak gu hartzen gintuelarik, ez zuen behar bada euskara minbera baino xede deusezagarik aurkitu. Ez dut uste premiazkoa denik, oraindik behinik-behin, orduko eta hurrengo hainbeste urtetako hondamendiez mintzatzea.

Eta euskara eragiten eta ia desegiten duen edozerk euskarazkoak ere astindu behar, noraezean. Euskarazkoak letra bidez berriz agertzen hasi ahala, poliki-poliki dakigunez, izan zen aldaketa hemen ere, aski ixila lehenbizi, aski zaratatsua gero. Gerra aurrekoen isla eta errainu zirudiena txoil bestelakaturik ikusi dugu azkenean, giza-ohiturak alda daitezkeen arabera. Berezkoa da noski aldatze hori eta ez gara nor, aldi bitarte luzeagorik igaro arte, onerakoak eta txarrerakoak mugatzeko eta zedarritzeko. Era eta modu berriak, nolana den, berekin dakarte zaharragoak baztertzea lehenik eta zaharragoz atzentzea ondoren.

Horixe da, hain justu, hemen dihoakidan auzia. Lizardi-ondokoak ahituxe ditugu honezkero eta horiekin batean agortu da Lizardi-ren garaiko eta aurreraxeagoko egoeraren berria. Hauek bazekiten zerbait, franko ere bai, Azkue eta Arana Goiriaren on eta gaitzeritzez; baita bi nagusiren zerbitzariak ere izan zirela, Kirikiño dugula lekuko gailen. Oraintsukoek jakin izan balute, ez zuketen segur aski, batek edo bestek egin duen bezala, Orixe “sabinddiarr (barka, arnista) batza”-n bilduko. Arriandiagaz, Euzkeltzale Bazkunaz, *Euzkerea-z* eta abar entzuna zuketen nahi-ta-ez.

Eta zer esan *Euskal erria-z* eta horren gisakoez ia mende erdi batez euskara idatziaren bidean gidari izan zirenez? Zer, iturburu garbi duten Larramendiz? Gauzatxo bakar bat, uste dut: oker baino

okerrago ibili zirela. Gerokoak gazteagoen begi-gogoetan okerrak izan diren gisan.

Gutxiespena mirespen bihurtu balitz ere, egia osorik aitortu behar bada, ez dugu ia oraintsu arte modu erorosik izan idazle zaharragoen lanak irakurtzeko. Egungo egunean ere, ez da ogi bedein-katua izengoiti horren azalpean eskaini zaigun guztia.

\* \* \*

Honako lerro hauek sorta berri baten atarirako ari naiz idazten. Muga jakinak ditu, irakurleak erraz igerriko dizkionak, bai denboraz eta bai mailaz.

Azkenekotik hasten banaiz, hauxe esango nuke: ez dela filologo jakintsuentzat asmatua batipat. Ale bakoitzak sarreran Axularren hitz ezagunak lekarzke: “Eztut liburrutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil deus eztakitenentzat ere”. Ez diote, ordea, kalterik egingo letraturik landuenari ere, nahiz filologi-sailekoa izan. Edizioak kontuz eta arretaz egin direlako. Ohitura-aldatzeak berekin dakartzan bereiztasunez kanpo, letraren funtsari begira aterako dira, gaurko argitaratzaileak ipini dien axalak atzoko egilearen mamia alda ez dezan.

Garaia, esan bezala, mugatua dago. Ez dira obrak joan den mendekoak, *Abarrak*, esaterako, oraintsuagokoa baita. Ez dute, bestalde, mende hori osorik betetzen. Mogel, Juan Jose, dugu aspaldikoena: ez dira, bada, sortan agertzen 1800 inguruko idazleak, onenen artean beti eduki ditugunak.

Hitz lauz eta neurtuz, neurtitzak beheragotik dabilta, legezko denez. Euskalkiak ederki banatuak ikusten ditugu: zuberorak egin du kolpe huts, hala behar eta mintzaera hori delako hemengo euskaldunentzat gaitzena agian. Gaiak ere, lehen gainbegiratu ditugun gure ondasunen neurri murritzean, badute aldea batzuetarik besteetara. Eta, berriz ere lehengo eta betiko lelora natorren, badirudi elizgizonak ez direla aldi honetan nagusi irtetzen: hamarretarik lau dira, kontuak nahasi ez badituz, gehiegikeririk gabe dagokigun neurria.

Ez dut deus askorik esan behar sorta honetan egin den hautaketaz: ongi deritzat eta biziki pozten naiz erabakia ez delako nere eskuetan izan. “Aukeraren maukera —Isastik jaso zuenez—, azkenean okerra”, eta horixe da horrelakoetan gertatu zaidana. Begi zorrotza-

goa eta esku arinagoa izan du bestek nik izan nezakeen baino. Honelatsuko asmoa —ez eremua— zuen noski Azkuek joan den mendeburuan gure zenbait klasiko —nork bere klasikoak ditu— argitaratzen hasi zenean, bizkaierazkoak nik uste.

Mogel, J. J. hau ere, hartuko dut abiatzekoan, bera bakarrik baita (iritzira) XVIII. mendean jaioa, eta hogeiren bat urte bizia. Bi argitaraldi izan zituen *Eskoliak* bera hil baino lehen eta bigarrena, 1845ekoa, izan da hemen oinarri: Ez naiz gauza izan zenbat gehiago agertu ziren gero jakiteko eta badirudi bestek ere horrelako duda-mudak izan dituela. Osabaren eta Markina-aldekoen joera eta kutsua erakusten du, baita garai hartan inoiz baino gehiago agertzen den jendea hazi eta hezi-nahia.

Egungo eguneko jendeak irakurtzea merezi duela uste dut. Eta, hitzak hizpidea ekarririk, aipa dezadan bidenabar inoiz goregi jaso ez baldin badut, ez dudala ixilpean utzi ere, Onaindiak, *Euskal literatura* II, 70, besterik esan arren. Eta hori *Plauto Bascongadorekikoa* gordean utzi nuelarik, ez baitakit oraindik estalgile ala saltsa-sortzaile izan zen. Prai Bartolomek, nolana ere, ez zuen akulaitzalerik behar, egia esan.

Izan zuen gainera, *Eskolia*-k hain zuzen, bere itzultzailea, nahiz eta ez beste hizkuntza batetara. “Itzuli det —dio hemengo zerrendan ageri den Gregorio Arruek— gure Probinziako euskerara, al bait nekazari-jendeak erraz adi lezakean erarik onenean, nere erritar maite euskaldun uts edo gatzelaniarik eztakitenak, Bizkaian ainbeste on egin duen liburu au gabe luzaroago egon ez ditezen”.

Egia da, bai, osorik aitortu behar bada, bazuela Arrue eskola-maisua eta langile amorratuak itzulpen laneratarako ixuria: ez ote zuen, bada, berak gipuzkerara bihurtu gehiegizko premiarik ez zuen Mendiburu nafar-oiartzuarra? Horren aldamenen bekatu arina da, bekatua baldin bada, Mogel osaba-ilobak euskalki horretara aldatzea. *Brabanteko Jenobeba*-rena ere euskaratua da eta gorago esan dut, oker ez banabil, nolako harrera ona izan zuen gure artean, oraintsu arte. Eta ez dakit gaur bertan mututua den haren oihartzuna.

Itzultze lanak ahotan hartuz gero, nekez utzi dezakegu goramen berezirik gabe, gure literaturan, Duvoisin-en izena, Bonaparten eskutik nahiz bere gisa hainbeste modu horretako lan utzi zizkiguna. Euskal itzultzaileen buruzagi eta errege deituko nuke, Orixeren itzal haserrea tentatzeko beldurrik ez banu. Honako hau, ordea, *Laborantzako liburu* hau, ez da bestetarik hartua, handik eta

hemendikako maileguak izango dituen arren, zalantzarik gabe. Gisa horretako liburuak ez baititu inork oso-osoan bere burutik eta baitarik ateratzen, ezta gaia norberak asmatua duenean ere. Eta Duvoisin kapitaina, aditu baino adituago bihurtu zelarik sail horretan, nekez zen nekazaria eta inondik ere ez nekazaritzaren sortzailea. Dagoeneko, eta berberak itzuliaz baliatzen naiz, "Abel izan zen artzain, eta Kain laborari".

Olerkariez, hots *avant le mot* olerkari zirenez, ez noa luzatzera. Bilintzez, izan ere, maiz askotan egin izan ditut ohi ez bezalako goraipamenak. Badakit ez dela, ezin izan ere, hutsik eta tatxarik gabea, zena zelako hain zuzen: horrexek bihurtzen du bereago eta aldi berean gureago.

Egingo nuke Bilintx, azken buruan, ezagunago dela gizarte honetan, Arrese Beitia baino. Garaiz eta aldartez, zeharo ezberdinak dira. Bilintx jakina denez, gureztat bigarren den Karlista gerratean hil zuen gerrak, eta Arrese Beitia gerra horren ondorioetakoa dugu, zorioneko ondorioa borrokak ekarri zituen zoritxarrak izan arren kantagai. Kantagai esan dut, eta ez dakit esaera batere egokia den. Bilintx, izan ere, soinua lagun heldu da gureganaiño eta askok eta askok entzutez ezagutzen dute irakurtzez baino areago. Jakin, bada-kigu honek ere idazten zuela, doinua berandu hartu dutela franko bertsok. Kantari agertzen zaigu halaz ere, musika ozen nahiz ixilaren arrimuan.

Arrese Beitia, berriz, idazle dugu beti, bere poemak paperean uzten zituena. Jakina da nolako izena jaso zuen luzaroan aritu baino lehen. Campion batek, eta ez zen juez kaskarra maitasunak itsutzen ez zuenean behintzat, gorengo izarretaraino goretsi zuen. Otxandiarra izan zitekeen, bere ustez, hilaginean zegoen euskarak behar zuen sostenguetarik bat, poesiaren arnasaz biziberrituko zuena. Campionek, eta ez genuke hau sekula ahaztu behar, Nafarroako zenbait eskualdetako hizkuntza erian ikusten du euskararen egoera, ahaleaginean eta epetan ibili gabe sendotu behar den hiltzorikoa. Eta berak ezin euskaraz adieraz zezakeen deitorea besteren ahotik, santugile baten ahotik, entzuten zuen bizkaieraz.

\* \* \*

Literatura honen hutsarteetan bada bat aski sonatua. Ele zaharrak (erdaraz hainbeste egosiberri agertu zitzaizkigun garaian bertan)

eta berriak urri azaldu dira oraintsu arte. Bagenituen herri ipuinak, ehunka eta milaka galduak honezkero, nork konta ez zegoenean baizik idazten ez zirenak, nolabaiteko izkirimiriak eta kondairak: Testamentu zahar eta berriak kontagai ugariago eskaintzen zuten, Larregik eta Lardizabalek batez ere ongi ikusi zutenez, Gipuzkoak baino, adibidez.

Kontakizunen sailean bada sorta honetan non hauta, Brabanteko Jenobeba ahopean gelditzen bada ere, lehen ahotan hartua dugunez gero. Behin baino gehiagotan entzuna daukat Laphitzeren *Bi saindu beskualdunen bizia* edozein elaberri bezain arin eta irakurterreza dela. Eta Urruzunok eta Urruzunoren *Ipuinak* zaletasun bizia sortu eta iraunerazi zuten euskaldun askoren gogoan eta ez zait iruditzen giro hori zeharo amaitua denik. Nolanahi ere den, jende berria ere zaletuko da aldi honetan, horrela gertatzekotan.

Azkueren *Bein da betiko*-z ezin luzeegi mintza. Ixilpekoa ezkutzen baduzue, aitortu beharko dizuet ez dudala hala beharrez, nahiz bitan argitaratua izan den, ikusteko aukerarik izan, are gutxiago irakurtzeko astirik. Besteren kaltetan —eta agian gezurretan— mintzatzeari ez balitz, bekatari bakarra ez naizela esatera ausartuko nintzateke. Zerbait behintzat jakin dut, *Bein da betiko* delakoa elazarra dela, S. Onaindiaren hitzez, eta bizkaieraz landua. Aranak (“hay menos Sabinos que Aranas” entzun nion behin adiskide bati) eta Arakistainek eta euskaraz Domingo Agirrek hasieran zerabilten bidean ibilia dugu, beraz, Azkue bera ere, laster lehen geure begiz ikusi ez genuenean ikusiko dugunez.

Alfer lana litzateke, noski, Kirikiñoren berria zabaltzea. Azkueren laguntzaile izan ondoan goizegi hil zeino *Euzkadi*-ren euskal orria bere gain zuela, idatzi zituenak leku berezia izan dute euskaltzaleen gogoan. Hori da kontu kontari aritzea, zaharragoek hitzez egiten zutena lumaz egitea, irabazian gainera, inoiz galduan atera gabe. Ez dugu gehiegi izan, dozenerditik gora ez, sail horretan, berak hautatu zuen neurrian eta mailan (ez baitzuen kontaketa luzerik ez goitarrik egiteko gogorik) berdin diezaiogun.

Azkeneko utzi dut Elizanbururen *Piarres Adame*. Saratarraren bertsoak ezagutzen nituen, doinu eta guzti, beste hainbestek bezala: halaz guztiz, ez dute beren mailari dagokion edizio zuzenik, Bilintzek dagoeneko baduenaren parekorik. Besterik bazuela berandu jakiteratu nintzen, Lafon irakaslearengandik, gezurra badirudi ere, hitzez lehenbizi, izkribuz gero.

Paregabea zen, nolazpait esan, *Piarres Adame* Lafonentzat, euskal literaturan berdintzekorik ez zuena. Hizkuntzagatik zioela uste nuen, nabari baita beti Elizanburuk euskararen gainean zuen nagusitasuna. Eta iritzi horrek iraun zuen hartu eta irakurri, ez da lan luzea ez nekeza, nuen arte.

Bat nator orain Lafonekin. Penagarria da bakar-bakarrik Elizanburuk lana oraindik hasi-berritsu zuelari, bertan behera uztea. Zoritarrez, hain alde onak zituelarik poeta eta idazle bezala, bazuen (besterentzat) hain ona ez den grina: *Epicuri de grege porcus* zelarik, ez zitzaizkion lan astun-aspergarriak gogoko, eta Epikuroganako ixuria Mourlane Michelenak azaldu zuen lehenbizi, dakidanez.

Lanak ez zuen, gainera, luzea izatea beste gaitzik. Kontaketa irekia da, hasiera itxia badu ere. Hasiera eman zaigunean, Piarres eta kontatzailea, garaia, lekua eta gainerakoak, kontaketa luza daiteke nahi adina kontakizuna poliki-poliki, bideak eskaini ahala, taxutuaz. Horrelakoak dira, adibidez, *Don Quijote*, *Pickwick Papers* eta *Manuscrito encontrado en Zaragoza* (izena gaztelaniaz ematen diot ez baitakit ze hizkuntzatan, frantsesez?, izan zen idatzia) eta beste ezin konta ahala, Tormesko itsu mutila, Gil Blas eta beste hainbeste. Tarteka, lerro nagusiaz saihesturik, bestelako ipuinak ere sar daitezke. Elizanburuk ere sartu zituen. Damurik, diot berriz ere, ez zuen aurrera eraman euskal literatura biribil zezakeen obra.

\* \* \*

Laster izango dugu egokiera, sorta hau osorik argitara bezain laster, euskal literaturaren berri zehatzagoa izateko. Ez ahal zaigu guri irakurtzeko gogoahituko, nahiz lehendanik ezagutzen bagenituen ere irakurgaiak.

Ez, noski, gure idazleen emaitzen ezaguera osoa izateko adina. Aldia, esan dugunez, aski mehar mugatua dagoelako. Autoreak, zer esanik ez, hamarreko bakar batean bildu beharra zegoen. Gaiak ere, ezin bestean, ez zen nahi bezala hautatzerik, gorago aipatu dugun ondasunen agorrrak premia larrian uzten gintuelako.

Egin den aukerak, dena den, nahikoa bide zabaltzen dio eremu horretan sartu nahiz sakondu gogo lukeenari. Eta ohar bat, bidena-bar, inork txartzat hartzea nahi ez nukeena. Hau dela zein hori dela, egingo du baten batek astuna ez ezik, aspergarri eta gogaikarri gertatu zaiola irakurtzen saiatu dena.

Gogoan har dezagun, nolanahi ere, bata aspertzen duenak ez diola beti gogaiteragiten besteari. Pisua, gainera, sakonari omen dagokio, hainbeste bider ikusten dugunez. Eta axalekoak izanik ere, ez dira gurean bakarrik aurkitzen tankera horretakoak. Egingo nuke nik behintzat ugaritasunari tink lotua dagoela aspergarritasuna, hiztegieta (oraindik) agertzen ez den hitz batez balia banaiteke. Erdal literaturetan, beraz, aurki dezakegu horrelakorik eta, orain aditzera eman dudan legea zuzena baldin bada, euskal literaturan baino maizago. Azken finean, Joyce edo Kafkaren zenbait fruitu ez bide dira denbora-pasa irakurtzekoak. Eta ez ditut *trobar clus* delakoaren argibide nabarmenak aipatzen unatu nahi.

Honako hau bederen, irakurle, arin izan dakizula.

Koldo MITXELENA



## RESURRECCION M.<sup>a</sup> AZKUE

### 1. R. M.<sup>a</sup> Azkueren Gainean

Eusebio M.<sup>a</sup> de los Dolores garaiko poeta aski ezagunaren seme R. M.<sup>a</sup> Azkue, Lekeition jaio zen 1864. urteko abuztuaren 5-ean. Bigarren mailako ikasketak Bilbon eginda gero, Gasteizko Apaiztegi-ra jotzen du eta han hasitako apaiz karrera Salamankan Teologia dotoradutzarekin burutzen. Kolonian armonia eta konposizio ikasketak egin ondoren, 1888. urtean Bizkaiko hiriburura itzuli eta, Arana Goiri eta Unamuno lehiakide dituela, bertako Institutoko euskara irakasteko lehen Katedra lortzen du. Aurrerantzean, Hiztegiaren argitaratze lanak zaintzeko Frantzian eman behar izan zuen denboraz kanpo, Bilbon biziko da. San Petersburgoko Zientzi Akademiaren, Parisko *Société Linguistique*ren nahiz Madrilgo *Academia de la Lengua Españolaren* partaide izateaz gain, Euskaltzaindiaren Buru izan zen erakunde honen sorreratik, istripu baten ondorioz, 1951. urteko azaroaren 11-n Bilbon hil zen arte.

Bere bitzta luzean eten gabe ihardun zuen lanean eta asko da eta askotarikoa euskararen eta euskal literaturaren historian erabateko eragina izan duen gizon honek eginikoa: gramatika, hiztegin-tza, aho tradizioa, antzerkia, operak, ipuinak, itzulpenak, erligio liburuak, euskara irakastekoak, aldizkariak, ... Azkueren hiztegi lana da Mitxelena irakasleari esker gehien ezagutzen duguna, baina, izan ere, asko da oraino bere erizpideez eta hauen bilakaeraz azterkizun dagoena. Espero dugun bezala I. Lakak aurkeztu berria duen tesina argitaratuko balu, Azkue gramatikalari ere hobe ezagutzeko aukera genuke.

## 2. Bein da betiko. Batxi guzur

*Bein da betiko* (= **BB**) liburu bezala irten zen argitara Bilbaoko *Imprenta de la Casa de Misericordia* delakoan 1893. urtean. Lehen argitalpen honek bitxitasun aski nabarmena ageri du: bikoitza da, Azkueren hitzez esateko<sup>1</sup> “Eskerreko erreskadaan Bizkai guztiko izkera edo berbete bat egina oitu daugu [= ‘dugu’]; eskumakoan Lekeitiokoa”. Zorionez, “Bizkai guztiko hizkera” horretaz, hots, *Izkindean* ematen dituen proposamenei jarraituz eraikitako *entelékheiaz*, ez da berriro baliatuko, gaztaroko Gramatika sekula erabat baztertuko ez badu ere. 2. argitalpena 1898. urtean Azkueren zuzendaritzapean zegoen *Euskalzale* aldizkarian agertu zen; oraingoan, ordea, Azkuek era bakarra ematen dio, lehen argitalpeneko bi idaztaldien ezaugarriak agertzen dituen era berria hain zuzen ere. Aurreantzean, ezkerreko era adierazteko *1893a* eta eskubikoa adierazteko *1893b* erabiliko ditugu.

Bigarrenez hemen argitaratzen den *Batxi guzur* (= **BG**), bestalde, *Euskalzalere*n lehen alean, 1897. urtean, eman zen argitara.

Bi obra hauek, lehenengoak lehen argitalpenean *Lenengo irakurgaia*. *Bein da betiko* izenburua bazeraman ere, nobelak baino ipuinak liriateke. Ipuin arin eta umoretsuak, kostaldeko herrixka baten bizitza eta ohiturak kontatzen dituztenak, irakurlego ezikasiarentzat eginak. Ez bide dute, beraz, literatur balio handirik, baina guztiz garrantzitsuak dira euskararen historian, beraiek baititugu Mogelek eta Añibarrok jorratutako bideetatik aldentzen hasia den literatur bizkaiera berriaren lehen lekukoetako bat.

## 3. Gure argitalpena

Hemen aurkezten dugun argitalpenak, grafiari dagozkion zenbait bateratzez kanpo, egileak argitaratu bezala ematen ditu obrak. Esan gabe doa, **BB**-ren argitalpena *Euskalzale*koari jarraituz, hau da, Azkue bizirik zegoela egindako azkenari jarraituz egina dela.

---

<sup>1</sup> R. M.<sup>a</sup> Azkue, *Lenengo irakurgaia*. *Bein da betiko*. Bilbao, 1893, 102. orr.

### 3.1. Oharrak

1. Izartxoaren daramaten hitzak obra bakoitzaren azken aldean ezarri den hiztegian, urrenkeraren alfabetikoan aurki daitezke. **BB**-ren hiztegia, Azkuek berak lehen argitalpenean eskeinirikoaren hautapena da. **BG**-ena eratzeko, berriz, jatorrizko argitalpenean zehar egileak ematen dituen oharrrak urrenkeraren jarri baino besterik ez dugu egin.
2. AÑIBARROREN HIZTEGIA: FR. P. A. DE AÑIBARRO, *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*. Bilbao, 1963. L. Villasanteren argitalpena (1820 inguru idatzia).

IZKINDEA: R. M.<sup>a</sup> AZKUE, *Euskal-izkindea*. Bilbao, 1891.

HIZTEGIA: R. M.<sup>a</sup> AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao, 1905-1906.

1916-ko AZKUEREN HIZTEGIA: R. M.<sup>a</sup> AZKUE, *Diccionario español y vasco (A-Avezar)*. Bilbao, 1916.

1918-ko AZKUEREN HIZTEGIA: R. M.<sup>a</sup> AZKUE, *Diccionario de bolsillo (vasco-español y español-vasco)*. Bilbao, 1918.

LARRAMENDI: P. MANUEL DE LARRAMENDI, *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, I-II. San Sebastián, 1745.

### 3.2. Ortografia

Bihoaz lehendabizi egin ditugun grafia aldaketak: **Ī**-ren ordeztu **11** idatzi dugu; **ġ**-ren ordeztu **dd**; **ĥ**-ren ordeztu **tt**; **š**-ren ordeztu **x**; **tš**-ren ordeztu **tx**; eta **dž**-ren ordeztu **y**. Azken hau Azkuek [dž] afrikari palatalaurreko ahostuna adierazteko darabil<sup>2</sup>; guk, gauzak erraztearren, alfabetoan libre guenenaz baliatu behar izan dugu, egokiena ez

---

<sup>2</sup> K. Mitxelena irakasleak, \*j-aren garapenez ari dela, dioenez: "Es una africada prepalatal sonora [dž] en la parte occidental de Vizcaya, a partir de Lequeitio, Durango y Ochandiano, incluidas estas poblaciones. Azkue, sin embargo, señala j en vizcaíno occidental de Arratia, Orozco y Txorierrri" (*Fonética Histórica Vasca*<sup>2</sup>. Donostia, 1977, 169. orr.). Irakurleak ikusi ahal izango duen bezala, esku artean dituen nobelatxo hauetan, bietan, gertatzen direnak Lekeitio gertatzen diren arren, **BG**-en

bada ere. Bada gainera nolarebait sistimaz kanpo dagoen grafia bat: ž. Bere lekuan **x** idatzi dugu eta gertatzen den guztietan —lau bider—, **s** gangarduna iturri duten **x**-ekin nahas ez dadin, ohar bat ezarri diogu. Dagoen dagoenean utzi dugu, bestalde, behin —*dzanga* hitzean— agertzen den **dz** idazkera, Azkuek berak dioenez<sup>3</sup>, onopatopeia hitzetan bakarrik gerta daitekeen txistukari horzkari bat adierazteko erabilia.

Ñ eta **11**-ren erabileran (Ik. Hitzaurreko 10.oharra) okerrik aurkitu dugunean, zuzendu egin dugu; baina gidoiaren kasuan, nahasketa larria den arren<sup>4</sup>, ez dugu ikuturik egin, askotan araua —araurik badago— zein den ez baitakigu. Adibidez, eta kasu bakarra aipatzearren, ondoko hitzak hiru agerraldi ditu soilik: *bana-banako*, *bana banako* eta *banabanako*. Harridura eta galdera marketan, bestalde, aurrekoak (i,ç) kendu egin dira, edo komaz ordezkatu.

Bizkaitarra izanik, Azkuek nahaste franko agertzen du **s/z** eta **ts/tz** bikoteen erabileran. Halere, nekez aurki daiteke hitz bera bi eratara idatzirik; I. Lakak *Parnasorako bidea*-z ari dela dioen bezala<sup>5</sup> “zalantza gutxi dago, eta dirudienetz aurretik hartutako erabaki baten arauera idazten dira **s** edo **z** daramaten hitzak”. Gure argitalpenean, erabaki horren zergatikoak etimologikoak direnean bakarrik gorde dugu jatorrizko grafia; ondoko hitzetan, beraz: *azkatu* [(**BG**) Astarloak dioen bezala<sup>6</sup> *atz-ka-tu-tik*, lit. “dedear” (?)], *esker* “ezker” [(**BB**, **BG**) *esku*-rekin zer ikusirik duelakoan edo], *giza*, “gisa” [(**BB**,

---

bakarrik agertzen da *dš*-rik, Lekeitioko herria ari denean hain zuzen; Batxi arratiarra nahiz kontatzailea ari direnean, berriz, bere lekuan —**BB**-n bezala— *i* dugu, hau da [j], eta maixu markinarra ari denean, [x] bakarrik adierazteko darabilen *j*.

<sup>3</sup> R. M.<sup>a</sup> Azkue, *Proyecto de ortografía*, Bilbao, 1896, 13-14. orr.

<sup>4</sup> Esaterako, *erdal-erri*, baina *erdalerri* (**BB**); *kaiola-txori*, baina *kaiolatxori* (**BG**); *Kala-aldean*, *Probitzia-aldean*, baina *ate aldean* (**BB**); *ianari-billa*, *ondasun-billa*, baina *ondasun bila* (**BB**); *Batxiren*, baina *Kose-ren* (**BG**); ... Edota honako hauek **BB**-n: *izerdi-larritan* (1893a, 1893b), baina *izerdilarritan* (1898); *belaun-buruko* (1893a, 1893b), baina *belaunburuko* (1898);...

<sup>5</sup> I. Laka, “Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz”, ASJU, XIX-1, 1985, 224. orr.

<sup>6</sup> Ik. P. P. Astarloa, *Apología de la lengua bascongada...* Madrid, 1803, 80. orr. Hemendik hartu bide zuen Arana Goirik ere, iturburu aitoritzen ez duen arren. Cf. Azkuek 1918-ko Hiztegian, s.v. *soltar(se)*, dioena: “*askatu*. = Algunos escriben (un (sic) tiempo también yo escribía) con **z**: *azkatu*; por creer que viene de *atz* “dedo”. Askatu y aún más su variante *eskatu* se dice unánimemente con **s**, aun allí donde distinguen los dos sibilantes **s** y **z**”.

**BG)** Azkuek dioenez<sup>7</sup>; “Locución puramente eúskara, originada de *giza* = naturaleza, modo de ser.”], *zorgin* [(**BB**, **BG**) *zori-gin*-etik datorrelakoan] eta gainera *aizola* ‘ajola’ (**BB**), *kaiskarreko* ‘kaskarreko’ (**BG**), *Keizu* [(**BB**) baina *kexu* (**BG**)] eta *kezura* ‘kexura’ (**BB**). **BB**-ren lehen argitalpenari begiratzten badiogu, zerrenda honi azalpenik behar ez duen *zintsu* “zintzo” hitza erantsi beharko genioke. Hona hemen zergatik, **BG**-en beti *zintzo* den arren, **BB**-ren bigarren argitalpenean, oster, *zintzo* nahiz *zintsu* (Ik. 3.eta 4.oharrak) aurki daitezkeen. Izkindeari kasu egingo bagenio, gutxienez, *abisari* –**BG**-en *abizari*–geitu beharko genuke<sup>8</sup>.

Egia esan, zuzenago zatekeen etimologiarekin zer ikusirik ez duten *siniztu*, *tximizta*, *txiztu*, etabarretan –hots, Azkuek ez ezik beste zenbait idazlek ere darabiltzatenetan– ikuturik egin izan ez bagenu. Baina hauek zeintzu diren zehatz ez dakigunez gero hobe eritzi diogu guztiak aldatzeari. Hona hemen zerrenda: *asi* “hazi” [(**BB**) baina **BG**-en (Ik. 42.oharra) behin -s-z, bestean -z-z agertzen da. Gainera, **BG**-en ere, oharren bidez markatu ditugun *azi* “hasi”-ren zazpi agerraldi ditugu, araua, **BB**-n bezala, *asi* “hasi” den arren. Zalantza hauen zergatia *Izkindea*-n datza, bertan sistematikoki *asi* “hazi” eta *azi* “hasi” idazten baititu.], *astertu* (**BB**), *aunts* [(**BB**) salbuespen batekin, (ik. 69.oharra)], *azpeltu* (**BB**, **BG**), *baster* (**BB**), *bitz* (**BB**), *bustan* (**BG**), *bustarri* (**BB**), *eratz* “jatsi, bota” (**BB**), *errespe* (**BB**), *eskuta*[*tu*] [(**BB**) lehen argitalpenari jarraituz, **BG**-en -z-z idazten baitu.], *ezkaratz* (**BB**), *garraizi* (**BB**), *gorozti* (**BB**), *illuntse* (**BB**, **BG**), *istar* (**BG**), *katamots* (**BB**), *-kuntsa* [(**BB**) baina behin *arkuntza*, (ik. 36.oharra)], (*baba*-) *lazto* [(**BG**) cf. **BB**-n, *lasto-zorro*], *mostu* (**BB**), *motsaille* (**BB**, **BG**), *onerazpen* (**BB**), (*Maiatz*-) *Pasko* (**BG**), *puzka* (**BB**, **BG**), *sakatz* (**BG**), *samau* (**BB**), *san* “zan, zain” [(**BG**); **BB**-n, berriz, behin izan ezik, z-z agertzen da, (ik. bertako 22.oharra)], *sarratu* (**BB**, **BG**), *sartada* [(**BB**) cf. **BG**-n *zarta*], *sentzun* (**BB**), *siniztu* eta eratorriak (**BB**, **BG**), (*lo*-) *sorro* (**BB**), *sotz* (**BG**), *tximizta* (**BB**), *txirriskila* (**BG**), *txistu* eta eratorriak (**BG**), *ustapiko* (**BG**), *zakon* (**BB**, **BG**), *zargori* (**BB**) eta *zaukada* (**BB**).

**BB**-ren lehen argitalpena kontutan hartuz gero, zerrenda honi ere ondoko hitzok erantsi beharko genizkioke: *ausi-etxe*, *ese* (=eze

<sup>7</sup> *Euskal-izkindea*, 346. orr.

<sup>8</sup> “ABISARI. Aliciente. Llama así el vulgo: (...) 2.º al huevo que se coloca en el nido de una gallina para que le sirva de aliciente. Literalmente *premio de empear*. Reclamo” (*Euskal-izkindea*, 365. orr.).

“húmedo”), *eskondu* (Ik. BG-n 60.oharra), *estegu*, *ospin*, *osta*, *sokondo* (Ik. BB-n 62. oharra) eta (*arri*-)ustai. *Izkindea*-ri kasu egingo bagenio, gutxienez, *bezte* gehitu beharko genuke; hemendik BB-ren bigarren argitalpenean, eta BG-n aurki daitezkeen *beste* eta *bezte*-ren arteko zalantzak (Ik. BB-n 64.oharra eta BG-en 13, 32.eta 46.garrenak).

Ortografia sistema hau izan zen *Euskalzale* aldizkariak, Azkuek bere lan gehienetan eta halaber azkuetarrek erabiliko zutena; oinarrian, *Izkindea*-n aurki daitekeena bera. Sistema hau, haatik, bi puntu nagusitan aldentzen da *Izkindea*-tik; goiko arrasta delakoa ez da gehiago agertzen; BB-ren lehen argitalpenean zirenak, bigarreanean koma bihurtu edo-ta desagertu egin dira. Bigarrenik, s eta z nahiz ts eta tz bustiak (azken bikotea, dakigunez, BB-ren lehen argitalpenean agertzen da lehenengo aldiz) s, z, ts eta tz gangardunak erabiliaz bereizteari uzten dio. Oraindik 1896an bereizkuntza bete betean gordetzen duela dakigularik<sup>9</sup>, ez da harritzekoa BG-n (ik. 16., 18., 22.eta 23.oharrak). nahiz 1897ko *Euskalzale*ko bere zenbait idazkitan ere, puntu honetan zalantzak agertzea. Nolanahi ere den, urrengo urteko *Euskalzale*ko bere lanetan —BB barne— ez dugu bereizketaren aztarrenik aurkitu.

\* \* \*

Jakina denez, bizkaiera idatziak, mende hasieratik batik bat, bereganatu egin zituen berez herri hizkuntzaren, edo-ta zehatzago, Bizkaiko eskualde jakin baten herri hizkuntzaren diren zenbait gertakari fonetiko: *beso* baina *besua*, *musu* baina *musuba* bezalako eufoniez, nahiz bustidura automatikoez<sup>10</sup>, bestela esan, adierazgarri ez direnez ari gara, noski. Zorionez, puntu honetan Azkue Mogel-

---

<sup>9</sup> Ik., adibidez, E. M.<sup>a</sup> de Azcue, *Parnasorako bidea*. Bilbao, 1896. R. M.<sup>a</sup> Azkueren argitalpena. 1860 inguruan idatzia. Faksimila Hordago-n, Donostia, 1979; *Jaungoikua eta Foruak*. Bilbao, 1896, 17-44. orr.

<sup>10</sup> Bustidura marken arazoari dagokionez, BB-n gauzak honela lirateke: lehen argitalpeneko 1893a eran ez da testu inguruak baldintzaturiko bustidura bakar bat ageri; aitzitik 1893b-n sistematikoki bustitzen dira *i* aurreko *l*, *n*, *l*, *z*, *s* eta *ts*; *i*-z amaitutako diptongo aurreko *tz* eta *il* nahiz *in* aurreko *d*. Bigarren argitalpena erdi bidetik abiatzen da: *tz*-ren bustidura gordetzen du, esaterako, *bakotx* (*bakoitz* 1893a-n eta *bakoitz* 1893b-n),..., inoiz salbuespenik badago ere (Ik. 8. eta 50. oharrak); baina *l* eta *n*-renak aurreko *i* eta bokale artean bakarrik gertatzen dira. *ts*-ri dagokionez, aurreko *i*-ren eraginez bustiko bada, ondoren bokalea ere eskatzen du; ez dugu halere, erabateko araurik aurkitu (adibidez, beti *itxaso*, baina *itsu* nahiz *itxu*, etab.).

-Arana Goiriren bidetik erabat aldutzen da; ez du eragozpenik, halere, herri hizkuntza testura aldatu nahi duenean —eta hau *Euskal-zalen* argitara eman zituen hainbat kontakizun herrikoiez kanpo gutxitan egiten du— bere ñabardura guztiez hornitzeko. Auzi honi dagokionez, irakurleak esku artean dituen testu biak ez datoz bat; **BG**-en bi maila bereiz daitezke: kontatzailearena, bizkaiera standarra—edo litzatekeena, batetik, eta elkarrizketak, lekuan lekuko bereizgarriez apaindurik, bestetik<sup>11</sup>. Aitzitik, **BB**-n —eta ezagun du honetan aldizkari artikulua luze baino sortzez liburu dela— maila bakarra dugu, nolarebait esateko, kontatzailearena.

Bukatzeko, **BB**-ren bi argitalpenen arteko bereizkuntza pare bat aipatuko ditugu: a) Testuan oharren bidez markatu ditugun salbuespenez kanpo, 1983a bertsioan *-ez gero dena*, 1893b-n *-ez kero* da; bigarren argitalpenean, eta **BG**-n, aldiz, *-ezkero*. b) 1893a bertsioaren *-ntz-* taldearen ordeztu, 1893b-n, bigarren argitalpenean, eta **BG**-n *-nz-* dugu (*onantzko: onanzko*); *-rz-*ren ordeztu *-z-* (*etorzan: etozan*) eta *-rt-*ren ordeztu *-t-* (*zergaitik: zegaitik*), inoiz salbuespenik badago ere (Ik. 29.oharra).

### 3.3. Morfologia

**BB**-ren lehen argitalpenaren alderik interesgarriena, beharbada, aditzaren morfologiaren arloan aurki daiteke; obra honetan —eta, bere lehen gramatika salbu, honetan bakarrik— baliatu baitzen Azkue *Izkindean* logikaren izenean berreraiki zuen aditz sistimaz. **BB**-ren bi argitalpenak erkatzen baditugu, bigarrenak *Izkindean* sortutako *daut*, *daugu*, *daiz*, *gaiz*,... bezalako formak baztertzen dituen arren; halere zenbait berrikuntza gordetzen dituela dakusagu. Izan ere, berrikuntza hauek Azkueren geroko obran ez ezik, azkuetarren eta aranatarren lanetan aurki daitezke. Lehenengoa, N-N-N-en orain aldiko formei dagokie: Azkuek literatur tradiziozko *deutsat*, *deust*,... formen

---

Besterik dugu **BG**-en kasuan: kontatzaileak **BB**-ren bigarren argitalpenaren modura egiten du; herriak —Lekeitioko herria den neurrian bederen—, berriz, 1893b du eredu. Batxi, bestalde, 1893a-rekin bat dator.

<sup>11</sup> Aipatu bereizgarri hauen artean bada sistematikoki betetzen ez den bat: aurreko silabako *i* edo *u*-ren eraginez *a*-ren hersteaz ari gara. Adibidez, Batxiren eskutik *ikera*, baina inoiz *ikara*; *ikesi*, baina baita *ikasi* ere; eta abar.

ordez *dautsat*, *daust* etabar darabiltza, *Izkindean* emandako legerari jarraituz<sup>12</sup>: “*Au ó eu se emplean para auxiliar á verbos transitivos: AU para manifestar presentes próximos. EU cuando se quiere demostrar presentes remotos.*” Bigarrena, *-it-dun* aditz formak gaitzestea litzateke, ondorioz *ditu* edo, gehienez ere beranduagoko *dituz-en* ordez Azkuek berak sortutako *dauz*, edo-ta *gaitu-ren* ordez *gauz*, *zituzan-en* ordez tradizioz gabeko *ebazan*, etabar erabiliaz. Bi puntu hauei dagokienez, **BG-en**, ortografiaz ari ginela berezi ditugun bi mailak kontutan hartu beharrekoak dira. Lehen kasuan, kontatzaileak *-au-* erroldun formak darabiltza; herriak, aldiz, lekuan lekukoak; honela, adibidez, *dautsat* kontatzaileak, *yentsat* Lekeitioko herriak, *dotsat* Batxi, etab. Bigarrenean, Markinako herria ari denean bakarrik aurki daitezke *-it-dun* formak, adibidez: *jituguk*, *gaituk*.

Beste maila batean eta irakurlea ohartuko denez, Azkuek **BB-n** *zu* beti plural balioarekin darabil; aitzitik, **BG-en**, inoiz zalantzarik dagoen arren (ik. 17. eta 63.oharrak), egun bezala singularreko 2. pertsona adierazteko. Harrigarria bada ere, Azkuek **BB-n**, lehen argitalpenari eta azken finean *Izkindeari* jarraituz, garaiko eta geroko bere lanetan baztertutako bidea hautatzen du.

Aipa ditzagun bukatzeko aditz laguntzailearen erabileran idoro ditugun zenbait huts eta zalantza:

#### A) **BB-n**:

1. Aurketzen dugun testuan tarteka aurki daitezkeen *daue*, *euen* etabar bezalako formak aldaketa huts lirerateke, lehen argitalpeneko *-u-dun* formak (*daue*, *euazan*,...), bigarrenean *-b-dun* gertatzen baitira (*dabe*, *ebazan*,...).
2. Lehen argitalpeneko N-Nri-ren indikatibozko *dakio*, *ekion*,... bezalako ordez, bigarrenean *iako*, *iakon*, etabar ditugu. Aldaketa huts dira beraz gure testuan inoiz edo behin ageri diren arau honen kontrakoak (ik. 35., 44., 45 eta 62.oharrak).

#### B) **BG-n**:

1. Batxi ari denean, gehienetan *iako* (=“zaio”) agertzen da; halere, noizean behin *iake* (=“zaio”) aurki daiteke.

<sup>12</sup> *Euskal-izkindea*, 180. orr.



Era berean, nahasirik dabilta *iatan* eta *iaten* (=“zitzaidan”) *iatazan* eta *iatezan* (=“zintzaizkidan”). Kontatzailearen kasuan, bestalde, maizenik *iakana* (=“zaiona”) den arren, behin *iakena* (=“zaiona”) aurki daiteke; era berean, gehienetan *iakan* (=“zitzaion”), baina behin *etxakon* (=“ez zitzaion”).

2. Batxiren eskutik maizenik (*egiten*) *deu* (=“du”) agertzen bada ere, noiz behinka *eztan* idoro daiteke; pluralean, berriz, *dabez* (=“ditu”). Era berean gehienetan *daue(n)* (=“dute(n)”), *euen* (=“zuten”), baina behin *eztabe* (=“ez dute”; ik. 56.oharra) eta lau aldiz *eben* (=“zuten”; ik. 45.oharra), hirutan *daude* (=“dute”) —behin *dauden* (ik. 47.oharra) eta birritan *daudien* (ik. 67.oharra)— eta behin *euden* (=“zuten”; ik. 49.oharra) *Refranes y sentencias* eta Laudioko Dotrinaren antzera; pluralean ordea *euezan* (=“zituzten”). Maizenik, bestalde, *genduen* (=“gintuen”) baina behin *gendun*. Gainera, nahasirik dabilta *nendun*, *ninduan* eta *ninduen* (=“ninduen”); *neuen*, *neban* (ik. 43.oharra) eta *nendun* (=“nuen”; ik. 55.oharra); baina pluralean, berriz, beti *neuzan* (=“nituen”) agertzen da.
3. Batxiri dagokionez, ondoko N-N-N formak ere nahasirik dabilta: *deustak* eta *deustek* (=“didak”), *notsan*, *notsen* eta behin *neutsen* (=“nion”), *notsen*, *notsien* eta behin *enotsan* (=“(ez) nien”), *osten*, *ostien* eta behin *eustiela* (=“zidaten”).

\* \* \*

Aditzaz kanpoko morfologiari dagokionez, gai solteren batzu aipatzera mugatuko gara:

1. *Parnasorako bidean* Azkuek *bere* nahiz *beren* erabiltzen ditu singularreko hirugarren pertsonaren jabetza adierazteko, eta pluralean *euren*. I. Lakak dioenez<sup>13</sup>, singularreko bi forma hauek korreferentziaren arabera banatzen dira: “*bere*-k esaldiaren subjutuarekin korreferentziazko erlazioa luke, hau da bere ordaina litzateke; eta

<sup>13</sup> I. Laka, “Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz”, ASJU, XIX-1, 1985, 230-231. orr.

*beren*, ordea, subjektua ez denaren jabetza adierazteko erabiltzen da". Gure kasuan ez da honelakorik gertatzen, **BB**-ren lehen argitalpeneko 1893a bertsioari jarraituz —1893b-n beti *bere* baita—, singularrako forma bakarra dugu: *beren* (ik. 48.oharra); pluralerako berriz ere *euren*.

2. *Izkindeari* jarraituz, **BB**-ren lehen argitalpenean genitiboan, singularrean nahiz mugagabea, *gizonan*, *neskean*, *Txilin*,... bezalako *-ren* gabeko formak ditugu; bigarrenean, berriz, hiruzpalau kasu izan ezik, *gizonaren*, *neskearen*, *Txiliren*, etabar bezalakoak. 1896-ko *Parnasorako bidean* edo-ta *Jaungoikua eta Foruak*-en *-ren* gabeko formak soilik darabiltzanez gero, ez da harritzekoa **BG**-ek puntu honetan nahaste larria agertzea; izan ere, badirudi *-ren* gabeko formak *-ren*-dunak baino maizago gertatzen direla, adibidez, *Batxin* bederatzi aldiz agertzen da eta *Batxiren*, berriz, birritan.

3. Datiboaren ezaugarriak, **BB**-n nahiz **BG**-en, mugagabea *-(r)i*, singularrean *-ari* eta pluralean *-ai* ditugu. Halere, **BG**-en, inoiz edo behin, *alkarri* baina *Kosantoneri* bezalako zalantzak aurki daitezke. Hiruzpalau aldiz, bestalde, pluralaren ezaugarriaren ordez singularrarena agertzen da: ik., adibidez, *neskatileari*, *tximinoiari* eta *biari*.

4. *-z* dugu beti instrumentalaren ezaugarria **BB**-ren 1893a bertsioan, 1893b-n berriz, *-z* nahiz *-gaz* aurki daitezke: adibidez, *puntzetaz* (1893a eta 1893b-n), baina *diruaz* (1893a) eta *diruagaz* (1893b), *usteaz* (1893a) eta *usteagaz* (1893b),... Puntu honetan, bigarren argitalpena 1893a bertsioarekin bat dator, aldaketa diruditen hiru kasutan izan ezik (ik. 16, 49 eta 70.oharrak).

**BB**-ren bi argitalpenak erkatzean aurkitu ditugun zenbait aldakuntza ematen ditugu ondoren. Ohar bedi, bigarren argitalpenean bizkaiera gainerako euskalkietatik gehien aldentzen duten formak aukeratu direla:

1. Lehen argitalpenean nahiz 1893b bertsioan *-xe* dena, 1893a-n *txe* da: adibidez, *langoxe* ~ *langotxe*.
2. 1893a bertsioan *-txo*-ren lekuan, 1893b-n nahiz bigarren argitalpenean *-txu* agertzen da: adibidez, *lentxoago* ~ *lentxuago*.
3. 1893a eta 1893b bertsioetan idazten duen *-gai* nahiz *gai*-ren ordez, bigarren argitalpenean *-gei* nahiz *gei* dugu: adibidez, *senargai* ~ *senargei*.

Gainera, 1893a bertsioiko *bage*-ren ordez —1893b-n *bage* nahiz *baga* aurki daitezke— bigarren argitalpenean *baga* agertzen da; *obe*-ren ordez —1893b-n ere *obe* nahiz *oba*—, *oba*; *bestelan*-en ordez *bestela* —honela ere 1893b-n—; *min*-en ordez *miin* eta *non*-en ordez 1893b-n eta bigarren argitalpenean *nun*, salbuespenak agertzen badira ere. Esan gabe doa, aipatu diren kasu guztietan **BG** bigarren argitalpenarekin bat datorrela.

### 3.4. Hiztegia

Morfologia nahiz joskera eta ortografiaren arloetan ez bezala, hiztegiaren arloan alde nabarmena aurki daiteke *Euskalzale* inguruko eta geroko Azkueren obraren artean: garai honetan darabiltzan Larramendiren neologismoak —dagoeneko urritzen hasiak— urte gutxiren buruan, asmoz behintzat, erabat baztertzen baditu ere, bere lana garbizaleago bihurtzen da. Izan ere, kontrako ustea oso zabaldua dagoen arren, puntu honetan Azkue eta Arana Goiriren erizpidea funtsean bera izan da; erderatiko hitzei biek —Arana Goirik Azkuek baino areago— izan dieten ezin ikusiaz ari gara. Honela, **BB**-n eta **BG**-en erabiltzen dituen *abade*, *aingeru*, *altara*, *bandera*, *bateatu*, *bedeinkatu*, *diramante*, *eliza*, *kanpo*, *kontra*, *liburu*, *mundu*, *pekatu*, *sakristau*, *torre*, *zeru*,... bezalako hitz asko ez dira gero bere idazkietan agertzen. Hauek ordezteko bizkaieraz kanpoko euskalkiez duen ezagutzaz edo-ta —bide hau agortu duenean— neologismoez baliatuko da; esate baterako, *altara*-ren ordez *elizmai*, *opalmai* proposatzen ditu; *bandera*-ren ordez *erri-oial*, *gudoial*; *bedeinkatu*-ren ordez *onedatsi*, *onetsi*; *diramante*-ren ordez *ikatzuren* (Cf. alem. *edelstain*); *liburu*-ren ordez *gutun*, baita Arana Goiriren *idazti* ere; *mundu*-ren ordez *lurbi-*ra**; *petaku*-ren ordez *oben*; *sakristau*-ren ordez *elizain*, *elizgelari*; *torre*-ren ordez *txilintegi*; *zeru*-ren ordez *osgoi*, *oskoro*, *osta*, *zorileku*;... Euskalkiak aipatu ditugunez gero, esan dezagun nekezago aurki daitekeela bizkaierazko ez den hitzik **BG**-en **BB**-n baino; are gehiago, **BB**-ren lehen argitalpenetik bigarrenera honelakoak gertatzen dira: 1893-koan *erantzun edo iardetsi* agertzen da, baina *erantzun* bakarrik 1898-koan; era berean, *galdetu edo itandu* lehenengoan, baina *itandu* bigarreanean; *kalean edo karrikan* lehenengoan, baina *kalean* bigarreanean; *egubakoitz edo bariaku edo ostiral* lehenengoan, baina *egubakoitz edo bariaku* bigarreanean; gainera 1893a bertsioaren *itz*, *izketan* etabarren ordez 1893b eta, kasu pare izan ezik (ik. 8 eta 50.oharrak), bigarren argitalpenean *berba*, *berbetan*,... aurkitzen ditugu. Arlo honetan bate-

tik, **BG**-ek eta **BB**-k edo **BB**-ren bi argitalpenek elkarren artean duten aldea, eta bestetik, lan hauek Azkueren geroko obrarekin agertzen dutena ulertzeko, ez bedi ahantz azken finean **BB** eta **BG**, biak, bizkaieraz eta bizkaitarrentzat soilik idatzitako aldizkari batean argitaratu zirena.

Ines PAGOLA

# BEIN DA BETIKO<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> [Azkueren oharra] Oraintxe sei urte argitaraturiko irakurgeti txiki au asko zabaldu ez talako, bigarrenez erakutsi nai dogu orri onen artean. Lekeition iazorikotzat erakutsi genduan. Onan da guzti bere *d̄s* ta *d̄s* sarriegi ez ezartearren, orri onetan oi dogun antzera bizkaitarrez, lekeitiarrez barik, berba eragingo dautsegu Txantoni ta Maripari ta beste \*enparau edo garentzekoai, mandazaiñaren aoan beren \*berarizko berbakunea oso osorik itxita.

Irakurgeti au iatorrizko ipuin-antzeko irakaspen baten sortu zan. Gure irakurle-artean bat baiño geiago egongo dira onetariko irakaspen edo *leyen-dak* dakiezanak.

Bat edo battxu guri bere elitzakiguz txarto etorriko.

## ABBADIEKO ANTOINE IAUNARI

Buru-auste nekagarria ta garaitu-eziña izango litzakit zugan Abbadieko iakituna baiño ikusi ezik, nire gogamenak erara ta egoki adierazotea; baiña zugan Abbadieko euskalduna ta euskaldunen \*aitalena dakustanez gero<sup>2</sup>, eztaukat zeri burua ausi, zeri nekatu ta \*armindu bere ez. Euskaldunak gara biok. Euskaldunak euskaldunagaz iardu ta erausteko, buruan argi andirik euki ezarren, biotzeko garra dau naikoa. Biok dogu erri bat maite, erri ederra: zaarra dan aldetik, \*gurgarria; doaz betea ta \*zintsua<sup>3</sup> danetik, maitagarria. Izkera batek alkarturik gaukaz biok, geure Ama Euskal-erriaren izkerea izanaz ganera, laguntasunik ezaz sotil da etsaiz edo arerioz inguraturik estu dagoalako.

Euskal-erriak, bizi al izateko, biotz bakar bat dauko, egiazko euskaldun guztien biotz guztiakaz egiñiko biotza. Zer balio dau, euskaldunak batuteko, Pirineoetako mendi-erreskadeak? Zulatu beie (mendean daukelako) Españiarrak eta Frantsezak

---

<sup>2</sup> 1893a: -ez gero; 1893b: -ez kero; 1898, hau da, guretzat jatorrizkoa dena: -ezkero, inoiz edo behin -ez-kero edo-ta ez kero idazten duen arren. Honako hau dugu herskari ahostunaz agertzen den bakarra, hain zuzen ere, d'Abbadieri Eskeintza 1983a eran bakarrik idatzia izan zelako. Aldaketa huts garbia, beraz. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>3</sup> Etimologia dela-eta lehen argitalpenean *zintsu* idazten duena, bigarrenean *zintzo* idatziko du. Honako hau aldaketa hutsa dirudi. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

menditeri<sup>4</sup> latz ori; arri-ikatz-kez kedartu beiez beren erraiak, gazteluz iosi daiola arrizko azala. Zer \*iaritxiko dabe albo-erri gaztetxuok gure Ama zaarraren gorputza gau ta egun, oiñez ta burdiz, burdiñaz ta suz zaurituarren? Ezta asko gure Ama samurraren bizia il al izateko, beren bizkar-azurra (Piri-neoetako menditeria) ta gorputza zulatutea. Euskaldun onak munduan dagozan artean, Euskal-erria ezta berez \*erioko, ezta ez benetako areriok ez izen utseko adiskidek il al izango.

Euskaldun guztion anaitasuna zelanbait erakustearren, ezarri gura izan dot zure izen entzutetsua ene irakurgaitxu<sup>5</sup> onen leku agirienean. Zuk modu askotara, ezin obeto ta sarri erakutsi dauskuzu Bidasoatik onanzko euskaldunoi beste alde orretakoak dauskuen maitetasuna; nik, ortikoai emendikook dautsegunaren ezaugarritzat, gaurrate ezin ezer agertu izan dot.

Euskaldunak: nire izen da izatetxuak ezin dabena, Aitalen baten izate ta izen onak egin bei. Batu beiz gure biotzak *bein da betiko*.

<sup>4</sup> *Menditeri* 'cordillera'. Ez dator Hiztegian. Azkueren neologismoa dirudi.

<sup>5</sup> Aldaketa hutsa eta ondoko arauaren salbuespen bakarra: lehen argitalpenean *-gai* dena, bigarrenean *-gei* bihurtzen da.

Oker ez bagera, Larramendiren *irakurgai* 'leyenda' nobela adierazteko lehenengoz Obra honetan gertatzen da. Cf. Hiztegian, s.v. irakurgai, *objeto de lectura*, eta ondoren: "Algunos lo emplean en la significación de *novela*." 1918-an idazten duen *Ardi galdua* nobela ez da beraz *irakurgaia* izango, *gertiduria* baizik: "GERTIDURI, novela; liter. 'imagen de lo sucedido, suceso simulado'. Orain ogei bat urtetik idasle batzuk erabili degun itz berri *irakurgai* ezta egokia, 'leyenda, objeto de lectura' baita. Bi adiskide ta lankidek onetarako beste bi eman dizkirate: *ipuin* ta *poiel* [azken hau Broussainena] (...) Nere *gertirudi* baino pozagorik artuko nituke bai *ipuin*, bai *poiel*, naiz beste edozein; baina enaute betetzen. (...) Gure egunetan maiz irakurtzen degun itz berri *edesti*, 'historia' adierazteko egokia balitz, EDESTITZAKO(a) erabiliko nuke erderazko 'novela' tzat. (Ik. *Ardi galdua*, Bilbao, 1918, 152.-153.orr.). Bidez esan dezagun, Arriandiak ez ziola *edesti* gaitzestea barkatu, eta *gertirudi*, *irakurgai* ez bezala, "erdi-latera, erdi-euzkera, andera-burudun zaldi lakoxia" zela erantzun zion (Ik. *Euzkerea*, 1929, 184.orr.).

Zazpi alaba galant daukaz gure Ama laztanak: Frantziari dautsela iru, Españiaren mendean lau. Zazpi aizta onek, orain legez erdal-erri bik menderatu bearrean, beste euron beste erdalerrik eurentzakotu ta bere, zazpirok biotzez da egiaz izango doguz beti bat: Euskal-erria.

Bilbon, 1892-garren urtean.



# I

## TXAKOLINTEGI BATEN

Ezeukan goiz atan Maripak barriketan iarduteko gogo andirik. Noizik noizera amantalaz igozten ebazan beren begi negartsu ta gorrituak.

Otondotxu batzuk ur goritan sartu ebazanean, zokondo-ko<sup>6</sup> gizonai arpegi tximurduna erakutsiaz, “ke andia dago gizonak (esan eutsen) eta eztaukazu<sup>7</sup> beste lau egunean bere itxasoraterik. Ekaitz<sup>8</sup> gogorren bat dakar aize onek \*dandarrez.”

—Zer, bada, Maripa? erantzun eutsen Maripari itxas-gizon arek.

—Enakutsu begiak edegi eziñik?

—Astoen arrantzaak eta emakumeen negarrak badakigu, Maripa, zer balio daben.

---

<sup>6</sup> Lehen argitalpenean beti *s-z* agertzen da, bigarreanean, berriz, behin *s-z* eta beste behin *z-z*. Hau guk zuzendua da, jatorrizko argitalpenean (283.orr.) *s*-zeraman. *s* eta *z*-ren arteko nahasketaz, ikus bedi Hitzaurrea, 3.2.

<sup>7</sup> Gaur egun —baita Azkueren garaian ere— *eztaukazue* esango genuke. Ohar bedi testu honetan, garai batean bezala, pluraleko bigarren pertsona hikakoa ez den singularreko bigarrenaren bitartez gauzatzen dela. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>8</sup> Aldaketa hutsa, *ekatx* beharko luke (Ik. Hitzaurreko 10.oharra).

—Eztaukat zeuri ezer esateko. Etzara zu asko erreko, itxasoak betondo illuna agertuarren; legorrearan ondo zagoz; nok iaten emon eukiezkeru, eztautsu lo-zorroa asko arindu edo \*sumatuko mairako lain nok ekarri egon ezak. Aaaur dabil nire senar taketa bere: umezain (aurzain edo sein-iagole ez esatearren), \*dindirri-urtika ta kaleak austen. Amabietako txiliñaren durundi edo iskanbillak betiko moduan ekarriko dau a maira... ian-edanerako bere, eztirudi baiña... on egin daiola.

—\*Aulan, aaaulan Maripa. Goiz guztian ortxe euki augu, tautik ez murtik ez deusik \*eraso eziñik. Bègiak idigi ezin badaunaz bere ezein aoa itxirik euki.

—Aai, zu, politok, or zaukadaz, nori adarra io daukazu-nean pozik!

—Egin daun eure arlo edo sail ori?

—Egin da egiten diardut, antxiñako lapurren antzera. \*Sue-teko arazo onek naikoa ezpaneuz, da nekeak iasoteko daukadan baiño barru sakonagoa baneuka bere, or zaukadaz deika ta deiez, barrurik sakonenari ganez eragiteko bestean.

—Maripa, guk zeinbat edanago, i ainbat obeto.

—Zuk urdaillean ondartzta edo aretza andiren bat euki bear dozu, gizonak: edan-alak edanarren, beti zakustaz edateko amurruz.

—Ekarri eiskun, bada, urrengorako txakolin indartsuagoa.

—Zein edarik zure urdaillari atzera eragin? Ezta itxasoko baga edo uin edo olatuen gizako<sup>9</sup> txakoliña banekartsu bere.

—Maripa, amabietako txiliña dantzut.

—Bai, Erroke: egin betiko \*arrena.

—\*Aurra...

---

<sup>9</sup> Arrazoi etimologikoak direla medio, beti z-z idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

—Ondo beren moduko latiñakaz dakik, Erroke, \*arren egiten.

—Zelan irakatsi alan ikasi.

—Eure bizikoa izango intzan i sakristaukuntzan, Erroke.

—Maripa: nor dan orretarako beren bizikoa ta \*alagala-koa laster erakutsiko daunat. \*Aur berori. Kaisio Txanton.

—Kaisio Erroke.

—Txanton, erbi-txakurra izan baintz, ik euki izango eua-zan surrak!!

—Bai, Erroke, belarriak bere: baiña oiñik ez.

—Egia esan bear bada, Maripa lango emazte zintzoa, \*iasekoa, ganoraduna ta \*maratza daukan gizakume edo giza-semeak eztau \*arrapataka ibilli bear. Ezau i aizeak<sup>10</sup> beingoan eroango. Zein sutegitan egin daue<sup>10bis</sup> soiñeko \*txartes ori? Ori aldean daukaala, gure txalupeak \*tirabira egiñezkero, beruna legetxez ondoratuko intzake i. Maripa, Maaripa; \*aamen au.

—Ori or dagoana badakit nik, Erroke; erantzun eban Maripak.

—Ikusi barik?

—Ori urreratu dana iakiteko eztot nik begirik bear izaten, belarririk bere ez; surrak izaten dodaz naikoa.

—Zer bada, Maripa?

—Alperrek berarizko usaiña euki daroe<sup>11</sup>: alper-\*sundea. Orrelango Maritxu bat senartzat artu baiño oba neban \*mon-

---

<sup>10</sup> Jatorrizko argitalpenean 284.orr. elkarturik: *iaizeak*.

<sup>10bis</sup> *Dabe* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>11</sup> *Euki daroe* = *eukitzen dute*. Bizkaieraz ohitura adierazteko, *joan* eta *eroan* aditz laguntzaile modura erabil daitezke: aditz iragangaitzekin lehen-go, bigarrena, berriz, iragankorrekin.

kategi baten sartu banintz: bai oba neban. Eztaiala laungoi-koak gura izan: baiña gure Elizako San Kosetxu ederra ostuko baleuskue, neure senarra da agindu ta egiña langoxea, beronen seme ta ene seme eder au besoetan daukala, altara-ganean egoteko.

—Baiña, Maripa, senarra bizi dala alargundu nai euke?

—Bai, Erroke; pozarren. Ori an baneuko, zerua zeruan da zerua lurrean eukiko neukez. Emaztea baga elitzake au zeruan egon al izango, neu bear izango nenduke. Lurrean barriz, kalerik kale edo itxasoak austen dabillenartean, euki daroat nik emengo zero-apurra. Etxean sartuaz batera, agur nire barruko bakea: suetera badator, galerazo baiño besterik eztaki egi-ten; suetera etorri ezik, or guztion artean \*txutxuputxu barri-ketan iarduten dau. Neure erraietako semetxua berorren \*eriko \*zirimara bat izan ezpalekit! Erdu ona, amagana erdu, ene semetxu kutuna, baba-lora ederra; erdu apa apa, e!! geldi geldi, ezakit iaüsi, semetxu laztan ori. Nor dok maite, neure neure orrek? Nor? — Ma, ta — Ama, Aita? Zeinbat? — Mmmmar. — Amar baiño ez neure seme Don Diego, usakumetxu zurien orrek, beste guztiak ioan da bere, etxean egon bear izango dauan orrek? Neure Lorentzotxu, ma maitea, ma Amari... Ma eder orrek, ma. Nor da beso-artean aukan au, nor? Nor nok ni, ni? — Mmmma. — Eta an upa-kontran dagoan txapel zaardun gizona. Nor dogu?

Ama-semeak uso-antzera \*urrumadaka iarduenartean, Txan-ton upa-kontran egoan, mai-inguruko gizonai zer edo zer esateko gertu ta ernai.

Ezeutsen Txantoni barritsu-ezizena alperrik ezarri. *Lagun \*eletari, bideko zamari*, diño Lapurtarren esakune batek. Biz-kaian, *kontu-kontulari bideko zamari*, esan daroagu; ta egi utsa da. Kontulariak, edo zeatzago esatearren, kontalariak, ibiltaldi-ko lagun zamaak eroan ezarren, beren ipuin albista asmo ta

barregarritasunakaz<sup>12</sup> asko arindu edo euren astuntasuna \*erri-me aaztu eragiten dautse. Txantonek, esakune au beti gomuta izan baleu bere, barriketan iarduteko eukan baiño \*gutar geiagogo ezeban euki izango.

Lenengo aldiz txakolintegi atara ioanak, Txanton da Maripa alkarren ondoan ikusiezkeru, txakur bildurti bat katu erpe-zorrotzagaz ezkondurik egoala esango eban; baiña auzoko guztiak ondo ekien, alkarren antzik euki ezarren, alkar maite maite ebela biak. Txanton \*burugiña zan; Maripa, \*burutsua; Txanton, barritsu ta \*erausle utsa; Maripak, ixilla izan ezarren, miñari<sup>13</sup> baiño eskuai gogo obeaz eragiten eutsen; ak beren \*egimen edo egitade guztietan ziramaratxu bat irudian; onek beronenetan emakume \*ganoraduna ta oartua zana agiri eban; bildurkor bildurkorra zan Txanton; Maripak launari baiño besteri ezeutsan bildurrik erakusten; senar gonaduna zan bata; bestea, ia kaltzadun emaztea; sorgin<sup>14</sup>, lamia ta \*pamerialak zer-esan asko emoten eutsen Txantoni; Maripari ostera, baldin beren berbaak siñistu bear badoguz, orretariko umekeriak ezeutsen ardura ta \*aizola andirik emoten. Bata bestearentzat egiñak ezirudien: beroa ta otza, eguzkia ta euria, udea ta negua lurrerako direanak, zirean etxe baterako senar-emazte arek. Txanton baiño senar egokiagorik topa-orduko, edo neskazartu edo bigarreanean iaio bear izango eban Maripak; eta oni, arpegiz arpegi edo \*bekoz beko ak *Mari-droga* esanarren, bakarren *Mari-patxo*<sup>15</sup>-geurea esaten eutsan beren biotzak.

<sup>12</sup> [Azkueren oharra:] Lekeition, Ondarroan, Markiñan da inguruetan *con los* = *akin* esaten dabe: *con el hombre* = gizonagaz; *con los hombres* = gizonakin.

<sup>13</sup> Kasu hau izan ezik, lehen argitalpenean *min* dena, bigarreanean *miin* gertatzen da. Aldaketa hutsa, beraz.

<sup>14</sup> Arrazoi etimologikoak direla-eta, *sorgin* idazten du (Ik. Hitzaurrea, 3.2). Honako hau bigarren argitalpenean sortutako hutsa da, lehenengoan (10.eta 11. orr.) z-z agertzen bait da.

<sup>15</sup> *Mari-patxo* beharko luke. Ikus bedi Hitzaurrea, 3.3.

Eztaiogun baiña Txantoni beren itzik atzeratu:

—Eztagoala zorgiñik esaten dabe gero.

—Txanton, erantzun eutsan batek, bazkaldu eik orain gogo onagaz<sup>16</sup>; arratsaldean azalduko dauskuk non dagozan ire zorgiñok. Agur, Maripa, berandu dogu ta kontua illun-tzean edo...

—Bai, zoaz ondo, esan eban Maripak, ez orren ardura izan.

—\*Bezeroak urtendakoan, “mutilla az i Txanton”, esan eutsan emazteak; amar da erdietan urten da, besterik ezarren, umeari salda-tantatxu bi emoteko, oraiñarte agertu ez.

—Auxe dago geurean: arin natorrenean, umeak eguzki geiago artu bear leukeala, berandutxuago elduezkero, saldatan... ta... txuak. Urrengoan ioan ez da kitu.

—Nok esaten dausk ioateko?

—Gagozan isillik.

—Nogaz batu az eu?

—Mandazaiñagaz da...

—Banaiekian. Orrelangoakaz gauza ona? Bat edo bati buru-auste andiak emongo dautsaz orrek, koko orrek oraindiño. Ai, aingeru batek beren errira baleroa!

—Itzat, Maripa, eu bakarrik az ona, eu bakarrik langillea, eu bakarrik biotz-berea; eta ori uste izatea... neuk badakit.

—Itzat, ostera, guztiak dozak ezin obeak, guztiak zintzoak, guztiak<sup>17</sup> biotz-beraak<sup>18</sup>, eta au uste izatea zer dan

---

<sup>16</sup> 1893b, 13.orr.: *onagaz*; baina 1893a, 12.orr.: *onaz*. Honelakoetan, gehienetan bederen, 1893a bertsioari jarraitzen dio. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>17</sup> Jatorrizko argitalpenean (291.orr.) *guztiok* dator, lehen argitalpenean (12.orr.), ordea, *guztiak*.

<sup>18</sup> Jatorrizko argitalpenean (291.orr.) huts garbia den *biotz-bereak* dator, lehen argitalpenean (12.orr.) berriz, *biotz-beraak*.

edonok daki. Ezai beste bein orregaz batu, buru-arin ori. Ezetedago Lekeition Txantonentzako lagun \*erazkorik edo \*aiuturik<sup>19</sup>? Zori onean aurkitu daizala ire Aita ta enea, arek itzoazan gizonak, arek!!

—Eta mandazaiña ta erbestekoa dala ta txakur amurratua-gandik legez alde egin, igesi ioan, lepoa erakutsi, begiratu bere ez egin gura?

—Ai Txanton, Txanton barritsu! I ta ni aren antzekoak izan-orduko, \*amaika amaika ta erdiko agertuko iakuz uri onetan!!

—Onezkero salda ona eukiko dogu, e?

—Guk? Perrandes mandazaiñak uste neban. Lenengo erdiratu eik \*txisillua, ta laburtxua da baiña aur dagoan \*zamauez edo mai-zapiaz estaldu eik: zatitu gero arto bero ori, lekuratu<sup>20</sup> aulkiak eta ez lo egon. Tira, tira; igitu gorputz ori.

—Geiago?

—Arrena.

—“Guztion begiak Zeuri begira dagoz, Iauna, eta zeuk \*adiunez danontzako iakia emoten dozu: Zure eskua edegiaz, bizidun guztiok onegiñez aseten gozuz...”

Arren labur onen \*urren sei *Aita gurea* ta *Agur Maria* gitxienez esan eroazan Txantonek, atzenez *Salve* bat.

Beti langoxe bazkaria ta sekułako gogoia euki ebezan egun atan bere Txantonek eta Maripak: katillukada bi salda aurretik, \*eteria oneko aza-lapikoa, urdai ta okela gazituaz gozatua; arto-\*erregutadaak ugari edo iori, unean unean txa-

---

<sup>19</sup> Hutsa ote? Ez dugu beste kasurik aurkitu. Cf. lehen argitalpeneko (12 eta 13.orr.) *adiuturik*.

<sup>20</sup> Jatorrizko argitalpenak (291.orr.) *leburatu* dakar, lehen argitalpenak berriz (148.orr.), zuzen, *lekuratu*.

koliña, sagar eder bi atzetik, umearentzat euki eroen salda garbia nora eztala.

Txantonek, Maritxukeriak ez aztutearren, txakolin-\*tinditxu bat eroan eban umearen ezpanetara; Maripak, Txanton atan ikusi ebaneko, “\*Uuut, esan eutsan, umea bere eu lango zurrut-zalea izatea nai aldok?”

Txanton barriz, emaztearen \*errespearì iaramonik egin бага ta atsakabe andiren batek io bear izan baleu legez, katillua mai-ganean laga, umeari eskutik oratu ta \*zirkiñik egiten ezebala, katillura begira gelditu zan luzaro; umeari, arnasa artuteko bere bildurrez, Aitari begira egoanartean, aoa zabaldu ta begiak bustiten asi iakozan; etxeko andra maratzak ezekian zer-esan, senarra ta semea eskuz egiñak langoak ikus-tean; eta katuak zer erabillen iñor konturatu-orduko, “Maripa, esan eban Txantonek, esku zabalaz belaunburuko txapel zaarra astinduaz, Maripa; gure Lorentzo izen andiko gizona izango dogula uste dot.

—Eta au esateko orrenbeste \*parizta? Zeiñek etedauko gatz geiago: bazkaritako aza buru-bageak, ala nire senar buru-arin onek? A Txanton, Txanton barritsu! Ez asko txarrago umearen \*txintxirriña paparretik dingilizka baeuko. Au gizon-du baiño lenago, geu umetuko<sup>21</sup> gozak, geu; eta olan bere, gizon eginda banekus!

Seaskan edo kuman ipiñi eik geure laztan ori, ta bestetan baiño obeto erabilli gero, neuk, katillu \*erratillu ta tresna-enparauak garbituten diardudanartean, lo eragingo dautsat-eta.”

Esan da egin: Txantonek umea seaskan ipiñi ebaneko, beren emazteak eztarri-ots zoli zoliaz bertso edo \*neurtitz onetxek entzun eragin eutsezan auzokoai:

---

<sup>21</sup> Lehen argitalpeneko *Fé de erratas* delakoa kontutan ez artzeagatik, jatorrizko argitalpenak (291.orr.) ere *umetako* dakar.



1

Basa-txoritxu mustur<sup>21bis</sup> luzeak  
Ez igan zerura billa,  
Aingerutxurik bear ezkeru  
Orra or nire mutilla.

2

Bere musua edurra da ta  
Sua biotza ta ezpanak  
Berton urturik biziko dira  
Nire bularra ta zanak<sup>22</sup>.

3

Ai! nok leukezan urrezko orratza  
Urre-miesa ta aria,  
Urrez asi eta amaituteko  
Ume onentzat iantzia.

4

Larrosatxuak bost orri daukaz  
Kabeliñeak amabi,  
Gure umea gura dabenak  
Eskatu beren Amari.

5

Neure leioko inzirrituak  
Illun-abarran begiak,  
Ene umea lo datzanarte  
Lo egin bei eguzkiak.

---

<sup>21bis</sup> *Muztur* jatorrizko argitalpenean; 1983-ekoan berriz, -s-z idatzi zuen. Hemen izan ezik, bestalde, beti -s-z ageri da.

<sup>22</sup> Jatorrizko argitalpenean (291.orr.) *san* dator. Aldaketa hutsa, beste guztietan, lehen argitalpeneko *san* hori, bigarrenean *zan* bihurtzen bait da.

6

Argi goiztarra betor gurera  
Betoiz izartxu gautarrak,  
Ezpeiz lotsatu or ikusiak  
Buruak illun da zaarrak.

7

Begi bik ikuskizun bat dauke,  
Belarri biak zentzun bat,  
Usain bakarra sur-zulo biak  
Zeru-lurak bat laubetzat.

8

Batu beiz orain beti betiko  
Nire biotza ta irea,  
Seme maitea, maite izan daigun  
Ire ta nire Egillea.

9

Basa<sup>23</sup>-txoritxu mustur-luzeak  
Ez igan zerura billa  
Aingeurutzurik bear ezkeru  
Orra or nire mutilla.

Umea loak artu ebanean “atzo baiño goiztxuago etorri gaur, esan eutsan Txantoni emazteak.

—Baiña nik illuntzean Elizara ioan bear.

—Beti eu? Neuk bere orretarakoxe etxean euki nai aut.”

—Txanton, iagi ta isil isillik, umea ez iratzartu edo esnatutearren kaleratu zanean “bai, esan eban Maripak: egia diño; gure Lorentzotxu izen andiko gizona izango dogu.”

---

<sup>23</sup> Jatorrizko argitalpenak (291.orr.) *baso-txoritxu* dakar, lehen argitalpenak (20.eta 21.orr.) berriz, *basa-txoritxu*. Cf. orrialde honetan bertan, gorago: *basa-txoritxu*.

24 *Aotsa*

Ai nok leu - ke - zan u - rrezko o - rra - tza u - rre-

25 *Laguntasuna*

mi - e - sa ta a - ri - a u - rrez a si eta amaitu - te - ko u - me onentzat iantzi-

a e - ne le - io - ko inzi - rrituak i - llun a barran be - gi - ak neure

seintxu - ak lo e - gi - harte lo e - ginbei e - guz - ki - ak

<sup>24</sup> *Aots* 'melodía', Azkueren neologismoa, Larramendik sortutako *abots* 'boza'-ri zor diona begi bistan badago ere. Esangura honekin ez dator Hiztegian.

<sup>25</sup> *Laguntasun* 'acompañamiento (en música)'. Azkueren neologismoa dirudi. Ez dator Hiztegian.

## II

### KAI-GANEAN EGOTALDITXU BAT

Txanton kaleratu baiño lentxuago beren adiskideak kai ganean batera ta bestera ebilzan, aizeak puzturiko orbelen antzera; geienak kaltzerpean eukezan eskuak, batek bakarrik erabilzan aidean. Urrunetik ezautu ebazan Txantonek; eta egia esateko, eukazan baizen begi zuur da ziurrak euki ezarren, ezaban asko urreratu bear, izketan da \*eskuketan ziar-duan mandazaiña ezaututeko.

Uda ta negu soiñeko bardiñak erabilten ebazan onek: zapi gorrizka bat buruan, txapel-orde; oraldi-antzeko kaltza laburrak; iakerik ez (iantzirik beintzat), garriko luze ta zabala, abarkatxu edegiak, kaltzerdi urdin bizardunak eta berarizko txartes nasai bat. Beren kokot gorri mamintsuari ta berna biribil guriari begiratuera "amaika okelatato \*iruntzi dauz orrek!" esan eroen \*Arranegiko atsoak. Ezekian isilik berba egiten, zuzen ibilten bere ez.

Txanton urreratu iakenean, barre-santzoka edo algaraka eukazan mandazaiñak beren entzule guztiak. Txantonek beren lepotik ziarduela uste izango eban, Txili eritxon gizon sendo bat zerbait esatera aurreratu ezpaltzakio.

—“Eztakik<sup>26</sup> Txanton, zer iazo iakon mandazaiñari Matxelgaz.

—Zer?

—Beronek esango dau nik baiño politoago.

—Bai, ni esango da *gusto* askogaz<sup>27</sup>. Txanton, badakik nor da Matxel?

—Bai bat, Basaldeko dendaria.

—Ori Matxel da *tonto* bat. Ni ekarri *aceite* edo orio berari, ta paper bat bere nire erriko. Ni sartu goiz au dendan, ta esan Marcelino etxean badago; bera ezetz, ni baietz. Non dago? ni esan; bera zer ezdaki niri esan; ni esan gero bera bai egin dau *pedido* bat orio, sei il eginda, beste mandazaiñari; bera baietz *pedidoa* egin dau; ta ni esan berari “emen papera, eu Marcelino.” Bera “ni ez Marcelino, ni Matxel.” Nor da, ni orduan esan, nor da Marcelino de Foruria? Bera orduan “tximista bi, neu alnok.”

Txanton, barre? neu ez barre. Zer eritxi<sup>28</sup> iri? Ez barretu, neu ezda nai izan *burla* egitea, *Arraioa!* Matxel bai, Marcelino ez. Zer da Matxel?

—Matxel Marcelino da, ta Marcelino Matxel; Txanton Antonio da, ta Antonio Txanton: ni, Antonio ta Txanton; a, Marcelino ta Matxel.

—Eta Matxel ta Txanton, Txanton ta Matxel *recentella* bi. Nire mandoak izen bat euki Riojan ta emen ta leku guztian: bat Platera, beste bat Tordillo, beste bat Carbonero. Zertara-

---

<sup>26</sup> Originalak (301.orr.) *eztakik* dakar. Lehen argitalpenak (24.eta 25.orr.) berriz, *eztakik*.

<sup>27</sup> [Azkueren oharra:] Irakurgeti onetan euskerazko esakeraak ikasi gura dauzanek ezpeiz aintzat artu mandazaiñaren esakeraak.

<sup>28</sup> Jatorrizko argitalpenak (301.orr.) *iritxi* dakar. Hutsa dirudi, batetik, hemen izan ezik beste guztietan *eritxi* idazten duelako; bestetik, lehen argitalpenean (24.eta 25.orr.) bere lekuan *eritxi* agertzen delako.

ko<sup>29</sup> izen bi? Ni bere bai Fernandez mandazaiña emen ta Fernandez nire errian.

—Perrandes?

—Zer nai i, Txili?

—Guk egunen baten Txantoni emakume-iantzi eragingo dautsagu.

—I dok ondo esan, Txili. Neure kortako manta zarra manta orrentzat ebagi. Txanton, noiz izango da?

—Niri soiñeko ori baiño obeto etorriko litzakioe beste askori artz-narrua.

—Ondo esan i bere bai, Txanton. Zelan esan euskaran *carnavalak*?

—Emen aratustek deritxe, \**Probintzia*-aldean iñoteriak edo iñauteriak, Naparroan iagoteak.

—Ondo, ondo. Ni *carnavaletan* edo ara... tus... zelan?

—Aratustectan.

—Ni *húngaro*-iantzi, Txanton emakume-iantzi, Txili artz-iantzi. Txanton dirua *recojido*, Txiliri kataia bat lotu neure mandokoa, neu makilla bat *pandero* bat eta Txili erabilli. Txili nai i?

—Ni, Txanton emakume-iantziakaz, arpegi agiriaz da kale-rik kale ikustearren, artz ezeze deabru bere iantziko nintzake: noiznai, zeinbat lenago pozago.

—Roke, i bere bai etorri gugaz.

—Batuko dan diruaz Txiliren alabeari zerbait erostekoan, bai.

—Txiliren alabea ez beartu ezer. Ezda alan Txili?

—Onek barriketarako gogoia dauke, Perrandes.

---

<sup>29</sup> Berez, *zetarako* beharko luke. Itxuraz aldaketa hutsa da, 1893b bertsioan (25.orr.) huts bera egiten bait da. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

—Ni emakume iantzi ta ikusi gura nabela esateko, zer egin etedot? Len bere aitatu dot baiña...

—Txita-kume ori, ezago beti emakumeen gizan, zorgiña ortik, lamiak andik, \*patoak eta pamerialak emendik?

—Egi guztiak eztira, Txili, belarri guztietarako iaioak; edo belarri askok, andiak izanarren... Badakit neuk nora noan.

—Barriketa gitxi, Txanton, da eurak onak.

—Ona bada, Txili: Zorgiñik eztagola diñoanak...

—Non iagozak bada zorgiñok? *Kalbarioko* mendian? Kaian? \*Nasa onetan? Non?

—Arek leku askotan, gitxien uste dan tokian. Batek bada-ki ementxe geure artean etedabilzan!

—Gure artean, nor? Eu zorgiña ezpaaz, tximista ori, etxagok emen beste zorgin-antzdunik.

—Neuk ikusi ezpaneuz... tira; baiña...

—Tximista gorria: betorkiguz mundu onetako ta besteko zorgin guztiak, iarri ai gero eurokaz eu edozein txalupatako alderdi batean, neu bestean iarriko nok; eta emendixek bat batera asi ta \**kalaraiño* \*abantean garaituko banenduzu<sup>30</sup>, naroea eurakaz betiko.

—Ezeik orrelango astakeririk esan, Txili.

—Astakeria neuk? Eta nok esan bear... da Txantonek? Tximista kaltza-estua: esku-artearen baeunkat, txotxolo ori..."

Autuak \*azatz okerra eroala ikusi ebenean, mandazaiña ta lagunak, Txiliren da Txantonen erdian arteturik, Txiliren sumiña zelan edo alan amata edo itzali al izan eben. Txilik atzenez beren barrua \*azazkatearren, edu onetan berba egin eutsan Errokeri: "ez asarratu, dirauste, ez asarratu. Nor, tximista orren atsokeriak entzueran, asarratu ez? Baiña nogaz

<sup>30</sup> Uler bedi *banenduzue*,... Ik. 7. oharra.

diardut buru bagako onek? Oilloen ekiñak oillotu enaien, nagoan geldi geldi.”

Au esanaz batera, txapela barrurago sartu ta eskuak kalzterperatuaz besteakandik alderatuten ioan; Txili; etzan baiña asko alderatu, lepo makurtua \*lerdendu ta albokera begiratuaz Txantoni \*oles au egin eutsanean: “Txanton: esan eik nai dauan guztia, barritsu orrek; baiakiat txor txor txor iarduteko gogoz agoana-ta. Ire burutasunak baiño naiago naieukek itxaso bare bagaieukak.

—Nora Txili?, esan eutsan mandazaiñak beraganatuteko usteaz; ez ioan orra, neu bere ezda ikusi zorgiñak; egon emen.

—Ez ni ez; ni kanpo-aldera begira egongo naz, orrek diarduanartean.”

Ikusgarria izaten da beti itxasoa, atan edo batez bere ekatxaren arnaseak bizkortuten dabenean: atxakaz da kai-arriakaz topeka ta gora-goraka dabillela ikusirik, \*eizari batek katamotz ta leoien burrukea gogoratuko leuke; baserritar gitxi irakurria elitzake beren buruaren iaube izango; gudari edo \*marratiak, itxasoa goratutea lurraren txikitasuna neurtutearren dalakoan egongo litzakez; elizgizonak barriz Eliza amak gizon dongeakandik egunaro artuten dauzan \*zemai ta naibageak irudi izango leukez. Txili buru-gorrrak ura baiño ezekusan, ur asko: gorantzean urdiña, atxak iotakoan, zurizkea, berantzean bits utsa; baiña guztia ura. Beste edozein, \*Talapean ianaribilla ebilzan itxas-txoriak ikusian, ume bat pitxiai begira legetex geldituko zan, edo katua saguen zain, da \*mirua \*txindor papar-gorriaren<sup>31</sup> zelatean egoten direan antzera: eztitan da adurra eriola. Nok, baiña, Txiliren \*mosuetan adurra ikusi, lotaldian edo iatorduan izan ezik?

---

<sup>31</sup> Jatorrizko argitalpenean (302.orr.) *gorriaren* dator. Bigarren argitalpenak sortutako huts garbia.



Etzan baiña Txili beren lanean aspertu, lana bada besoak bata bestaz laztandu ta nasa-ganean begira egotea; ezta Perrandes edo Fernandez mandazaiña ta lagunak bere etzirean Txantoni entzuten aspertu. Txanton-gaitik eztago esan-bearrik: kon-tuak nori iakin eragin eukiezkeru, ezaban ak beren semea bere gomuta izaten.

“Txilik oraindiño siñistuko dau, esan eban Txantonek mandazaiña eurakanatu iakenean; bai, siñistuko dau oraindiño Txilik. Neuk ikusi ezpaneuz, baiña neuk neure begi onetxekaz (guzurra badiñot, lurrak iruntzi naiala) neuk ikusi dodaz, da siñustu ez?

—Non ikusi, Txanton?, esan eutsan mandazaiñak.

—Geldi geldu esango dot. Guztiok dakizu<sup>32</sup> erri-erdia orain-txe lau illebete erre iakuna, *Talatik* asi ta ia geure etxeraño.

—Badakigu.

—Niri esan dau *patrona* gaur, esan eban mandazaiñak.

—Zelan erre zan? itandu eban begi bizkor bizkorrakaz Txantonek.

—Ori da *pregunta*. Nire kortako *techo*..., zelan esan?

—Sabaia.

—Nire kortako... ori iausi. Zelan iausi? Ni Riojara ioan ta lapurrak urten ta il. Zelan il? “Au esan da garrikopetik gaiñi-beta ikaragarri bat argitaratuaz, atzazalak moztuten abia zan mandazaiña.

Txantonek barriz ikaratu ezpaltiz langoxe arpegia erakutsi ta pipa-atsik ez artutearren Errogegandik alderatuaz “aurixe dago bada, esan eban, su baga ezta ezer erreten, baiña zelan puztu zan sua, ain<sup>33</sup> arin da bizkor da arras Lekeitio-erdia austu al izateko? Itxasoan ezegoan aize-pützik.

---

<sup>32</sup> Jatorrizko argitalpenak (302.orr.) *dakiz* dakar, ez dago hutsik berriz lehen argitalpenean.

<sup>33</sup> Lehen argitalpenetik (34.eta 35.orr.) hartu dugu, itxuraz ahaztuta, jatorrizko argitalpenean (312.orr.) ezarri ez den *ain* hori.

—Etxe zaarrak, adiskidea, suari deika dagozan zur \*gardamuak edo \*zerenak ianikoak, pipa onetakoxe suaz, bat bi iru lau... eun esan-orduko, neuk erreko neukez.

—Ez, Erroke. Ik eztakik zelan gerta zan, orduan gertarikoa.

—Euk baaldakik?

—Astia artu daigun, erantzun eutsan Txantonek Errokeri. Torreko txiliñak sua nonbait egoala \*iragarri euskuneko, gure Maripa umea neure besoetan itxi ta \*txioa baiño ariñago kale-barrenera ioan zan. Ni, badakik Erroke, ikusguratsua nok, eta emazteak etxetik ez urteteko aginduarren, \*zirrin zarran abarka zaarrak ondo lotu бага, kalera atera naieuan neure burua ta ene Lorentzotxuna<sup>34</sup>. Nik ikusi nebazan ikustekoak! Aitatuaz bakarrik dart dart daukadaz neure erraiak.

—Esan eik esango badok, txotxolo orrek.

—Bai Erroke: orbelak legetxez etozan teillatuak beera; beren moduko aize batek, nik bein ez bein ezautu eztodan modukoak, putz egiten eutsan suari; auspo andiren batzuk zerutik dingilizka egozala uste neban. Alango baten, zer ikusi neban nik!! Tximista gorria!! Jesus, zer dot esan dodana!! Zorgin-aldra luze luze luze bat, santzoka uluka irrintzaka miauka intzirika orroika, baiña beti barreka ta alkarri eskuak emon-da putz da putz da putz ikusi nebazan.

—*Re... contra*, Txanton, ze ederra aureskua!

—\*Begitasuna, besterik ez, Perrandes; Txantonen begitasuna.

—Begitasuna? Ez Erroke, erantzun eutsan Txantonek.

—Bai gizona: txakur goseak, ogia ames; gizon bildurti ta siniskorregiak barriz zorgiñak. Antxe, abeganeetan ibilli nin-tzoan neu, ta Maripa bere beeko alde baten ikusi naieuan. Ak

---

<sup>34</sup> Aldaketa hutsa izan daiteke *Lorentzotxurena* beharko luke-eta. Ik. Hitzaurrea, 3.3. Honelako beste bizpahiru kasu agertzen diren arren, ez ditugu aurrerantzean markatuko.

balio iok, ak; ez ik, oillanda orrek! Eta ez berak, ez nik, ez iñok ezkaieuan zorgiñik ikusi, ez putzik belarriratu, ez sanztorik ulurik irrintzarik ez orretariko zorginkeriarik entzun. Begitasuna, Txanton, begitasuna.

—Ezetz, Erroke, ezetz. Begi onetxekaz, lurak iateko dagozan begiokaz, ikusi nebazan; guzurra badiñot, eneuke nagoan lekutik \*ziririk egin bear. Nik artu neban ikarea! Maripak \*saiñaz da ozpiñaz gau atan gorputz guztia igortzi ezpaleust, agur ni. Ez barrerik egin, egia da-ta.

—Txanton: i ez balio ioateko nigaz Riojara.

—Nora? itandu eutsan Errokek mandazaiñari. Gabaz baka-  
rrik ibilli bear baleu, taketa legetxex gogorturik topako gendu-  
ke au. Eztago leku txarrean gauzea. Nora? ta Erriojara, nor?  
da Txanton, bai zera!! Ik, Perrandes, barreka diarduk, baiña  
eztakik oraindiño Txanton nor dan.

—Txanton da gizon bat makala, baiña ona laguna.

—Ez illunetan ibilteko. Maripari bein baiño sariago entzun  
dautsat: goizaldean itxasorako ots egiten dautsenean, Maripak  
berak \*atariraiño ta sarri kalebarreneraiño lagun egingo ezpa-  
leuskio, Txantonek beren \*tretzak laster etengo leukez, ezkeu-  
ke aurrerantzean onen laguntasunik eukiko. Barre, Txanton,  
barre? Alkarregaz gabilz au ta ni txalupa baten, neure atze  
atzean dauko beronen \*arrauna edo erramua. Onelango oillo-  
rik!! Ikustekoa izaten da au legorretik urteeran: eguzkia agertu-  
aurretik, nik aste guztian baiño arren geiago egiten dautse  
onek zeruko guztiai.

—Euk ezaldok itxasora-aldietan arrenik egiten?

—Bai Txanton, itxasoraterik eztagoanean bere.

—I bere bai, Roke?

—Zegaitik ez, Perrandes? Kaitik urtenaz batera popakoak  
\*Done Nikolasi ta Antiguako Andra Mariari arren egiten  
dautse; beste guztiok, txapelak edo txanoak edo \*suestak eskue-

tan daukaguzala, erantzuten dogu; eguzkiak beren arpegia erakusten dabenean, *Salve* bana danok: ekandu onek geure asabakandik iatorkuz.

—I bere bai, Roke, zorgiñak ikaratu?

—Nik zorgiñik dagoan edo eztagoan eztiñot. Leberiniñen amama zorgintzat dauke guztiak: nik eztakit. Baiña nik bildur ez izatearren eztot arren egiten: aur dago bada untzea.

—I zegaitik *rezoak* egin?

—Aamen au. Bildur izan ezarren, arrenik egin ez? \*Mendebal gogorraren putzak *Kala*-aldean estu ta larri garabilzanean, arren zeruari, ta ordurarte mandoari *arre*? Ori ezta gure lege zaarra.

—Txili egiten da?

—Txili beren egikizunak legorrean euki daroe. Baiña egin ez? Euskal-errian eztago, Perrandes, besteriko arraiñik.”

Mandazaiña, onetariko autua gizonen aotik entzunak asko arritu eban; eta Erroken albistaak gora-bera, Txili sendoa ain \*laiñekoa izateari arrigarriagoa eritxon. Onetarako Txanton biraldu nai izan eban Txiliren eske edo billa; ta Txantonen nagitasuna edo \*atzerakuntzea ezautu ebanean, Errokeri esan eutsan Txiliri dei egin eiola. Au agertu ekionean<sup>35</sup>, “Txili, itandu eban, i bere bai euki bildurra zorgiñai?

—Esan daust Errokek, eta badakit zer esan gura dauan. Ni gaurrate enaz iñoren bildur izan, izango bere ez. Eta au *dala ta eztala*, zerua aztu gizonak? Iaungoikoaren gomuta eztan gizona, Txanton bera baiño bere *ortik emendikoagoa* da: Txanton, oilloa; orretariko gizona, \*ganbelua.

—I ta Txanton altarara, *santoak* biak.

—Nortzuk? Txanton da ni? Baiagok oberik. Txanton iñora eroaterazkero, eskintokira eroango genduke, Perrandes.

<sup>35</sup> *Iakonean* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

—Zer da ori?

—Eskintokia oillo-lekua da.

—Bai, gizona, i esan beti ondo.

—Ni barriz edo nire gorputza, legorrean illezkero, lurpera eroango dabe; bestela...

—Txili, ori beranduago; ez esan ori orain. *Carnavaletan* edo orretan egun Txanton emakume iantzi, Txili artz iantzi, ta ni *Húngaro* iantzi; ta gero ni apari andi bat emon guztiari.

—Ezteguko aparta baiño gozoagorik, \*onuratsuagorik, eztiagorik eztago, Perrandes.

—I barriz beti ago, Erroke, adarra io nairik.

—Bai, Txili; adarra Roke euki, idi iantzi au.”

Beste \*arkuntza<sup>36</sup> edo era edo muga baten arratsalde atan egin eben beste barre egin balebe Errokek eta lagunak Perrandesen esakerakaz, ezeutsezan onek orduan legez ontzat artuko. Berarizko garatzen bat erabillen esku-artean mandazaiñak: Txiligandik aldendu gura ez, Txili nondik pozarren eukiko, Txili gora, Txili beera ta beti Txili. Ardao barria edan eragiteko atxakia edo \*estakuruaz, alkarregaz ioan zirean bata ta bestea, mandazaiña egoan ostatura.

Ezekian Txantonek euren artu-emonen barririk, eta iakin-guratsua zana ez ukatutearren, Errokeri ta Leberin zaarri itandu eutsen zegaitik eteebilzan arek orratza ta aria, edo argia<sup>37</sup> ta gerizea legez. Edozein albistak, entzun-barrian, arritu ta \*konkortuten eban Txanton, da etzan asko Leberinēn berbaak entzuten aoa zabalik gelditutea.

---

<sup>36</sup> Ez dugu zuzenketarik egin, lehen argitalpenean (42.eta 43.orr.) eta horregatik bigarrenean (319.orr.) ere espero beharko genukeen *arkuntsa*-ren lekuan *arkuntza* bait dator. Ik. Hitzaurrea, 3.2

<sup>37</sup> Jatorrizko argitalpenak (319.orr.) *argio* dakar, lehen argitalpenak (42. eta 43.orr.) berriz, *argia*.

- “Txilik \*txokoa egingo dau, Erroke; esan eban Leberifiek.  
—Bai zera!  
—Ez zera! ez titan da adurretan dabil beragaz beifiek bein.  
—Nire alabea balitz, iakingo neuke zer egin.  
—Aberatsa dala diño bada.  
—Urreneko intxaurrek beti ots andia. Balitz bere, zer?  
—Emendixek urte betera gaur baizen adiskide izan daitezala.

### III

#### MARIPA TA KATALIN

“—Berandutxu etegoazan nago, Katalin.

—Ez, Maripa: txiliñak badiardue, ta isilduarte ezta Elizkizuna asiko.

—Gure Txanton lango gizonik! Ordurik ezin izenta lekio. Esan neutsan orduan etorri balitz, onezkero Elizan gengoan. Nire agindu guztiai baietz erantzuten dautse aoz, egimenez ezetz. Katalin: ire senargei dontsu ori nire senarra baiño \*esangiñagoa izan dailla.

—Perrandes, errian edozer esanarren, iaseko mutilla da.

—Zer diñon, Katalin? Iasekoa ori? Ta ganera mutilla? Iasa zer dan bere eztaki orrek; mutilla dana badantzugu. Batek badaki ezkondata dagoan ala ez!! Urruneko arraiñagaz kon-tuan ibilli, Katalin.

—Ik beti orrelangoxe \*detua ta \*ekiña.

—Gaztetasuna zoroa da: gero egunen baten alperrik negar egiteak eztau balio izango. Txantongaitik nik edozer esan daroat; baiña erbesteko gizon guztiakaz bat egin al balitz bere, naiago izango neuke ene senarra.

—Erbestean ezin egon leike gizon onik?

—Gitxitan ikusi dot neuk berori Elizan, da orduan bere... izan leike, baiña... nire surrak gero... Ona Katalin: ezaut alabea, alaba bat legetxez nik i maite izanarren. Iaunak nai izan da nire erraietan sorturikoa baendut...

—Bada ni, edo orretxegaz edo beste bat ez bategaz enaz ezkonduko.

—Eztagoz berton mutil \*morrosko eder on \*bana-banakoak? Kose Kulian bat aor eztago, gitxi gitxi langoxea? Leberin bat? Peillo gorraren seme biak, eta beste amaika? Gazteria ederra eztoгу beti Ondarroan ezautu? Eta itxas-gizonik senartzat artu nai izan ezik, nora iges egin dabe Izpasterko mutilko arpegi-ederrak?

—Baiña orrek...

—Zer orrek, orrek zer? Ondasun billa abil Katalin? Orretara-  
-ezkero ez beste baten zain egon: geure auzoan bizi da Ameriketarik oraintsu erriraturiko mutil zaar bat, orrazi zaarren aginduna. Iñoiz ondasunik pillotu bada, baeidauko orrek urre gorria ta urre zuria baiño eztana.

—Orregaz ezkondu? Gizonak salduaz da lapurretan aberasturiko aker zaar, koipedun, arlote orregaz? Neu? Satz sortuko al-iakoz berorren urre-pillook!

—Ori larregi esatea da. Ziur iakinarte, etxako<sup>38</sup> gizoni orrelango iraiñik ezarri bear; ziur iakin da bere, kontuz kontuz, ezin bestez da miiña labanegitu barik.

—Perrandes ezta orren erikoa, izango bere ez. Esatea bere! Perrandes lango mutillak eztira orma-bedarra legez nungura ta lekuan lekuan ikusten.

—Ez e? Erruki aut, Katalin: erbien begiak dirudie ireak; edegirik dagoz, baiña lo; eta (auxe dogu damugarriena) iratzar-

---

<sup>38</sup> Jatorrizko argitalpenak (342.orr.) *etxago* dakar, *etxako*, berriz, lehen argitalpenak (47.orr.).



tueran negar egingo dabe. Gure auzoko dirudun ori, zelan alangoa ta bada-ezpadakotxua ta ortik emendikoa ta \*guztia bearrekoa dala batzuk esanarren, euskaldun garbia ta euskaldun garbien semea dozu; onez ganera kristiñaua, Eliza one-tantxe bateaturikoa.

—Eta zer?

—Ondasun-billa abiatara-ezkero, ez kanpora ioan, aaor berton senargei ona. Iaunaren legeko bizi-lagun on bat gura badon barriz, ez katalin erdal-erriko mandazaiñi begiratu.

—Batek esan bear leuke gauzea! Nora begira egon intzan eu, Maripa, Txantonen gura izateko?

—Neure Txanton?

—Begiak itxi ta bere naiago dot...

—Bai, Katalin; begiak arras zarraturik artuteko ohea don ori, kirten ori. Ezakit, baiña, asarratu, ez \*sumindu, ez goragoraka ta \*purrustadaka asi. Perrandes<sup>39</sup> eztakigu ez aberatsa danik, ez mutilla danik, ez ain gitxi kristiñau ona danik; kristiñau zintsua<sup>40</sup> ta mutil ondo eukia balitz, elitzake ori ire atzean ibilliko. Ezaldago beren iaio-terrian neskatilla on-zalerik?

—Perrandes nor dan ondo dakit nik.

—Nok esan-da? Perrandese-berak esan-da, e? Aaai, Katalin, ene alabea!! Damu izango euke eure bizi guztian.

—Elitzake nire damu ori iñoren lepora iausiko. Emakume onen \*eramena ta ekiña!

—\*Eutsi, Katalin, ur bedeinkatua. Gogoz arren egin gero, gogoz.”

Txantonen emaztea ta Txiliren alabea Elizaratu zireanean, mutil \*koipeztotxu batek Antiguako altaran argiak isio-

---

<sup>39</sup> Lehen argitalpenetik (ik. 47.eta 48.orr.) jasotako *Perrandez* dakar jatorrizko argitalpenak ere (ik. 342.orr.).

<sup>40</sup> Aldaketa hutsa. Ik. 3. oharra.

ten iarduan. Altara-ganean kandela bi baiño ezebazan ipiñi, alderdi banatan bat; argi irukotx bi isio ta iza ebazan gero zokondoko txikotakaz, atzenez erdiko estalki zurizkatxua amarra edo txikot intziriti batek goratu ebaneko, Elizako gizon da andrazko guztiak buru makur makurraz da bat batera agur egin eutsen Antiguako Andra Mariari.

Gizonen gorputza aztertu ta ezautu daroagun antzera, erri bat, aztertu ta ezautu gura izan-ezkeru, kaleak zantzat euki bear izango gendukez, etxeak azurtzat, odoltzat erritarrak eurak, besotzat bideak, burutzat \*auzi-etxea edo uriko-etxea: Elizea izaten da errien biotza.

Gizona zelangoa dan iakiteko, eztoгу burutik beatzetara neurtuten, gizon andiak sarri asto andiak izan doazalako<sup>41</sup>. Erriak ezaututeko bere, kaleetako txikota ezta neurrik onena izaten.

Lekeitioko uria ondoen da zeatzen illuntzetan ezautu eikean: Elizaturik. A da Elizea! An Ama Mariak biotzeratuten daben atsegiña da atsegiña!

Gure kondairatxu<sup>42</sup> au baiño askozaz oraintsuago, zapatari barregarri bat bizi izan zan Lekeition bertan. Eriotzako ordua eldu zanean, abade txikitxu batek, gau ta egun beragandik aldendu edo alderatu baga, ondo ilten lagundu eutsan. Beste gauza on askoren artean "Urlia, esan eutsan zapatari erdi-illari, poztu ai. Nok leuken ire zori ona! Gure Eliza ederra laster \*barriraztuko dauskue, ta ik zerutik polito polito ikusi al izango dok.

---

<sup>41</sup> *Izan doazalako = izaten direlako.* Ik. 11. oharra.

<sup>42</sup> Larramendiren neologismorik zabalduenëtako bat. Arana Goirik berak erabili zuen erderazko *contar*-ekin zer ikusirik zuela-eta, *edesti* eratu zuen arte. Azkuek ere Arana Goiriren arrazoi berak izango zituen *kondaira* ezezik *edesti* ere baztertzeke (Ik. *Euskera*, 1928, 404.-405.orr.). Bai *kondaira*, bai *edesti*, biak, *historiaz* gain erderazko *narración* adierazteko ere erabiliak izan dira.

—Iauna, erantzun eutsan oekoak; nik neure aukeran itxi-ezkero, lurretik ikustea naiago izango neuke”<sup>43</sup>.

Zapatari orrek, beetik ikusi ta bere, ona eritxon; da ziurtzat euki leikenez, zeruan baldin badago, amaika bidar beren erritarrakaz batu ta guri begira dagoanean pozezko adurretan esan izango dau ak *ederra da gero Lekeitioko uriaren biotza!*

Lurreko gei guztiak alde bi daukez: aurrea ta atzea, kanpoa ta barrua, ganea ta azpia, agiria ta estaria. Gure begiak alde bat baiño eztabe begirakune baten ikusi al izaten; Iaunaren begietarako barriz eztago atzerik, azpirik bere ez, ain gitxi estaririk: gauza guztiak, gizonen gogamen da asmoak, uste ta gurariak, begirakune bat bakarraz alde guztietatik dakusaz goiko Ikusleak.

Beetik ikusiriko ezgauzatxu onei goitik begiratu al bageutse, zeinbat egi elitzakiguz guzurtuko? Amaika bidar lotsatuko gendukez geure burua ikusiak!

Gau atan Txiliren alabea Elizan ikusi-ezkero, betuleai zirkin eragin baga altarara begira ta beren ezpanak motzailen artazi edo guraizak legez gelditu baga alkar ioten, zein gurasok ezeutsan Iaungoikoari bera langoxe alaba elizarakoi bat eskatuko? Baiña alde bat baiño ezekusen: agiria, barrukorik ez. Maripak besoan atz-tximurkada bi egin ezpaleutsaz, antxe geratuko zan Katalin altara illundura begira ta mandazaiñaren irudia begitasunez ikusten.

Bata bestearen ondoren kaleratu zireaneko ta Maripak eskiñitako ur bedeinkatuaz zer egin ezekiala, “Bai, esan eutsan Kataliñek: erdalduna ta erbestekoa dot, baiña bera langoxe beste bat ezaututearren, diruak emon leikez. Nire lepotik aspaldion barriketan da zurrumuru diarduenak, badakin, Maripa, zer dauken? Guraria, beren esteriako baten guraria, ta neu ikusi eziña.

---

<sup>43</sup> [Azkueren oharra:] Gertarikoa.

—Uuuujui: ire kontuak ezin esan daikez mutuak, nik egingo neukean barrea! Guraria neuk? Mandazain taket baten guraria? Ezkonduteko banengo (ondo entzun gero, ondo: ez albokera begiratu, kaltza nasaidunik ezton agiri-ta) ezkonduteko banaiengon, berreun mandazain euren antzeko bi milla mando ta guzti baiño naiago izango naieuken Txanton bat soiñeko utsakaz, goian zerua ta been lurra daukazala.

—Eztot nik igaitik esan.

—Nigaitik ez, e? Gaisoa! Eztaukan ik erru guztia, eure Aitako sur-andiak baiño.

—Gero... gure Aitari ez esatea.

—Ire Aitak eztakialakoan ago, arri-koskor guztiak beste gauzarik eztakienean? Aur eztarabil bera Errokek, goiz da arratsalde, mandazaiña gora ta mandazaiña beera, gortu-\*agiñik?

—Isiltxuago, Maripa; geuri begira dagoz guztiak eta isiltxuago.

—Iakingo dot nik oraindiño ori nor dan, txori polit ori. Naiago enduket, Katalin, eskeko bategaz ezkondu-ta ikusi, orrelango...

—Eztaigun geiago iardu ta ekin. Eskeko bategaz neure burua? Beste batek gauza ori esan baleust... Maripa, zeinbat \*eragiñago \*ziriñago; alper da Maria makillatu, ezpada berez biurtu.

—Neskazaartuteko \*arrenkuratan ago? Neuk erakutsiko daunat Mariñasi ezkontzalaria nun bizi dan. Edozeiñen, edozeren da edonungo barri eidaki.

—Alper dala Maria makillatu...

—Tira, bada, tira. \*Egiunea eginda badago, ez atzeratu. Egun atan txilintxuen orde z \*arranak Elizan gertu bear izango doguz; \*albotikotzat mando andi bi, beralangoxe erraldoe bi, ipiñiko dautsaguz Perrandesi; eztegu-etxean aulkirik ezta bear izango, oriotako zaragi puztuetan iarri ta iezarriko gara.

—Ezein iarraitu, Maripa; osterantzean eztaunat iñoiz agurrik egingo. Barre?

—Aide, aide; or konpon, ondo ibilli; gorantziak eta eskuetako munak eta oiñetako igortziak oriodunari”.

Kalean eurakaz batera ioazanen ardureak ezeutsan Katalin aldenduten larga edo \*laketu; eta Burgosko astotxuarena ez egitearren, eziban Mariparen albora edo aldamenera urreratu gura izan. Alkarri loturiko txakur asarratu bi legetxez, ibilliago ta ariñago ioazan biak: murmur bata, agiñak agirian bestea. Mariparen etxe-ingurura eldu zireanean, Katalin bekoki \*txordoaz da zerbait atzeraturik, “iñok nai ezpadau bere...” esaten abia ekion<sup>44</sup>, “ezaz ezkonduko” erantzun eutsan Maripak. Ezeutsen alkarri besterik esan, aldendu zireanean.

Berantz begira ioan Maripa, kaleko sakon-uneetan \*maskalez ez ondatutearren; eziban burua iasoko, Errokek eta Leberin zaarrak oles egin ezpaleutse. Alkarri “gau on” esan da gero, Txantoni burutik zorgiñak kendutearren okerreriaren bat egin bear ekiola<sup>45</sup> esan eban Errokek. Beren asmoa adierazo ebanean, barreka abia zirean irurak; Maripak barrean barrez ezeutsan ezer erantzun al izan.

---

<sup>44</sup> *Iakon* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>45</sup> *Iakola* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

## IV

### TXANTONEN BARRIRAZTASUNA

Aparia aoan eukela sartu zirean Mariparen txakolintegian Erroke, Leberin zaarra ta Santi \*amugiña. Euren etorrerari luze eritxala egon zan Txanton, apaldu ta gero semeari lo eragin eutsanetik ordurarte. Txili beste irurakaz ez ikusirik, arratsaldeko eztabaidatxua gogoratu iakon, da berak egiteko eukan itaunea Erroken aotik entzun ebanean, asko geitu iakon beren \*keizura <sup>46</sup> ta \*arrenkurea.

—“Nun etedabil gaur Perrandesen aitagiñarreba izatekoa?

—Nor? Txili? Aotik kendu daustak, Erroke; neu bere orixe itanduteko egon naz. Beste egunetan ordu onetako beti agertuten iaku. Ezer egin eteiako, bada? Badakit \*urrean zek atzeratu daben gaur. Astakeriak miiñean artuten dabezala esan dausat arratsaldean, da nik barriz eztot bera mindutearren esan. Astakeriak edo... neuk badakit... \*arira eztatozan esake-raak \*lantzean edo noizean bein aitatuten dabezana, ezta egia, gizonak? Enaizu gero salatu.

—Ezai umea izan, Txanton; ori baiño gora-bera ta \*lor geiago dauko ak biotzean. Eu gaur Elizara бага, e?

---

<sup>46</sup> Beti -iz-z idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

—Ez niri errurik ezarri, Erroke, an dagoanari baiño.

—Maripa, enekian orrelangoa intzanik.

—Gogorik ezeukala igarrietzkerok, zer egingo neban, bada? esan eutsan Errokeri Maripak. Sutondotxuan bero berotan gelditu eragin.

—Guzurra bere, berbea da, esan eutsan beren senarrak. Ez sinistu oni, gizonak: bazkal-ostean, goizetik etxeratuteko beronek agindu, ta orain ori esan?

—Illuntzeko aize otzak ene senar epel oni eztautso on andirik egiten; arratsaldea zer edo zertxu artu бага igarroteak beré ez.

—Zori txarrean eskatu neutsazan bein txakolin-\*txiztil batzuk eta ogi-apur apur bi. Ni baiño iatun da edari-zaleagorik ezpalego...

—Ezakit, senarra, gorritu; antxiñatik etxekotuta daukaguz entzule onek; adiskide ta bezero zaarrak doguz, Erroke.

—Zer, Maripa?

—Txakolin-saltzaillea baintz, zer gurago izango euke? eure aurrean pitxerdi, ala atzetik eta ezkutuan pitxarkada osoa edatea?

—Beste batek edateraezkero, zeinbat gitxiago naiago; baiña neuk edateraezkerokoa, betoz pitxarkadok. Nora oa, Txanton? Umeagana onen goiz? Itxi eiok orri lo egiten: bakean dagoanari...

—Bakean itxi. Ori iñoat neuk bere bada; \*auri, orixe, berori. Berak, Maridrogak, egia eztana iakin da bere, esan! Bakarrik gagozanean, Kristorenak esan daidazala; leporatu beidaz, guzur da bar, miiñak emonala ta geiago; baiña iñok entzuteko moduan... Iatuna ta edalea neu? edan-\*sarria batez bere? Nok ikusi etenau \*zabuka ibilli eziñik, edo \*tirlitorlo miiña moteldu-ta?

—Olgetan aitaturiko \*destaiña mingarriak, benetan esanikotzat artuten dozak ik.

—Olgetan-benetan esan beti, Erroke; olgeteak benetea ekarten dau gero.

—O neure senar morroso, gizon bana banako, kokotgorri, Txanton sendoa! Bedeinkatua ta \*onetsia izan dailla i onen ordu gitxitan luze ta mardotu, sendo ta edertu auan txakolin miragarria!

—Ene San Antonio ta mutilla! Zek edo zek, gatx andiren batek io bear gauz, Maripa. Iñoiz ez, da gaur onelango zoraldia?

—Txanton: txiki txikitatik, umetatik, Aita ta Ama esaten ikasi genduanetik, bata bestearen lagun izanarren, aspaldiko urteotan alkarregaz bizi izan da bere, ezetedogu, bada, alkar ezautu? Makarra ta eragiña intzan arte guztian, abegi ona egiten eustan; da orain, lodi ta galanta agoanean, abegi ta arrera txarra egingo daustak?

—Baiña andia ezta au, Erroke? Gaurarte ni txakilla izan nau ene emazte zoro onek, makala, barritsua, epela, ezereza; gaur barriz morroskoa, banabanako gizona, kokot-gorria, galanta, sendoa. Benetan diardun, Maripa?

Eztakutsu<sup>47</sup>, gizonak, nire senar, txalen begidun au?

—Bai.”

Guztiak baitez esan ebenean, Txanton erdi-siñistuten asi zan beren barriraztasuna; kokota ta arpegia igortzi ebazan gero esku bategaz, da beti langoxeak eukazala uste eban; gorputzari bere ezeritxan len baiño andiagoo ta mardoagoo. \*Ezbai onetatik len bai len urtetearren, Errokeri isilleko mandatu bat emon eutsan Txantonek; eta biak, besteak barrea euki eziñik egozartean, \*subil-ondora ioan zirean.

---

<sup>47</sup> Uler bedi *eztakutsue*,... Ik. Hitzaurrea, 3.3.



“Begiratu eik aurra, \*topiña-barrura, topiñeari zirkiñik ez eragin gero, ura geldi geldi egon daitean; urreratu kurtzelu ori.

—Ta zer? esan eutsan Errokek.

—Begiratu ondo: nik arpegia len langoxe makarra \*iruntzia ta azurtsua daukat; kokota, beti betiko zantsua ta tximurduna.

—Ik eztaukazak, mutil, begi orrek zuur da ondo: nik, bai uretan da bai aurrez aur edo arpegiz arpegi, arratsaldean baiño andiago, lodiago, mardoago, \*guriago, ta galantagoa akust.

—Egia eteda kontu ori? Baiña luzatu ta zabaldu banintzok, kaltzak eta txartesa estuago ta laburrago euki bear izango neukez nik.

—Eure soiñekoak bere, eugaz batera azi ta nasaiturik iagozak.

—Zorginkeria da au orretaraezkero, zorginkeria.

—Ur bedeinkaturik ezetedago goian?

—Bai zera! Egon balitzok, etzoan iñor i olan aldatutera etorriko.

—Zorgindurik etenago bada?

—Orretara zorgindutekoan, betorkidaz neuri bere zorgiñok.

—Ezin izan leike au.

—Ezin izan leikeala? Eztakik zer igaro dan amabost egun onen barruan, Gizaburuagako baserri-etxe baten?

—Zer?

—Au baiño barriraztasun arrigarriagoa iazo da an. Ago puskatxu baten, arei ots egin daioedan. Maripa, Leberin, Santi: zatorkiguz sutondora, or zagozanok.

## V

### OLGETAN-BENETAN

Errokek dei egin eutseneko, beraganatu zirean Maripa ta beste biak. Maripak kontuz ibilteko esan eutsan Errokeri, umea iratzartu ezeian. Errokek baietz erantzun da gero, modu onetan iarraitu eban bere<sup>48</sup> berbaldia edo iarduna: “Besarkada edo laztan bat emon daiogun Txanton ederrari, ezer adierazoten asi baiño lenago. Txanton, dart dart ago i; nik barriz ziur dakit, Txantonek ukabilkada bategaz<sup>49</sup> Leberin zaarra Santi ta neu, irurok, lurrera eratsiko gendukezana. Entzun ondo guztiok.

Pilipe Muitizko deritxan gizon gazte bati, oraindiño urte bi eztireala, sein edo aur makar makartxu bat iaio iakon. Urte ta erdi-inguruan, makal da erkin bai, baiña beste gora-bera baga bizi izan iako sein ori. Oraintxe amabost egun, egubakoitz<sup>50</sup> edo bariaku-arratsalde baten, Piliperen emazteak, seiña

---

<sup>48</sup> Hemen izan ezik, beste guztietan *beren* dakar. Aldaketa hutsa izan daiteke, cf. 1893a (68.orr.): *beren*; 1893b (69.orr.): *bere*. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>49</sup> 1893b (68.orr.): *bategaz*; baina 1893a (68.orr.): *batez*. Honelakoetan, gehienetan behintzat, 1893a bertsioari jarraitzen dio. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>50</sup> *Egubakotx* beharko luke. Aldaketa hutsa dirudi. Ik. Hitzaurreko 10.oharra.

lo itxita, Laizoletako errotara edo bolura iru zorrokada gari eiotera eroan ebazan.”

Errokek iarduan artean, Txantonek Leberin zaarrari isil isillik “I, belarrira itandu eutsan, ni orretara nagoana egia da?” Leberin zaarrak barrea euki ezinik “baietz, gizona”, erantzun eutsan.

Errokek, Txantonen barruan zer ebillen igarrita, \*aunetara iarraitu eban. “Errotatik urten da etxean sartu zireanean, umea \*ondo-ezik eta \*artegaturik topa eban Piliperen emazteak; mosu bat emon eutsan bekokian, baiña \*ingiraz; beren besoetan artu nai izan eban gero, ta kaltzerpetik oratuaz geiagoko baga, garrisika ta alarauka asi zan umearen Ama. Beren alarauetara ainbeste auzoko batu edo batzandu iakozan: Ama errukarria ikara gorrian da izerdilarritan ikusi ebeanean, zeri oratu ezekiela geratu zirean. Mari Andres, Maari Andres, deiadar egin eutsen; Mari Andresek (au eban Piliperen emazteak beren izena), begiak zabalik eukiarren, ezeutsen ezer erantzun al izan: \*adore bagakoa<sup>51</sup> irudian. Nok esan, baiña, an gerta zan guztia? Emakumeak bildurraren oetik aldendu bai, baiña kanporatu nai ezik egozan; gizonezkoak, bata batera ta bestea bestera zabaldu zirean: Piliperen billa batzuk, beste batzuk osagillearen eske, ta enparauak Abadetan. Abadea iagi al izan balitz ordu-erdi baiño lenago guztia amaitu ta leneratuko zan: zоргинkeriak ezaban geiago iraungo.

—Erroke, arin amaitu eik; nik len bai len oeratu gura neuke.

—Egon ai puskatxu baten, Txanton; laster atzena emongo dausat asiriko arlo oni. Aurrenean edo lenengotan esan dot eta egia da: gaur emen Txantoni iazo iakona, angoaren aldean

---

<sup>51</sup> Lehen argitalpenak (70.eta 71.orr.) *bagakoa* dakar, jatorrizko argitalpenak (373.orr.), berriz, *bagakoak*. Bigarren argitalpenean sortutako hutsa, beraz.

ezta ezer. Pilipe ta osagilleak, eskaratzean sartu ta gero, igarorikoa iakin ebenean, osagilleak \*sastada bat beren \*puntzetaz egin eutsan Mari Andresi; Pilipek barriz umea Amaren odolaz ez loitutearren<sup>52</sup> besoetan artu gura izan eban. —Zer dabil emen? esan eban Pilipek arpegia \*zurbildurik, berunezkoa ala aragizkoa dot ene seme au? —Mari Andres ozta ta nekez beren \*senera etorri zan. Guztiak iarduen izketan, guztiak alkar aditu eziñik. Noizbait agertu eban beren burua sakristauak<sup>53</sup>, eta guztiai isillik egon eragin da geldi geldi ta estulartean beren eretxia erakutsi eban: “Abadea ondo-eztxuaz oeraturik dagonezkero, Done Eufemiako eliz-zaiñagana<sup>54</sup> umea eroatea izango da, ene ustez, \*osabiderik egokiena ta \*ironena.

—Baiña ara-orduko gautuko balitzakigu? iragarri eban batek.

—Eta zer?, erantzun eban sakristauak.

—Zelan eroan umea? Astuna dago ori, araiño eroan al izateko.

—Astorik ezaldako kortan?

—Iru dagoz, esan eban Pilipek.

—Goazan bada, erabagi eban sakristauak: alkarri begira egoteak eztakar \*atze onik. Andrazkoak begoz berton, Mari Andres zainduten; goazan gizonok.

Euretariko bati entzun dausat, Txanton, ekin eban Errokek; zazpi gizonek Done Eufemiako mendira-bidea artu eben, eurakaz iru asto ioazan, irurak bein banan da lepo-azurra arras minberaturik eroan eben ume astuna. Alango arratsik eta

<sup>52</sup> Lehen argitalpenak zuzen zekarrena: *loitutearren* (70. eta 71.orr.), bigarrenak oker dakar: *loitutearrean* (373.orr.).

<sup>53</sup> Jatorrizko argitalpenean (373.orr.) *sakristauk* dator, lehen argitalpenean (70 eta 71.orr.), berriz, *sakristauak*.

<sup>54</sup> *Eliz-zain* ‘párroco’, Añibarroren Hiztegitik hartua. 1918-ko Azkueren Hiztegian, berriz, s.v. *párroco*, elizmaisua; s.v. *sacristán*, elizain; azken hau berak sortua dela eransten duela. Cf. Larramendi, s.v. *sacristan*, elizaya, iadanik Iztuetak erabilia (ik. *Gipuzkoako dantza gogoangarriak*, Bilbao, 1968, 338.orr.).

gaurik ezeidabe egundo igaro. Arratsaldeko bostak inguruan eldu zirean mendi-barrenera, etxean geldi geldi egon balitzaz!! Errukarriak! Eurai en̄zutea da bat, beste bat nik azaldutea. Uleak zutiñik edo zutunik eta gorputza ikarapean eukiten dauz Gizaburuagako gizonak, au gomuta izaten daben bakotxean.

—Txanton: ezai larritu. Naikoa ezta izango, Erroke?

—Ez, Maripa: egon bein. Ezeizan arratsalde atan eguna bestetan legez gautu. Norbaitek \*zartada baten odei-ganean estalki baltz da izugarri bat zabaldu-ta legetxez, etorri ei-iaken gaba euren begietara: bat batera, \*itsu-mustuan, iñok uste izan baga, siñistu ezindako moduan. Eta gero, ai gero! Ujuiak emendik, barre-santzoak ortik; argi bat emen, beste bat arantzago; ioan alde batera ta argia illundu, ioan bestera ta sasi-artean arpegia urratu; alkarren barri ezekien; gorputza, berreun gizonak makillaturik legetxez euken. Gau guztian ibilten, nundik nora ezekiela: \*bilin balaunka, musturrez aurrera, buruz beera... ta zelan ez? Gau guzti guztian ibilli ta ibilli, Txanton, da auxe da arrigarriena ta beste iazoera guztien azkarrekoa!! eguna argitu iakenean (bat batera ta goizabar baga argitu zan orduan) \*zirririk edo zirkiñik egin ezpaleben antzera, zazpi gizonak, iru astoak eta zori txarreko umeak alkarren kontran euren buruak ikusi ebezan.

Egon ai, Txanton; txarrena agertu dot eta egon ai; besteok bere ementxe gaiagozak eta ezai lokatu. Alkarri eskuak emonaz iagi bear izan eben, ain egozan eiota!! Astiro astiro, gora ta gora igon eben gero mendi-burura elduarte. Eliz-ondoan oles egin ebeneko, *pekatu baga sortua* esanaz, irurogei urte-inguruko gizon gordin andi bat aurkeztu iaken.

—Zer dakazu<sup>55</sup> edo zek zakaz, gizonak, onen goiz?, onetxek izan zirean eliz-zaiñagandik entzuniko berbaak<sup>56</sup>.

<sup>55</sup> Uler bedi *dakar(r)zue*,... Ik. 7. oharra.

<sup>56</sup> Jatorrizko argitalpenak (373.orr.) *berbak* dakar. Huts garbia. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

—Garatz arduratsu batek gakaz adiskidea; erantzun eutsan sakristauak.

Onek, igaroriko guztia iragarritakoan, asto-ganeko umea erakutsi eutsan eliz-zaiñari. Ona emen onek emoniko epaia:

—Zelango begiak daukazuz, gizonak? Umetzako au ezta umea, larogei urteko atsoa baiño: Sorgiña<sup>57</sup>. Iaurti ta amildu eizu guztion artean ortik beera.”

.....

Ezeban geiago entzun al izan Txantonek: \*aldi gaizto batek adore baga itxi eban.

Maripak, estu ta larri, olgetan asiaz damaturik, amantalaz beren senarra aizetu eban. Arik gerotxuago, guztien artean goiko gela batera eroan eben Mariparen senar eder galant kokot-gorria.

Goian ebilzanartean, Txilik iru edo lau bidar ots egin eban bean; da iñok ezer erantzun ezeutsanean, sueteraiño ioan zan.

Maripa geroago ta \*keizuago ebillen; ezeban iñok uste senarraren ondo-eztxuak alango \*zauskadea egin bear eutsanik. “Bein asi ta bertan au iazo bear, esan eban. Ordu txarrearan ikusi aut, Erroke, etxerantz nentorrela. I ezaz Erroke, okerra baiño. Ai neure Txanton baketsua!! Kendu zakidaz, gizonak, emendik; ken ken. Begiratu eiozu bat edo batek umeari, ta ezer opa izanez kero, badakizu gauzaak non dagozan, da artu.”

Au entzunaz, Erroke ta lagunak alik isillen beerantz etozan; Txilik euren oiñ-otsa belarriratu ebanean, bide-erdi urten da zer euken itaundu eban. Bëren guraria ase ta gero, Txanto-

---

<sup>57</sup> Lehen argitalpenak (76.eta 77.orr.) *zorgin* dakarren bezala, z-z behar-ko luke hemen ere. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

ni adarra iotera igon nai izan eban, baiña besteak ezeutsen laketu.

—“Guztion artean txotxolotu dozu Txanton. Nok gero tximista orri zorgiñik ezta goala siñistu eragin?”

—Gizona, erantzun eutsan Errokek Txili tximistadunari, nik uste izango naieuan au iazoko zanik? Neu bere siniskorra nok eta bildurtia, edozein gizon gitxi edo asko izan doan antzera<sup>58</sup>; baiña orrenbestekoa...

—Erroke, geldi geldi: gatozan arira. Ni enok gero Txanton. Bildur izan ai<sup>59</sup> eu, gura badok: ezkaizak besteok bildurtizat edo Txantontzat euki.

—Ezaz i, Txili, bein ez bein da baten ez baten bildur izan?

—Txili ez.

—Gabaz bakarrik eta bakartasunean abillenean bere ez?

—Ezta munduan neu bakar bakarrik bizi banintzok bere.

—Izan leike... edo eztaikit nik zer esan: orrelango epairik etxoat benetan diardun gizonengandik entzun. Neuk bere gizaseme indartsu ta barru sendodunak ezautu dodaz; \*arako neure aitaita, indar-arazoetan entzute andikoa. Berari ta beste askori (onek bere etzirean ustelak) bein baiño geiagotan entzun dautset...

—Zer?

—Gauaz bein edo bein *Damuturen* bat aurkituezkero, biotza taupadaka eukiten ebela.

—Zer, Erroke?

—Esan dodana, Txili.

---

<sup>58</sup> Lehen argitalpenak (78.eta 79.orr.) antzera dakar, bigarrenak (374.orr.) berriz, huts eginez, *antzera*.

<sup>59</sup> Lehen argitalpenean (78.eta 79.orr.) *ai* dugu, bigarrenean (374.orr.), berriz, *nai*.

—Sinistu bere ezin dot ire aitaita sendoa, *damutuak* direala ta eztireala, ikaratu izatea. Damutuak!! Erdi billoizik, txikotaz edo idi-zillaz gorputza odolduten iarduten daben ero batzukaitik \*taupadaka biotza asi? Biotz txatxarra da, gizonak, ezgauzakaitik \*taup egiten daben biotza.

—Txili: eztau balio izango gero gauza bat esan da beste bat egiteak. Or gau-erdi-inguruan norberen gerizarik bere ikusten eztan gau illun baten, buru-utsik, ortozik edo orpo-utsik eta erdi-billoizik, erraldoia lango Damutu andi bat begien aurrera, eu bakarrik agoala, aurkeztuko balitzakik, ezintzake, Txili, bildur izango?

—Ona, Erroke (ukabillaz maiari ots eragiñaz esan eutsan Txilik): ire aitaita baizen sendoa enok; onelan da guzti bere inpernuko deabrua bera Damutu-iantziaz agertuko balitzakit, eta iarraituteko esango baleust bere, enintzake bildur izango, eneuke atzera egingo. Zelango biotza da taupadaka dabillen biotza? Zanen batetik dingilizka edo esegita daukagula uste aldok?

—Naiago neuan <sup>59bis</sup>, Txili, aitatu dauan ori aitatu ezpaeu.

—Ezai txakilla izan i bere, Leberin. Ekarri eik txakoliña, ta gaoazan gero geure Txantontxu ikustera.

---

<sup>59bis</sup> *Neban* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.



## VI

### AUPADA BIDEBAGAKO BATEN ATZEA

Markiñarako urteeran, *Atea* deritxon uri-mugan eukan Perrandes mandazaiñak ostatua. Berarizko apaingarririk ezeukan etxe onek; beren ormetan ezeben iaubeak iñoiz ezetariko \*zuzenbiderik edo \*igargarririk<sup>60</sup> ezarri; au gorabera, Lekeitiar guztiak antxiñatxutik *Mandazaiñentzako Ostatua* esaten eutsen etxe oni. Iru ate andi eukazan etxeak: bi kortarakoak, goiko bizi-toki ta ganbararakoa irugarrena.

Lekeitioko uriak, bai orduan da bai arrezkero, kale luze luze bat dauko, bertako zurkulu ia guztiak erakusten dauzana. Beste kaleak (onen aldean txikiak) erdi-konturatu baga bertara eroaten dabe bat, zein da errekatxuak ibai andira daroezan urak legetxez.

Iru mako edo arri-uztai<sup>61</sup> egozan kalean bertan: kai-ondoan bata, gaurko uri-etxeari dautsala bigarrena, bestea *Ate* aldean; eta iruretan zerutarren irudiak lurtarren atsegiñerako eregi

---

<sup>60</sup> Lehen argitalpenak (82.eta 83.orr.) *igargarririk* dakar; bigarrenak (390.orr.), dudarik gabe oker, *igargarik*.

<sup>61</sup> *Arri-uztai* 'arco'. Ez dator Hiztegian. Cf. Larramendi, s.v. *arco*, en *la arquitectura*, arruztaya; s.v. *arco*, *generalmente*, uztaya.

ebazan \*iaiereak edo \*onerazpenak. Kale onetantxe egoan Txiliren etxea, kale onetantxe Mandazaiñentzako Ostatua, ta kaleon bertan igaro zirean esateko daukaguzan gertaera gomutagarriak.

Gau atan ezekian mandazaiñak zer erabilten esku-artean. Txiliri erraiak ardaoz berotuezkero, beren alabea emaztetzat eskatu ta baietz entzutea, \*atzerapen bagako gauzea izan bear ebela uste izan eban: ezeutsan ezetz erantzun, baiña baietz bere ez; eta gizonak, beren ustez, zerbait eskatu dakionean<sup>62</sup>, bai edo ez, garbi garbi, zeatz zeatz, soil soil da luzapen бага erantzun bear dau. Berari iñok (Kataliñek izan ezik) beren iru mandoak eskatu izan baleutsaz, etzan atzera begira ta burua austen egon izango: *ez* esan da kitu.

Mandoai askan garagarraren orde z lepoko estalkiak edo berogarriak ipiñi eutsezan iakitizat; mando errukarriak bein baiño ezeben burua makurtu, agiñak erakutsi barriz bein bere ez. Ikustekoa zan orduan Perrandes, \*argimutilla eskerrean<sup>63</sup> da gorostizko makilla eze bat eskuman eukazala, \*aiñenka ta biraoka, bein banaan *Tordillori*, *Carbonerori* ta *Platerari* bizkar-azurra neurtuten..

Zori onean da adiunez iatzi zan goiko atsoa (Madalen eulea) aparria maian eukala Perrandesi esatera.

—Zer nai, *patrona*?

—Apaldu nai izanezkero...

—Apaldu eu.

—Mando gaisoak! ezeizak orrenbeste<sup>64</sup> io.

—Isillik i, *arraioa*.

---

<sup>62</sup> *Iakonean* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>63</sup> Arrazoi etimologikoak direla-eta, beti -s-z idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>64</sup> Aldaketa hutsa. Jatorrizko argitalpenean (390.orr.), lehen argitalpenean (84.eta 85.orr.) bezala, *orrenbezte* agertzen da. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

—Zer egin etedaue<sup>65</sup> bada, gaisook?

—Garagarra neu emon ta ez ian. *Tordillo, come, rre... diez.*

—Olan ioezkero, eu il ezaien kontuan ibilli ai... Baiña Perrandes, zelan iango dabe zer-ian eztagoan lekuan?

“Mandazaiñak, beren uts-egiña ezautu ebanean, Ama batek seiñari langoxe \*ereguak eta \*palaguak mandoai egin eutsezan. Iñoiz baiño garragar geiago iruntzi eben oneek egun atan. Euren iaubea, kortako egikizuna amaitu ebanean, Madalen aurretik argi-mutillaz ebalá, gora ioan zan.

Apari ugaria ta onuratsua gertu eutsan Madalenek, baiña alperrik: ezeban ezer ian al izan. Arrautzatan, berak ianala ta geiago egozala esan eutsan, da alperrik; alperrik iardu eben Madalenek eta beren seme zaarrenak errian urte atan gertariko guztia adierazoten; alperrik osagilleari ots egiteko igitu gura izan eben. *Ez*, esan eutsen Perrandesek: berba auxe ta *gau on* baiño besterik ezeben beronen aotik entzun.

Oi ebanez, kortara etzatera iatzi zanean, ezeutsen Kataliñen senargeiak mandoai bestetan legez beren asmorik erakutsi; ez, Erriojara noiz ioan bear euen<sup>66</sup>, esan; ez lepoa, Kataliñen izena ta edertasuna aitatuaz, igortzi ta palagatu.

Argiari putz egin da gero, soiñeko ta guzti etzan zan lasto-zorro ganean. Lau ordu baiño geiago igaro ebazan bira biraka, loari burutasunen artean ostatu emon eziñik. Beren asmoak bete baleuz, ezebazan Txantonen emazteak urte asko munduan iraungo.

Gau-erdia baiño gerotxuago zutindu edo oiñen ganeratu zan; eta argia isioatea gogoratu бага, estalki andi bat topa ebanean, beraz batu ta kaletik urten бага *Arranegi*-alderantz ioan zan.

<sup>65</sup> *Etedabe* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>66</sup> *Eben* beharko luke. Aldaketa hutsa. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

Txiliren etxe-aurrera eldueran, atea beste etxeetakoa legez idigirik aurkituarren, atarian oiñak ipinten asiaz batera, itxas-ertzerako bidea artu eban. Eztakigu, baiña, ala bildurrez, ala lotsaz, ala zerez edo zegaitik ezaban bete gura izan beren asmoa: Txilin alabea ostu edo ebatsi, ta goizalde atantxe Erriojara eroatera.

*Talan* egotaldi on bat egin da gero, bigarrenez lengo lekura etorrela, oiñ-ots durunditsua entzun eban Txiliren etxe-ko mailletan. Zer iazoko, alboko atari baten ezkuta eban beren burua, garrikopeko gaiñibetea eskuratuten egoanartean. Mailletan beera etorrenak ezeutsan asko itxaron eragin: ondo begiratu eutsan Perrandesez, baiña ezetara ezaban ezautu al izan; eta arrausi egikeran ezautu ezpaleu, gizon bat gitxiago ta \*eraille bat geiago euki izango alebazan Lekeitioko uri baketsuak.

Txili zan Perrandesez aurrez aur eukan gizona. Zek iagi eragin eutsan ordu atan? Ezekian mandazain buru-andiak, Txili *seiñeroa* zanik; ezekian ordu atantxe edo belutxuago Talara ioan bear izaten ebanik: ostean ezeutsan iarraituko.

Txilik egikizunez eguraldia egunean egunean aztertu bear izaten eban. Onetarako, zein euritan zein aterritan, goizaldea baiño askozaz lenago ioaten zan Talara; an izarrai begiratu, odeien azatza kontuan artu, aizea ezautu ta itxasoa zelan egoan ikusirik, txalupetako nausiai ots edo oles egiten eutsen. Gero txalupa maisuakaz batera osteratu bear izaten eban Talara; eta guztien artean eguraldia alik zeatzen aztertutakoan, itxasoraterik egonezkero, *dei egitekoai* dei egitera ioaten zirean.

Txili odeietara begira ebillenartean, mandazaiña baztertxu baten iarri zan gaiñibetea eskutik kendu baga.

Gauza andi ta beren moduko bat ikusi eban Txilik, *Tala goikotik* beraganantz etorrela, baltzaren baltzaz illunetan bere geriza egiten eban. Urreratu iakonean, "gau on, adiskidea, esan eutsan Txilik; goizetik gabilz, goizetik.

—Nai goiz nai berandu, iri zer?

—Asarrez dator mutil au: geu bere bada drogarako <sup>66bis</sup> ezkozak txarrenak. Nor az eu, tximista ori?

—Enakusk?

—Nik ez ondo, eure eskutzar onetako zigorra izan ezik. \*Tema egingo neuke Damutu eroen bategaz diardudala. Nondik nora abil eu?

—Eztaukat barriketan iarduteko astirik; baiña itaune edo galdeera geiago ez egitekoz erantzungo dauat. Gau guztian, nundik nora eztakidala ta neure gerizea baiño beste lagun бага, \*ibilli nabil; egun-sentia baiño lenago, Oiz-barrenera ioan nai neuke, nundik baneki.

—Egun-sentia baiño lenago? \*Mau mau! ezta inpernuko deabrua baintz bere.

—Lagun on bat baneuko, bai.

—Ori ikustearren...

—Ator.

—Baiña nik...

—Orretaraezkero, berba biko gizona az i.

—Ez ni.

—Bart euk ezeuan eskiñi, edozein Damuturi lagun egingo euskeola?

—Baiña...

—Atxakiak, \*akiakulak eta estakuruak daukazak ik.

—Eta zein tximistak dei egingo dau, itxasoraterik badago?

—Eguraldi txarra, txalupaak iazo ezindakoa balego, iarraituko eusket?

—Bai, zegaitik ez?"

---

<sup>66bis</sup> *Drogarako* 'errietarako'.

Au esanaz, ezaban Txilik puskatxu baten aurreko laguna ikusi. Agertu iakonean, modu onetan iarraitu eben lengo autua:

—“Orra or mendebal gogorra ta \*ugarte ori \*gaiñako olatuak.

—Tximista gorria! ni baiño igarle obea az.

—Baator ala ezator?

—Tira.”

Parrandeseke, asarrezko autu labur au entzun ebanean, ezer aditu ezarren, Txiliren alde urten gura izan eban, baiña egiñala egin da bere, ezaban beren burua lokatu al izan: orma-kontran norbaitek inka ta legez eukan gorputza.

Beren paretik irago zireanean, Txiliri oles egitea otu iakon; baiña ekandu txarrekotzat euki ezeian, isillik gelditu zan.

Bera iagi-orduko, Txili ta laguna Done Peruren makopera eldu zirean. Alango irudien aurrean, Damutu guztiak eskueta-ko zigorraz gorputza astindu eroen. Baekian Txilik ekandu au; ta beren laguna aurrera ioala ikusi ebanean, “Adiskidea, esan eutsan, irudi done baten aurrean ago. Lege oneko Damutua baaz...

—Eta iri zer?

—Niri neuri... ezer ez, baiña...

—Bildur az?

—Bildur, zegaitik?

—Iarraituko daustak?

—Noranai.”

Andik bigarren makopera Andra Mariaren irudidunpera bide andirik ezeuken, da gelditxuago ioan da bere laster elduko zirean. Orduantxe bere Txilik ezaban beren laguna gorputza astinduten ikusi, ta eskuak kaltzerpean sarturik agiraka asi iakon, berba onek esanaz:

“Euk eure gorputzar ori astinduteko adorerik ezpadaukak, neuk eskuak berotutearren makillatu edo zigortuko dauat, bardin baderitxok.

—Berotuteko gogo daukak? Berotuko az. Arira eztatozan itauneak gizon txakillak egiten dabez.

—Bada arrain ona eu eteazan...

—Bildur az?

—Zegaitik diraustak ori?

—Bildur az?

—Ez.”

Mandazaiñak, arin ibiltzen oituta egon balitz bere, ezeutsen aurea artu al izango. Arek eroen abiadea!

Andra Mariaren makopetik irago bear ebanean, dingilizka ta gelditu-gurarik ebillen argitxua ikusirik, gorantz begiratu eban Perrandese; ezekian, baiña, zelan azaldu, zegaitik edo zerik zetara erabillen burua albo alboka kristal edo \*beira-arteke irudiak. Geratu бага bigarrenez bertara begiratu eban, da argi ziriña ta illuntasun ao-zabala baiño besterik ez eban ikusi. Gaiztakeria ontasunetik<sup>67</sup> eta ezaintasuna edertasunetik ondoen ezautu daroaguzan antzera, illuntasuna \*begitanduteko bere, argia bear izaten dogu.

Aurretik ioazan bien oiñ-otsak entzueran, berak baiño obeto apaldu bear izan ebela gogoratu iakon Erriojako kaltza laburdunari; atsen egin da lotaratutea bere, buruak emon eutsan, baiña zer esango eban Txilik, besteagaz burrukara ioan da beren laguntasunaren bearrean aurkituezkero?

Mandazaiñari burutasun onek gogoratu-orduko, irugarren makopera eldu zirean beste biak. An bere, zigorraz ezer egin бага ta burua lotsaz legez makurturik, etzan gelditu Txiliren

---

<sup>67</sup> Jatorrizko argitalpenean (413.orr.) *ontasunik* dator. Huts garbia. Cf. lehen argitalpeneko *ontasunetik* (94.eta 95.orr.).

laguna. Zerbait esango eutsan Txilik, besteak katamotzaren begiak langoxe sutsuakaz albokera begiraturik, "aurrera" esan ezpaleutso.

Uriko atzenengo etxea lepo-aldean itxi ebanean, txilik (besteari zerbait erasotearren nire ustez) izerditan egoala ta gelditxuago ibilli ta bere, elduko zireala esan eutsan.

—"Izerdia? Bildur azalako ago i, oskil<sup>68</sup> ori, izerditan."

Beren buruagaitik oskilla entzun ebanean, esku biak uka-bildu ta astakeriren bat esan da egitera ioan seiñero indartsua; baiña lagunaren atzetan amar erpe, amuak langoxe okerrak, ekusazala begitandu iakon, da arritu-ta aoa zabalik eta arnasa бага gelditu zan.

—"Bildur az, oskil ori?"

—"Ez," arrausika legetxez erantzün eban; eta zelan ezekiala, orduantxe aoak emon eutsan beren bizitza guztiko lenengo guzurra.

Ordurik aurrera, Txantonen txakolintegian esan ebana gomuta ez izatearren, begiak erdi-itxirik, lagunaren oiñ-otsak banan banan \*zeinbatu edo kontaten abia zan kataliñen Aita. Alan da guzti bere ezin aaztu ebazan Damutuaren begi ta erpeak.

Txilik uste ta gura eban baiño nekezago ta beluago eldu zirean *Kristo Portalekora*.

Araezkero, Damutu-ezaugarririk erakutsi ezik, ezeutsan aurrera lagunduko: alperrik bestearen aotik txakilla, oskilla ta bildurtia ta edozetariko iraiñak entzun. Eldu zirean noizbait. Damutua, Iaungoikozko irudi kurutzeratua ez ikustearren, pillara edo \*metarri-atzetik aurreratu zan. Txilik, zerbait esateko

---

<sup>68</sup> *Oskil* 'koldar'.



gurariaz, burua iaso ta begiak zabaldu ebazanean, auntzaren musturra ta agiñak begitandu iakozan bestearen arpegian; eta katai batek emoniko gili gilia langoxea eukalakoan, eskuaz kokota igortzi ebanaz batera, barre-algara izugarri bat egin eutsan auntz-arpegidunak. “Bildur az” itandu eutsan, baiña ez gizon-berbakaz, auntzaren barreakaz baiño: Txilik ezeutsan ezer erantzun.

Mandazain mokor-astunak eurai obeto iarraitutearren, kortan sartu ta iru mandoetatik bizkorrena azpiko laguntzat artu eban: onetarako ezaban oinkadarik galdu bear izan. *Arre Tor-dillo* esan da alik ariñen besteen atzetiko bide ziorra iarraitu eban.

Txili gaisoari bitartean, gorputzaren arintasunak burua ia zorabiatuarate astundu eutsan. Geroago ta ariñago ioazan, alkarraren leian eritxi baten, baiña bera konturatu baga: *Auria*-ko bide medarretik *Arrupaiñen* zear, *Leako* zubitik irago bear izan eben *Oleta* atzean isteko; eta aingiratako toki arek beren etxeko zurkuluak baizen ondo iakiñarren, ezaban ezautu ez etxerik, ez ibairik, ez zubirik, ez olarik.

*Oibar*-ingurura eldu zireanean, Txanton il zala bururatu iakon, da beren *Gauillean* edo \**Gauelan* egoalakoan, kaltzaak aratu ta *errosario*-garauak atera ta amabost \*arenak esaten abia zan.

“Alperrik”; esan eutsan lagunak. Berak, lotorditatik itzartuta legez, aoa zabalik begiratu eutsan; “alperrik” esan eutsan bigarrenez besteak. Txili, sugoiaren aurrean txoriak egoten eidirean gizan, begiak zarratu eziñik egoan: biak geldu, biak alkarri begira.

Bildurra bera aragiz iantzi ta gizondu al balitz, elitzake Txili egoan baizen margul da \*kolorga edo zurbil egongo. Damutuak burpil baten bira biraka milla arpegi balebilz langoxe \*taiua erakusten eutsan Txiliri: txakurrik beterre ta sur-

zapalenak, auntzik<sup>69</sup> zaar da bizartsuenak, urderik itxusi ta zikiñenak eta beste euron antzeko milla abere-muetak Damutuaren \*sorburuan burua agertuteko \*itunea egin ebela irudian. Txili iaustera ioan, bestea kar kar kar abia iakonean: “Txili sendoa, entzun ondo bein da betiko. Bildur az?

—“Antiguako Ama Maria, bildur naz” esan, da Oibar-ko Elizatxuko atea eskuakaz ioaz, auspaz edo aospez barrura iausi zan.

—“Txili (beren erraietako orroi arrigarri bategaz<sup>70</sup> esan eutsan orduan Damututzakoak), Txili: beste bein baketan laga eiok inpernuko deabruari. Neu nok. Ona emen ezaugarria. Neurea intzan, neurea. Eskerrak emon eiozak eskuetako orri ta agoan lekuari.”

---

<sup>69</sup> Ez dugu guk zuzendu, jatorrizko argitalpenean (414.orr.), lehen argitalpenean ez bezala (ik. 100.eta 101.orr.), *ts-z* beharko zukeen arren, *tz-z* dator. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>70</sup> 1893b (101.orr.): *bategaz*; baina 1893a (100.orr.): *batez*. Honelakotan, gehienetan bederen, 1893a bertasioari jarraitzen dio. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

## VII

### GUENA

Laster agertu zan mandazaiña. Elizatxu-aurreko bidea baiño besterik ezeukan aurreratuteko. Urruntxutik ikusi eban bertako argia. Urreratu zanean, geriza andi bat argipean ikusirik, mando-ganetik iatzi, arnasaz bete ta kurutze bat egiñaz barrura sartu zan. Ketan egoan atea ta esku andi baten ezau-garria eukan ezarririk.

“*¿Quién eres?* itandu èutsan, kaltza-barrenetik oratuak, auspaz egoanari.

—Perrandes, iaso naik.

—Txili, zelan emen?

—Aingeruak ekarri abe ona. Nik onen saritzat emon al daikedan gauzarik balego...

—Badago.

—Zer? <sup>71</sup>.

—Katalin.

—Bai.

---

<sup>71</sup> Jatorrizko argitalpenak (414.orr.) ez dakar lehen argitalpenean (102.eta 103.orr.) zetorren errenkada hau.

## LEHEN ARGITALPENENKO AZKUEREN HIZTEGI HAUTATUA

[*Aamen:*] *Amen, aamen*. Además de la significación de *pedazo*, que le da Larramendi, se emplea en Bizkaia como intensiva de *emen*.

[*Abantean:*] *Abant egin*, remar. *Abantean*, remando. No sé si nuestros pescadores habrán tomado esta voz de su contacto con los bascos franceses. Sin: *boga*.

*Adiunez*, a tiempo, oportunamente. Sin.: *eraz, alagala*. [Ez dator Hiztegian non esannahi berarekin *adionez* bait dakar.]

*Adore*, ánimo o fuerza vital.

[*Agiñik:*] *Aginik*, a punto de. *Gortu aginik*, a punto de ensordecer.

*Aiñen*: *Ainen*, palabra torpe o maldición. Casi Sin.: *arao, birao*.

*Aitalen*, patriarca. [Ez dator Hiztegian. Larramendiren neologismoa.]

[*Aiutua:*] *Adiutua*, lo a propósito, lo adecuado. Sin.: *erazkoa, egokia, irona, beren bizikoa, alagalakoa*.

*Aizola*, importancia. Fuera de Bizkaia se emplea *ajola*. Sin.: *ardura* en algún sentido. [Ik. Hitzaurrea, 3.2.]

*Akiakula*, pretexto. Sin: *aitzakia, estakuru, estalki* (en sentido de paliativo.)

*Alagalakoa*. Ik. *aiutua*.

*Albotiko*, padrino de boda.

*Aldi gaizto*, desmayo.

*Amaika amaika ta erdiko*, cuántos de mala catadura.

*Amugin*, hacedor de anzuelos. [Ez dator Hiztegian.]

- Arako*, el consabido, el de marras.
- Aren*, misterio o decena del Rosario.
- Argi-mutil*, portaluz de cuatro bujías. Este utensilio está hoy en completo desuso.
- Arira etorri*, venir *a pelo* como dice el vulgo castellano.
- [*Arkuntza*:] *Arkuntsa*, ocasión, coyuntura.
- Armindu*, apurarse, estremecerse.
- Arran*, cencerro.
- Arranegi*, Llámase en Lequeitio el barrio de la pescadería.
- Arrapataka*, atropelladamente. [Ez dator Hiztegian.]
- Arraun*, remo. En Bizk. se dice *erremu* o *erramu* (?)
- Arrena*, la oración. Sin.: *Erregu*, *eskari*, *otoitz*. [Oker ez bagera, Obra honetan lehenengoz erabilia.]
- Arren egin*, hacer oración. Sin.: *erregutu* (?), *otoitz egin*. [Ez dator Hiztegian. Oker ez bagera, Obra honetan lehenengoz erabilia.]
- Arrenkura*, zozobra. Algunos dicen *errenkura*.
- Artegatatu*, inquietarse.
- Atari*, atrio, portal.
- Atze*, resultado.
- [*Atzerakuntza*:] *Atzerakuntsa*, retraimiento.
- Atzerapen*, retraso.
- Aulan*, intensivo bizkaino de *olan* o *orrelan*. [Ez dator Hiztegian.]
- Aunetara*, intens. bizk. de *onetara* que es Sin.: de *onan*.
- [*Aupada*:] *Bide bageko*, injusto, inconveniente. *Aupada bide bagekoa*, (el) desafío inconveniente. [P.P. Astarloaren neologismoa (1803).]
- Aur*, *aaaur*, intens. bizk. de *or*.
- Auri*, intens. bizk. de *ori*. [Ez dator Hiztegian.]
- Aurra*, interj. Ea, vamos... Intens. bizk. de *orra* (*orrera*), ahí.
- \**Auzi-etxea*, la Audiencia, que hasta hace no mucho solía ser la Casa Consistorial. [Ez dator Hiztegian. Ez dugu adibide zaharragorik aurkitu.]
- Azatz*, surco o dirección. [Obran "norabide" bezala erabilia. Esangura honekin ez dator Hiztegian. Azkueren neologismoa?]

- Azazka*, desahogarse. [Hiztegia bere ordez *azazkau* dakar.]
- Bana banakoa*, lo selecto (de lo mejor).
- Barriraztu*, renovar, transformar.
- Begitandu*, figurarse uno o hacerse ilusión de algo.
- Begitasun*, ilusión óptica.
- Beira*, vidrio (Axular).
- Bekoz beko* (lab.), frente por frente. Sin.: *aurrez aur*, *aurkez aurke*, *arpegiz arpegi*.
- Berarizko*, especial.
- Bezero*, parroquiano, cliente.
- Bilin balaunka*. Voz onomatópica que denota el caerse dando tumbos.
- Burugin*, vividor, uno que sabe tratarse bien.
- Burutsu*, ingenioso, de mucha cabeza o talento.
- Dandarrez*, arrastrando. Sin.: *tatarrez*, *arrastaka*.
- Destaina*, pulla o expresión aguda y mortificante, pero sin obscenidad.
- Detu*, manía.
- Dindirri-urtika*, dejándose caer el moquillo.
- Done*, santo, santa. [Obra honetan Azkuek maizenik *done* erabiltzen duen arren, birritan *san* darabil. Larramendiren neologismoa Lehenengo agerraldia, J. Ignacio de Aranaren "Recuerdo del monasterio de San Ignacio de Loyola" *Euskal Erria*, 1883, IX, 70.orr.-an aurkitu dugu.]
- Egimen*, acción. Vulgarmente se emplea más la voz *egitade*.
- Egiune*, contrato.
- Eizari*, cazador. No se usa ya en Bizkaia, Sin.: *ibiztari* (lab.).
- Ekina*, la insistencia.
- Eletari* (lab.), conversador. Sin.: *autudun*, *autugin*, *kontalari*.
- Enparau*, resto, demás.
- Eragina*, (el) inquieto, (lo) agitado. *Zeinbait eraginago zirinago*, cuanto más agitado más diluido. Se emplea esta frase en equivalencia del refrán *peor es meneallo*.
- Eraile*, asesino.

*Eramen*, obstinación. Son casi sinónimos *ekin* y *detu*; y también la voz bizkaina *eroan+a*.

*Eraso*, sonsacar o hacer decir. *Mesaa* (sic) *eraso*, ayudar a misa.

*Erausle*, orador. Hablador o charlatán. Sin.: *barritsu*, *berbaldun*, *itz-ontzi*. [Ez dator Hiztegian.]

*Erazko*, proporcionado, oportuno. Sin.: *egoki*, *adiutu*, *iron*.

*Eregu*, mimo.

*Eri*, clase, género. Además de significar enfermedad.

*Erio*, morir. *Iaiotik eriora*, del nacer al morir. He oído muchas veces esta frase de boca del pueblo. De *erio* viene *erioa*, la muerte, *eriotza*, momento de morir<sup>1</sup>.

*Erratilu*, plato. Hay quien pronuncia *erretilu*.

*Erregutada*, rebanada.

[*Errezpe*:] *Errespe*, reconvencción (acritud, reprensión).

*Erime*, mucho. Sin.: *asko*, *edozenbait*, *aski*, *agitz*, *anitz*... [Ez dator Hiztegian.]

*Esangin*, obediente.

*Eskuketan*, gesticulando.

*Estakuru* (lab.), pretexto. Sin.: *aitzaki*, *akiakula*.

*Esteria*, calidad. [Cf. Hiztegian, s.v. *esteria*, *tamaño*, *proporción*, *estatura*.]

*Eutsi*, asir. En Bizkaia se emplea también significando el imperativo *toma*, *coge*.

*Ezbai*, duda. Sin.: *Zalantz* (Larram.).

*Gainako*, del tamaño (de)...

*Ganbelu*, camello.

*Ganoradun*, (hombre o mujer) de remango. [Ez dator Hiztegian.]

*Gardamu*, herrumbre o polilla de hierro.

---

<sup>1</sup> [Azkueren oharra:] Como de *iaio* y *bizi* proceden *iaiotza*, momento de nacer y *bizitza*, vida o momento de vivir. ¡Qué linda sería, si no fuese gratuita e ilusoria, la etimología de *enfermedad fría* atribuida comunmente a la voz *eriotza*!

*Gauela*. Sin. de *Gau-ila*. Noche que se pasa en torno de un cadáver. Si bien esta costumbre aún permanece en los pueblos, ha desaparecido la costumbre de entonar en dichas noches endechas (*ileta*) en torno y loor del difunto.

*Gurgarri*, venerable.

*Guri*, rollizo.

*Gutar*, ansia.

*Guztia bearreko gizona*, el hombre desprovisto de todo. Casi Sin.: *arrenean*, en necesidad extrema.

*Iaiera* (g.), devoción. Sin.: *onerazpen*.

*Iaritxi, iaditsi...* alcanzar, conseguir. Sin.: *lortu, eskuratu*.

*Ias*, garbo.

*Ibili nabil*. Lindo y no muy empleado modismo, que a semejanza de frases hebreas por este tenor indica lo fatigoso del andar.

*Igargarri*, signo, rótulo...

*Ingira*, escúpulo. [Cf. *Hiztegian*, s.v. *ingira, repugnancia*.]

*Iragarri*, anunciar, (lit.) hacer adivinar. Verbo doble formado de *igarrri*.

*Iron*. Vid. *erazko*.

*Iruntzi*, devorar, tragar. Sin.: *iretsi* (lab.). *Arpegi iruntzia*, (la) cara demacrada.

*Itune*, convenio, mutuo compromiso.

[*Itxu-mustuan*:] *Itsu-mustuan*, a ciegas.

*Kala*, lugar destinado a la pesca en alta mar. Lo conocen los pescadores por la situación recíproca de los montes respecto del punto en que se encuentran.

*Keizu*, inquieto, lleno de zozobra. [Ik. *Hitzaurrea*, 3.2.]

*Keizura*, zozobra, inquietud. [Ik. *Hitzaurrea*, 3.2.]

*Koipezto*, mugriento. Esta terminación derivativa *zto* es de algún uso con las palabras que indican adherencias del hombre: *zorrizto*, piojoso; *eskabizto*, tiñoso; *sarnazto*, leproso; *pekazto*, pecoso.

*Kolorga*, descolorido. Sin.: *margul, zurbil*.

*Konkortu*, quedarse estupefacto, literalmente quedarse giboso.

*Lainekoa*, (lo) proporcionado. *Ain lainekoa*, tan proporcionado, o mejor, de tal proporción, catadura...



*Laketu*, permitir. Sin.: *laga*, *larga*, *itxi* o *utzi*.

*Lantzean bein*, de vez en cuando. *Lantzean lantzean*, de vez en cuando; lit. de lance en lance.

*Lerdendu*, enderezarse.

*Lor*, sinsabor.

*Maratz*, uno de mano delicada y pronta para las labores. *Baratz* significa lo opuesto. En la gramática [*Euskal-izkindean*] confundí estos dos términos.

*Marrati*, luchador, guerrero. Sin.: *gudari*. [Ez dator Hiztegian. P. P. Astarloaren neologismoa (1803).]

*Maskal*, salpicadura.

*Mau mau*, interjección repetida que denota sospecha y también desconfianza.

*Mendebal*, vendabal.

*Metarri*, columna. Sin.: *Pilara* (comúnmente se pronuncia *Pillara*).

*Miru*, milano.

*Monkategi*, monasterio. [Ez dator Hiztegian. Azkueren neologismoa?]

*Morrosko*, buen mozo, gallardo.

*Mosuak*, los labios. *Mosu* significa primordialmente cara, por extensión ósculo. Sin.: *musu*.

*Nasa*, muelle de puertos.

*Neurtitz* (Lar.), verso. Sin.: *bertso* (?). [Ohienartek sortua.]

*Oles egin*, llamar la atención. [Ez dator Hiztegian.]

*Ondo-eza*, (el) malestar. Sin.: *Makal-aldia*, *makal-sanya*, *gaiso-usaina...*

[*Oneraspen*:] *Onerazpen*, devoción. Vid. *Iaiera*. [Hiztegian dioen beza-la "Es palabra muy corriente en los púlpitos y devocionarios. No será fácil probar que sube más arriba de Moguel."]

*Onetsi* (lab.), apreciar.

*Onuratsu*, sustancioso, succulento.

*Osabide*, medio de curación.

*Palagu*, halago, caricia.

*Pamerial*, encanto.

*Parizta*, mueca.

*Patoak*, hechizos (los).

*Probintzia*, así llaman en Bizkaia a Gipuzkoa, sin duda por la distinción de ambas en Señorío y Provincia.

*Puntzeta*, punzón. [Hiztegian *puntzet dakar*.]

*Purrustadaka*, refunfuñando.

*Sain*, aceite o grasa animal.

[*Sarria*:] *Edan-sarria*, bebedor o quien frecuentemente bebe.

*Sastada*, penetración. Es también voz onomatópica.

*Sen*, juicio. Según algunos instinto. *Eure senean ago?* ¿Estás en tu juicio, en tus cabales?

*Sorburu*, occipucio. [Ez dator Hiztegian.]

*Subil*, tronco.

*Suest*, sueste. Gorra impermeable usada por los marinos. [Ez dator Hiztegian.]

*Suete*, hogar [cocina].

[*Sumatu*:] *Suma*, ligero. Sólo se usa, que yo sepa, como calificativo de *lo*, sueño.

*Sumin*, cólera, enardecimiento, saña.

*Sunda*, hedor. Sin.: *ats*, *usain txar*.

*Tain*, traza.

*Tala*, así llaman en Lekeitio a la Atalaya. [Ez dator Hiztegian.]

*Taup*, voz onomatópica que indica ruidos del corazón.

*Taupada*, convulsión [latido].

*Tema*, apuesta, porfia. Sin.: *leia*.

*Tindi*, fragmento diminuto. Sin.: *puzka* (sic), *zatitxo*, *ataltxo*. [Ez dator Hiztegian.]

*Tirabira egin*, volcar.

*Tirlitorlo*, balbuceando: voz onomatópica. [Ez dator Hiztegian.]

*Topina*, marmita.

*Tretza*, aparejo de pescar besugos.

*Txartes*, capotillo de paño burdo.

*Txindorri*, pájaro, llamado por algunos peti-rojo.

*Txintxirrin*, juguete llamado por algunos soniquete [sonajero].

*Txio*, un pajarillo.

*Txiztil*, gota. Sin.: *tanta*.

*Txoko*, ganga.

*Txordo*, oscuro [ceñudo]. Sólo se emplea que yo sepa, calificando a *bekoki*, frente.

*Txutxuputxu*. Voz onomatópica que indica lo mismo que *txor txor*, con la diferencia que *txutxuputxu* parece denotar por precisión la charla, en voz baja, de varios.

*Ugarte*, isla. Tal vez *Izaro* más bien que una isla (la situada en aguas de Bermeo) parece isla en general<sup>2</sup>. [Larramendiren neologismoa.]

*Urrean*, tal vez. Sin.: *ausa*, *noski*, *agian*, *bear bada*, *al* (aglutinante verbal).

*Urren*, inmediatamente. [Ez dator Hiztegian.]

*Urrumada*, arrullo.

*Ut*, *uuut*, interjección de repulsa.

*Zabuka*, tambaleando.

[*Zamau*.] *Samau*, mantel o cubierta de mesa.

[*Zartada*.] *Sartada*, acción momentánea: es voz onomatópica.

*Zauskada*, impresión o emoción de ánimo.

[*Zeinbatu*.] *Zeinbaitu* (tomado de Larramendi), contar. [Cf. Larramendi, s.v. *contar*, en *número*, *cembatetu*. *Zeinbaitu* —lehenengoz *Euskal-izkindea*-n (1891) erabilia— eta *zeinbatu* (1898) Azkuek Larramendiren eredupean sortutako neologismoak dira beraz. Gauza bera gertatzen da Arana Goiriren *zenbatu*-rekin (1897) ere.]

*Zemai*, amenaza.

*Zeren*, polilla de la madera.

*Zintsu*, sincero, fiel [Ik. *Hitzaurrea*, 3.2.]

*Zirimara*, chisgarabís, métome-en-todo... Andar de un lado a otro por curiosidad.

---

<sup>2</sup> Azkuek ideia Mogelengandik hartu zuen: “*Izaro*, una isla de este nombre frente de Bermeo, y significa círculo de mar o isla” (Ik. *Peru Abarca*, Bilbao, 1984, 23.orr.). Baina, oker ez bagara, erabili, berak erabili zuen lehenengo aldiz (Ik. “Peru matraka ta Pedranton”, *Apis*, 1888, 11. zenbk. 85.orr.).

*Zirin*, fluido movedizo. Podría tal vez aplicarse a los líquidos en general.

*Zirkin*, movimiento. *Zirkin egin*, moverse. *Zirkin eragin*, mover a otro.

*Zirri egin*, moverse. Estimular, tentar.

*Zirrin zarran*, voz onomatópica que designa el arrastre de alguna cosa.

*Zurbil*, macilento, lánguido.

*Zuzenbide*, correctivo. [Ez dator Hiztegian.]

# BATXI GUZUR

## LENENGO \*AGERRALDIA

### APALAUURREAN

Aizurdi-mendi-sorbalda-ganean luze luze etzunda, artadi itzaltsu edo gerizpetsu baten adarpean, txori baketsu askon<sup>1</sup> txiokaz \*pozkor pozkortxu, \*aldauri<sup>2</sup> bat dago, oillo loka batek txitak euki daroazan<sup>3</sup> antzera, lau etxe beren magalpean daukazana. Aldauriari *Satika* deritxo. Beren lau<sup>4</sup> etxeak *Satika Goseaskoa*, *Satika Beaskoa*, *Satika nagosia* ta *Satikatxu* dabez izenak. Uda ta negu, zein euri zein aterri, nai eguzki \*galdatan nai lei-\*antziarra buruan dabela, bai soloak galgarau-eske dagozanean da bai soloetako galburuak etxera begira egotor-

---

<sup>1</sup> Testu honetan genitiboan —nahiz mugagabeen (-n~ren), nahiz singularrean (-an~aren)— ematen diren alternantziez, ikus bedi Hitzaurrea, 3.3.

<sup>2</sup> [Azkueren oharra:] Irakurgai onetako berba gitxi oituak [guk Obra-  
ren bukaeran alfabetikoki ipiniak], agerraldi bakotxen atzen-aldean obeto  
azalduko dira. [Jatorrizko argitalpenak (131.orr.) *obeto*-ren lekuan, *obetu* dakar.  
Hemen *irakurgai*-k *nobela* esan nahi du. Ik. *Bein da betiko*-n, 5. oharra].

<sup>3</sup> *Euki daroazan* = *eukitzen dituen*. Bizkaieraz, ohitura adierazteko, *joan*  
eta *eroan* aditz laguntzaile modura erabil daitezke: lehenengoa, aditz iragan-  
gaitzekin, bigarrena, berriz, iragankorrekin.

<sup>4</sup> Jatorrizko argitalpenak (131.orr.), *laa* dakar.

duan, Satikak beren leio illunak, begi baltz eder batzun gizan<sup>5</sup>, itxasaldera begira euki daukaz; eta itxas-ertzean, Aizurdipeko *Santa Kataliñak* argi-mutilla<sup>6</sup> eskuetan daukala, erri polit polit bat dakuse: erri garbia, arraintsua baiña arrain-\*sunda bagakoa; *leku itua* baiña arnasaz da adorez betea<sup>7</sup>; erdaldunen begikoa, baiña bizkaitar utsa; erri ikusgarri, Elizarakoi, erri maitagarria: neu iaio nintzan erria.

Lakandu beiez gizonak euren miñiak, iaio-terria bururatu-ten iakenean; euki beiz bakotxak beren erriko mendietako \*karatxak urre mamintzat, erroiak usakumetzat, \*urretxindorren kanta zolitzat beren erriko asto zaarren arrantza gortugarriak. \**Bakotxak* ordu onean *beren \*opilari su* egin beio. Ta nik neureari su egin dautsadala iñok esan-orduko, noan noan ur-ertzetik \*aldatzean zear, gora ta gora, Aizurdi-mendi-sorbaldaganera.

Sei edo zazpi umekondo egozan artapedian: batean txilioka<sup>7bis</sup>, bestean soiñuren bat ioten, bestean orra edo ona... beti \*iolasean da zerbait egiten. Zaarrena zazpi-zortzi urte-inguruko neskatillatxu bat zan, eragiña ta bizkorra, edo, beren Amak esan eroana esateko, mutilla egiten asia. Onen urrengo bost urte ta erdiko mutil bat zan, beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana: au zan Aman kutuna. Aitak neskatilla zaarrentxuari egiten eutsan begi argiena. Esatea da, Aitan antzeko alabaak eta Aman antzeko semeak izaten direala seme-alabarik zintzo ta \*men da \*zoritsuenak. Au egia bada, Kose Kusto ta arrebea bene benetan zintzoak eta menak eta zoritsuak izan bear eben: alabea Aita bera zan; semea, Ama lakoxe arpegi-\*zabalkote, begi-urdir, buru-andi, arto-zale utsa.

<sup>5</sup> Arrazoi etimologikoak direla medio, beti z-z idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>6</sup> *Argi-mutil*, gaztelaniaz *portaluz*. Ik. *Bein da betiko*-k eraskin modura dakarren Azkueren Hiztegia.

<sup>7</sup> Jatorrizko argitalpenak (131.orr.) *batea* dakar.

<sup>7bis</sup> *Txilioka* 'garraisika'.

Neskatillea izaten zan beti nagosi: nai etxean Aitan aurrean, nai artadian \*aparika<sup>8</sup> edo maiñaka euren kontura iardue-  
nean. Mutillak ezaban gogoz eroaten bera nagosi ez izan  
bearra. Egun bi edo iru aurrerago negarrez Amagana ioan zan  
baten<sup>9</sup>, isilduta gero, Amari esan eutsan ea andi eginda nor  
izango zan zaarrago: bera ala Iñesatxu (au zan neskatillean  
izena) Amak barreka “Astokillo, esan eutsan, bera beti zaarrago”.

—Eskolara yuaten<sup>10</sup> banaz be bai?

—Eskolara yuanezkero, ez.

Eztakigu aurrerantzean zer gerta edo iazoko zan. Ordu-  
rarte beñik bein Iñesatxu zan Satikako ume guztien nagosia:  
dendaka edo dendarika iolastu bear baeben, bera izango zan  
saltzaillea; oillo oilloka iñarduezkero, bera izaten zan oillo  
lokea edo \*Amalokea; idika, bera zan itzaiña ta<sup>11</sup> itaurlaria;  
\*Eliz-inguruka, Abadea; aureskuka, Piela. Berba baten: neska-  
tillea izaten zan edozein iolasalditan guztien Buru; Kose Kus-  
to urrango; ta beste ume gaztetxuagoak batean burdi, bestean  
oillo, bestean \*erroskèra... Iñesatxuk nai ebana.

Kose Kustok Eliz-inguruka \*Txomin y Kolente kanta edo  
erezten<sup>12</sup> buru-utsik ibilli baiño naiago izaten eban aureskua

---

<sup>8</sup> Jatorrizko argitalpeank (131.orr.) *apariko* dakar.

<sup>9</sup> Jatorrizko argitalpenak (131.orr.) *boten* dakar.

<sup>10</sup> Jatorrizko argitalpenak dakarren *d̄s*-ren ordez *guk y jarri* dugu. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>11</sup> Jatorrizko argitalpenean (131.orr.), elkarrekin dator: *itzaiñata*.

<sup>12</sup> *Erezi* ‘kantatu, abestu’. Ez dator Hiztegian. Oker ez bagera, Azkuek sortu eta lehenengoz 1896-ean erabilia (Ik. Eusebio M.<sup>a</sup> de Azkue, *Parnasorako bidea*, Bilbao, 1896, 16.orr. —Jakiña denez, semeak berridatzi zuen aitaren lana—). Denbora luzez ibili zen Azkue gaztelaniazko *cantar*, *canto* etabarren euskarazko ordainen bila. *Euskal-izkindea*-n (1891), agian Larramendiren *otsaldi* ‘cantada, tonada’ buruan duela, *aotsaldi* ‘cántico’ eta *aotsal-ditu* ‘cantar’ eratzen ditu. 1896-tik 1900 bitartean, lehenbizi *erezi* eta bere eratorriez, eta 1898-tik aurrera, *eresi* eta bereez baliatzen da. Azkenik, 1900-etik aurrera *oiu* ‘canto’, *oiu egin* ‘cantar’, etab. erabiliko ditu. Bidez esan deza-



egiten iardu. Dantzan ezaban iñoiz gogait egiten: gogoa asper-  
tu baiño askozaz lenago gorputza \*eio edo nekatu ta ankaak  
\*soortuten iakazan. Ta bera zeinbat gogotsuago, beren arrebea  
ainbat \*nakarrago edo gogo bageago egoten zan. Aurrekua  
egitea zanean, Iñesatxu izaten zan Piela ta ganera Txistularia.  
Aurrekurako deia asiaz batera, nebea ain gogoz \*artasika  
ikusirik, isilduten zan, naikoa zala esan-da. Mutillak orduan-  
txe, len baiño bere alegintsuago, berak soiñua io ta berak  
dantzan egiten eban. Arratsalde atan beste onenbeste<sup>13</sup> iazo  
iak. Aurrekulariaren ekinaz<sup>14</sup> asarratu zan neskatillea; ta  
arako ota-suskurak<sup>15</sup> sutan txinpartak ataraten dabezan baiño  
bere zarratuago, asi zirean biak alkarri esaten:

—Arro putza.

—Gangarra.

—Mokoti.

—Negarti.

—Beeko zale.

—Baitta i barrix<sup>16</sup> Atorra zaar.”

Au entzun ebanean, atorra zaardunak seiña beeganean  
itxi ta ederrak emon eutsazan neba dantzariari. Onek besteari  
atorrako \*dindirri batetik oratu ta tarratada andi bat egin

---

gun, 1911 inguruan *eresi*-k eta erderazko *elegia*-k elkarrekin duten loturaz  
oharturik, *eresi*,... *poesia*,... adierazteko erabiltzen hasten dela. Ez zuen, beraz  
sekula onartu Arana Goiri-k 1896-ean sortutako *abes*, *abesti*, *abestu*,... saila.  
Nor gertatu zen “borroka” honen garaile esan beharrik ez badago ere, ohar  
bedi Azkuek ere jarraitzaileak izan zituela, Txomin Agirrerren lanetan, esate  
baterako, *erezi* etabarren adibideak erruz aurki daitezke.

<sup>13</sup> Jatorrizko argitalpenak (131.orr.) *oneubezte* dakar. -s- eta -z-ren arte-  
ko nahasketaz, ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>14</sup> *Ekin*, gaztelaniaz *insistencia*.

<sup>15</sup> *Ota-suskur*, gaztelaniaz *rastrojo de argoma*.

<sup>16</sup> Jatorrizko argitalpenak (131.orr.) *barriz* dakar, beste guztietan ordea,  
*barriz*. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

eutsanean, “ene kaderaak ariñ egizu”<sup>17</sup> esanda, arrapataka iges egin eban, arrebea atzetik iarraika ebalá.

Eldu zirean onetan soloetako langilleak; eta barre gogoz egin eben, ume biak alkarren \*leian arin aringa ikuseran. “Mariyena, atzetik \*dandarra dariyena” esan eutsan Amak Iñesari; ta onek kurrukaz da amurruz, atorrea erdi erditatik etenda, Aitari belarrira esan eutsan: “Aitta, Kose Kustok matxingarratza yan dau.”

Aitak orduan “Txotxo” dei egin eutsan dantzariari “Kose Kusto, ator ona. Kose Kusto, gero biyar gero ezaix”<sup>18</sup> etorriko gero Ipestarrera, Santiyago-eguna da baiña.”

Noiz edo noizko baten agertu zan Kose Kusto: \*atzekatu, nakar, \*gozaga, gogo barik eta esku biak \*sakeletan sartuta. Aitak, urreratu zanean, irri-barrezka kaiskarreko txiki bat emonda, ukabilla surretara eroanaz “ik, txotxo, matxingarratzak yan dozak”, esan eutsan.

Au entzueran asi zan barriro Kose Kusto igesi, ta etzan gelditu, beren osaba Batxi, solotik gora etorrena, ikusiarte. Onen esanen esanaz sartu zan aparitara.

---

<sup>17</sup> Egizue beharko luke. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>18</sup> Testuan araua *naz, az*, etab. den arren, *ezaiž* (131.orr.) agertzen da. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

## BIGARREN AGERRALDIA

### BATXI AZALETIK

Iru illebete aurrerago eldu zan Satikara gizon bat, amalau urte eukazanetik itxasoak austen ibilli ta beren barririk iñoiz bialdu ezebana. Etzan bera Satikarra. Amaika urte eukazala, Arratiako baserri batetik ekarri eben, ume zurtz gelditu zanean.

Turubia Satikako, emakuma \*egillea ta \*arrastaria, \*maratza ta \*gizagiña, Arratiarra bera, ta gazterik \*otsein edo ogipeko izatera etxetik urtena, zan gizon onen edo ume aren \*izekoa. Beren aizta alarguna il zala iakin ebanean, ioan zan iaioferri edo \*aizorrira; argi ta garbi \*antzau ebazan beren aizteak eukazan \*zor-\*arturenak; eta arek itxiriko ume zurtza semetzat artu ta beragaz bizi izatera Satikara eroan eban. *Batiste* zan ume au Arratiatik urteeran, *Batxi* biurtu eben illebete igaro-orduko.

Ordurarte Batxik egiñiko gauzaak lau berbatan esan leikez; bada neska-mutil gaztetxuak eta andra-gizon zaarrak, geienak beintzat, suetetik<sup>19</sup> kanpoan eztabe esateko gauza andiririk egiten: umeak gurasoakan da atso-aguraak seme-alabakan eukiten dabez, ez bakarrik \*elikatura edo ian-edana, baita entzutea

---

<sup>19</sup> *Suete*, gaztelaniaz *bogar*, *cocina*.

ta izena bere. Ume guztiak amalau edo amabost urterarte izaten dira Urlia edo Berendia-n seme alabaak; irurogei urte-tik gorako atso-aguraak barriz Urlia edo Berendia-n Aita ta Ama. Eurenez, ez batzuk ez besteak eztabe ez entzuterik ez izenik eukiten.

Batxin amaikagarren urtetik amalaugarrenerarteko gertaera edo iazoerak gitxik eukezan gogoan; andik aurrerakoak berak baiño bestek ezekizan; da nai-ta-nai-etzkoa zan, iakin nai ebazanak, berari entzutea.

Berari barriz (iñogaitik txarto esatea ezta ondo ta isillik egotea oba da baiña) beiñik bein arpegira ezarren, Batxi-guzur esaten eutsen; da beren esakera guztiak egitzat artu izaten eztireana, \*ezizenak berak agiri dau.

Lekeitioko kaleetan da Izpasterko Eleizaldean da Gartadako ingurumarietan ikusi ebenean gizon bat, arpegi guztia, ezpanak ezeze, bizarrez beteta; kaltza-iake lodi astunak eta narruzko oiñetako zoru-lodiak eta musturdun \*txota baltza ta alkondara-ordez ingeles-bandera-antzeko txamarra bat soiñean ebazala, nok esan baso-aizeak aren \*iaiotetxea arnasaz<sup>20</sup> bete ebenik? Zer dan arpegi sona edo argia ez eukitea! Batxi, barru barrutik beiñik bein, ezekian iñok nor zan, beren lengosu Kose Satikak bere ez. Arpegia ikusiaz beste bagarik asi zirean esaten: protestantea zala, eriotzaren bat eginda igesi etorri zala, masoi-arpegia eukala, pirata ibillirikoa zala, ta zer ez?

Lenengo barritan, diru asko ekarrela zabalduaz gora-bera, biotz bat ezin irabazi izan eban: amabost egunen barruan iñok baiño ezaun geiago egin ebazan, adiskiderik bat bere ez. Ain ze Lekeitiotik Murelagako bidean dagoan auzotegi baten, Oletan, \*Maiatz-Pazkoz egiten direan irugarren erromeri-egunean, Batxik, txapel-musturduna eskuetan ebala ta ingeles berba one-

---

<sup>20</sup> Jatorrizko argitalpenak (141.orr.) *arnazaz* dakar, beste guztietan ordea -s-z gertatzen da.

kaz Lekeitioko Arranegitar neskatiilla bati dantzarako mandatu eginarren —*Duyulaik tu dans uit mi*<sup>21</sup>—, neskatileak atzerantz oinkada bi eginda, lotsa andi-barik esan eutsan Batxiri: “Zer dakar beronek? Ezkara txakurrak, zaunkaka asteko.” Batxik lagun-aldrara ioan zanean, esan eban: “neskatilak eurak mandatu egin bear izango deuste, ni dantzan ikusteko.”

Andik illebetera, Donian-goizean, Izpasterter batzukaz ioan zan Lekeitioko enparanza edo plazara, aspaldiko ordez \*gona-dantzea ikusteko asmoaz. Beren isillik urreratu zirean lagun bi emakuma aurrekulariagana; ta eskatu eutsen, mesedez atara eiela dantzara Satikako *indianoa*. “Ene! Bakit nor dan, erantzun eutsen neskatileak. Orrako orregaz onako neu? Ontxe gogorrago! Diñuena egiya baldin bara, oba leuke orrek Elixapera<sup>22</sup> yuan da ur-berinkatu-ontziyan \*dzanga eiñ da gero Elixan<sup>23</sup> sartu.”

Itaundu eben gero Izpasterterrak nortzuk zirean \*birreskuak; agertu iakezan bi; ta esan eutsen, aurrekuko neskatilei Izpasterter mutillak dantzara ataratearren, mutillen kontura izango zala danentzako gosari eder bat, San Pedro-goizerako: ardao zuria, makaillaua piper da guzti ta ganera gaztaia edo iko *melaunak* edo zer edo zer. Neskatiilla geienak ontzat artu eben Izpasterterren guraria. Asi zan dantzea: aurreskuak ederto egin eban dantzaurrea; laguntzat atariko baserritarrari egin eutsan oi dan txeratxua, ta ordurarte guztia ioan ondo... Atzeskuak bere ezeban txarto egin beren egokia, ta txaloak bere entzun ebazan; baiña arako birreskuen erdian Batxi-guzur ikusi ebenean, txistu batak, txistu bestek, erdi-gortu eben Batxi gizagaisoa.

Neskatilean arpegia ikustekoa izan zan, Batxi urreratu eutsenean. “Zer? esan eban. Nora dakarre berau, Mariya Tala-

---

<sup>21</sup> [Azkueren oharra:] *Do you like to dance with me?*

<sup>22</sup> Jatorrizko argitalpenak (141.orr.) *elizapera* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>23</sup> Jatorrizko argitalpenak (141.orr.) *elizan* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

kon arpegi onegaz? Neuk orreri eskua emon? Bai tta zera be! Nik yantzarako eztot nai morokill-usaiñekorik, eskuetan \*ankilla pinttaua eukiarren; nik neu lakoxe arraiñ-usaiñekoa nai rot. Zer dakarre eurok? Onen ankaak \*itxu-soiñuan obeto yantzan egingo leukie.”

Bitartean geroago ta txistu geiago entzuten zirean.

Batxik, ingeleskadaak esateko gogo bagarik, gorri gorri eginda, iges egin eban dantza-tokitik.

Onetariko \*arrera txar asko egin eutsezan Batxiri.

Ta guztia zegaitik? Irudiagaitik; nor irudian ikusiarren; nor zan ezekielako; azal latza eukalako. Zein sagar garratz ezta azal onekoa izaten? Da zein sagar gozo, esaterako txar-bea, sagarrik berankorrena ta gozoena, ezta izaten azal-tximur \*ispilduna? Azaletik barrua ikusi nai daben begiak, sarri egongo dira illargi bagako gau illunetan legez.

Ikusi daigun, al daigun \*giñoan, Batxin barrua, azala ikusi dogunezkero: azala \*baltzerana eukan, begirakuna astuna; bekoki \*txordo edo illuna; ibilkerea, alperrak lanera eroaten dabena lakoxea. Azalez onezkero badakigu nor dan.

Izatez... urrengo agerraldian berak beren barrua agertuko dau.

## IRUGARREN AGERRALDIA

### BATXIN LAGUNAK

Batxin gertaera edo iazoeraak beren aotik entzutearren, gaurik geienetan batu oi zirean Satikan auzoetako gazte batzuk eta eurakaz batera atso-agura banakaren batzuk bere noizean noizean bai. Ara baturiko gazte geienak euken ezizentzat euren jaiotetxe edo \*oiñetxe-izena: Urabilla, Batiz, Eluntzeta, Urkitza, Beiña, Ikaran, Santa Kataliña ta besteren bat. Oñetxek zirean Batxiri lagun egiten eutsenak. Guztien artean sarrien lagundu, zeatzen iarraitu, izena goratu ta berba ta esakeraak ikasi ta zabalduten ebazana Urabilla zan: mutil galanta bera, baba-lastoa legez gazterik azia, dantzarako \*aurrerea, laietan da araketan da bedar ebaten ibilteko bere atzerea edo atzerana ez; gibel andikoa; \*goi-ariña, askon eritxian beintzat; eta egia esateko \*siñiskorregiak goi-arintzat euki bear badira, lumazko burua eukala edozeiñek esan zeikean. Batxi amar bidar aitatu-bagako egunik etxakon igaroten Urabillako \*morroskoari. Aspaldion ebillen Kapro, zorioneko Kapro, nor etezan \*aturau eziñik.

Batxiri zelan edo alan ikasi eutsan ingeles-kanta edo erezi<sup>24</sup> bat, *O Susanna* deritxona, goiko Amerikatarrena ta Ingla-

---

<sup>24</sup> Oker ez bagera, neologismo hau lehenengo aldiz Azkueren 1896-ko idazki baten agertzen da (Ik. *Jaungoikua eta Foruak*, Bilbao, 1896, 20.orr.) Cf. Hiztegiari, s.v. eresi, *canto, poema*. Ik. 12. oharra.

terrako itxasgizon geienak buruz dakiena. Beren modura euskeratu ta *O Susanna*<sup>25</sup> barik *Ai Kapro* izentzat ipiñi ta edonun erezi oi eban Urabillak: etxean da soloan, bakarrean da lagunartean, edonori aspertu eragiteko beste<sup>26</sup> bidar.

Batxiri entzun eutsan bein, Lebrefuelen<sup>27</sup> edonok erabilten dabela esku-ganean zer edo zer, taiu edo irudiren bat, narruan bertan ezarrita: itxasgizonak, ontzia nai ankillea; zapataria, oiñetakoa; laborari edo lugiñak, atxurra nai burdia, nai lurra landuteko beste tresnaren bat: bakotxak beren \*bizi-bidea ondoen iragarteko irudia.

Ta Urabillak Amari osturiko buruko orratz bategaz, \*sast! sast! odoldu eban eskerra<sup>28</sup>, Batxik ankillea legez, burdi bat idi-buztarri ta guzti antzeztuteko ustean.

Beren gurasoak \*txutxu egiten eben Batxigaz ebillelako: maian iezarten zan guztian, asten<sup>29</sup> iakazan batean Amama, bestean Ama, bestean biak batera, zirika zirika, lagunagaitik txakurrenak esaten. Batxin lengosuak bere bein baiño sarriago esan eutsan umeegia zala, aregaz burua bat egiteko; amazortzi urteko mutillak ezabela berrogei urteko mutil zaarrakaz batu bear. Zeinbat esanago ainbat biztuago egiten iakan Urabillari Batxiganako garra: suari gertaten iakana; txikia danean aizeak amata egiten dau, andia danean barriz bizkortu ta geitu.

Iluntze atan iñoiz baiño luzarago egon zirean Batxin lagunak berari itxaroten. Sei bidar gitxienez esan eutsen Urabillari, Batxin eske ioateko.

<sup>25</sup> Jatorrizko argitalpenean (155.orr.) azpimarratu gabe dator.

<sup>26</sup> Jatorrizko argitalpenak (155.orr.) *bezte* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>27</sup> [Azkueren oharra:] *Lebrefuel* = *Liverpool*.

<sup>28</sup> Arrazoi etimologikoak direla medio, beti *-s-z* idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>29</sup> Jatorrizko argitalpenak (155.orr.) *azten* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.



Esanen esanaz zuritu eben da ateraiño eldu zan; baiña Kose Satikari eutsan lotseak antxe lotu eban gure mutilkoa. Zelatean da adi gelditu<sup>30</sup> zan ate-ondoan, giltz-zuloan batean belarria, bestean begia ebazala. Ona emen berak entzuniko esataldia edo autua.

(*Kosepa-koipek beren koiñatu Batxiri.*) Maalen guria itxusiya edo ezaiña dala esan dabenari gorantziyak emon, Batxi. Surra<sup>31</sup> daukala alakua edo olakua! Surrak emongo deusk. Bai, egon ardura barik! Yuatia baiño eztago Doratio mandazaiñenera ardaudan, surra ederra daukala norberak-eta. Emakumiari biyotzera begiratu biar yako. Maalen guriak barriz, ez aitzia dodalako baiña biyotza iñok ez lakoxia dauko; ta sakela edo ziskua edo diru-zorrua... ikusi nai neuke zein arpegi ederdu berbaldunek dauken ugariyagua.

(*Kose Kustok Kosepa-koiperi.*) Ama: Iñesatxuk ontxe be azur da guzti yan dau kerixia.

(*Kosepa-koipek.*) Bakizu nor zarien zuek, batau ta bestiori? Atorra zaar da prakerre. Eta zueri antxiñakuena esan biar yatzue: "Atorra zaar da prakerre, asarre nintzuan bart bere."

(*Iñesatxuk.*) Beronek yaten dau ba edozer da edozelan, \*zurru ta purru?

(*Kosepa-koipek.*) Euk egin biar dona burua bat txikiyauagaz, ganera mutilla berau izanda? Euk? Urdaila baiño begiyak andiyago daukanazan yatun orrek?

(*Kose kustok.*) Onek barriz niri, atzo baiño lenagoko egunian, arto-zatiya kolkotik ostu neuri ta yan gero.

(*Kosepa-koipek.*) Bai, txotxo, onek edozer iri; eu az, eder ori, arto-zatirik asko-ta. Urrenguan ez kolkuan gorde, barrurago baiño. Yan, yan; mutillak buruan be estiak eukitten dabez-da.

<sup>30</sup> Kontatzailea ari den ezkerro, busti gabe, *gelditu* beharko lukeela dirudi. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>31</sup> Jatorrizko argitalpenak (155.orr.) *zurra* dakar. Honetan izan ezik, beste guztietan s-z agertzen da.

(*Kose Satikak.*) Kosepa, esan dot lenago be: bialdu ekidazuz umiok lotara, entzun biar eleukiezan atsokeririk asko entzun dabez eurok, da guk entzun nai eztoguzan umekeriak ugari entzun doguzalako. Tira, txotxo, lotara; bestela atzetik daroiaan makaillau ori katuari emongo yeutsat.”

Onenbestegaz<sup>32</sup> ioan zirean gora Ama-*seme-alabaak*<sup>32 bis</sup>: Kosepa Koipe, ume biari beso banatatik oratuta; Kose Kusto, begiak bustirik ebazala; Iñesatxu, musturtuta.

Ta arako Batxi ta koiñatua mai-ganera begira, isillik eta bakarrik, ate-zulotik Urabillak ikusi ebazanean, umeak gabaz legez, kantetan edo eretzten uxatu eban Kose Satikari eutsan bildurra; ta onetaraxe agertu zan eurakana.

Ona emen ingelesen *O Susanna*, Urabillak *Ai kapro* biurtua.

Ai Kapron alaba maittia lalaralala,

Ai geure Lusiana maittia lalala.

O Susana, oillotxua nok ni;

Ai Kapron alaba maittia lalaralala<sup>33</sup>.

Kosepa, Urabillan zaratea entzun ebaneko, goitik asi iakan esaten: “Buru-andi, iñori buruko miña egittera zek akar? Ez asko txarrago etorri azan bidetik atzera baiñua, miñ luziori; euk sur ederra badaukak, gordeik ondo, etxak iñor billa yuango-ta.”

Berba onek entzunaz, *\*susunkordan* gelditu zan mutil mandataria, zer-esan ezeziala.

Batxik orduan, urteteko gogotua egoala ez esatearren, lagunen batek zetako edo atako bear izango ebala atxakitzat ipiñiaz, iagi ta atera-bidea artu eban.

---

<sup>32</sup> Jatorrizko argitalpenean (156.orr.) *onenbestegaz* dator. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>32bis</sup> Guk zuzendua. Jatorrizko argitalpenak *Ama-seme-alabak* dakar.

<sup>33</sup> [Azkueren oharra:] *I come from Alabama wid my Banjo on my knee, / I'm g'wanto Lousiana mey true love for to see. / Oh! Susanna oh! dont jou cry for me. / I've come from Alabama wid my Banjo on my knee.*

Ate-<sup>\*</sup>brinbeletik kanporako egozala, Urabillak, beren buru-bagakotasuna agertuaz, lagunari belarrira berba onek esan eutsazan: “Batxi, gero... entzun dodaz gero kontuak. Maalen, e, Maalen? Maalen <sup>\*</sup>plautiri! Badakixu <sup>33bis</sup> zer diñuen?” On-bila, on-bila, <sup>\*</sup>bonbilla.”

—Nor iabilk on-bila, mutil, ez txar-bila bere? —Nik neuk... u, ara! egiya esateko, Alkatien aurrera eruan da be eztakitt ezer, diñuena baiño besterik: baiña Maalen-bonbilla esangotse, zugaz ezkonduen baldin bada.”

Eldu zirean onetan lagunakana. Euren artean iazo zana agertu-orduko, ondo izango da gauza batzuk oartutea: 1.<sup>a</sup> Batxiri Urabillak Aitari legetxez berba egiten eutsala: <sup>\*</sup>zuketan beti, <sup>\*</sup>iketan iñoiz bere ez. 2.<sup>a</sup> Batxik gazterik edo mutiltxutan Arratiatik urtenarren, Arratiarren antzera *mutila*, *iabilk*, *koipea*... berba egiten ebala, *mutilla*, *yabilk*, *koipia* Satikarren erara esan barik. 3.<sup>a</sup> Kosepa-koipek Urabillak esaniko guztia ederto aditu ta belarriratu ta gohoan artu ebala.

Guztizko arrera ona egin eutsen Batxiri lagunak. <sup>\*</sup>Anpor andi bi eukezan alkarren aurrean; da euretan iarri zirean, Batxi erdian artuta.

“Zetan gengoan atzo? Middlesbrotik Lebrefuelera ninoan, ezta?, esan eban Batxik.

—Batxi, erantzun eutsan Urabillak: Eluntzeta ezeizan atzo emen egon; da oba ixango da, zeuk nai bozu, txiki txikittatik astia.

—*Very well* <sup>34</sup>.

---

<sup>33bis</sup> Jatorrizko argitalpenak *Badakižu* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>34</sup> [Azkueren oharra:] Guztiz ondo. Gei onetan sartu bear genduzan oarrak [guk Obraren bukaeran alfabetikoki jarriak], urrengoa (sic) sartuko doguz. [*Gei*, gaztelaniaz *ejemplar*, *número*. Ez dator Hiztegian. Azkueren neologismoa, dakigunez, lehenengoz *Euskalzale*-n erabilia (Ik. *Euskalzale*, 1897, 1.orr.)].

## LAUGARREN AGERRALDIA

### UMETAKO IKASTEAK

*Very well* esanda gero, Batxi, pipea \*bedarrez bete ta zurezko \*arrast bat \*isiotakoan, \*edu onetan asi zan beren gertaera edo iazoeraak esaten.

“Badakizue, mutilek, zeri esaten iaken \*kuku-sagarra ta \*kuku-balea? Bada ni kuku-sagarra lako mutiko gorri gorritxua ta kuku-balea lakoxe \*tartain tartaine nintzen, Izekotxuk Satikara ekarri nendunean. \*Amaka urte neukazan. Nire gorputzek eta arimeak ezirudien amakakoak, batera iaioak bere ez: gorputzari ezotsezan iñok \*ainbatuko bederatzi urtetik gora; arimeari barriz amalau edo amabost urte edozeinek emon euskeozan. Izekotxu ta biok or bide zaarrea beera buruen otzara banagaz, sagarra edo gaztaina edo lurrak ekarrena salduera ioaten gineanean, arek zirean egunak! Gaur bailitzan gomuta dot: bagatoz \*etserantz beste batzukaz da abade bigaz \*topez tope egin genduen ortxe solo-\*goiengan; \*geitu ostien da asi iatezan *dotrina* guztie goikoz beera ta azpikoz ganera ta atzekoz \*urrera itendu ta itendu. Nik, ez neuk esatearren \*baie, utsik bere egin barik erantzun neutien. Abade batak (Jaungoikoak zeruen euki deiela) Aitearen

egin <sup>35</sup> euen arritute, Izekotxuk esan eueanean nik eneuela ordurarte eskolan oinik imini, nekien guztie zala sutondoan etsean entzun da ikesirikoa. Gero ni urrera ninoala, Abadeak Izekotxugaz luzero egon zirean berbetan. Eztakit zer esan otsien. Urrengo astelenean Lekeitioko eskola barrien sartu nendun Izekotxuk. Izen geizto asko ezarri ostezan mutil lagunak: Satika, Arrati, Batxi gurea (au zan, Izekotxuk Batxi gurea esaten euden <sup>36</sup>, da agaiti); baitē \*abotxa bere, ao txikie neuke-lako, esaten osten.

—Nik entzutia daukadanez, esan eban Urabillak, *bira-bira* be esaten eutsuen, Batxi. Bein erderaz *Kerdua* edo *Kredua* esaten zengozala *y la vida perdurable* esan bearrian *bira-bira perdurable* esan eizenduan da gero *bira-bira* maisuak eta guztiak.

—Eztakit ori, baie urte ta erdi (ingiru orixe) eskolan egin neuzanean, meisueri *birabira* emoten notsan, edo \*lau ta esku.

—Lengo egunian urte bi esan zenduan.

—Urabila, nai urte bi nai urte ta erdi, badakit beintzet urte bete baino asko geiago igaro etzana.

—Batxi, esan ia arako *esamiñetako* yazoeria, Alkatia ikaratauta geldittu zanekua.

—Gabon-eurrea zan. Odeiak \*egotzi-ala edur, ieusi zen egun atan; \*biregarrotan bere kolkokadea \*koiu (?) neuen orduen. Besteak baino belutxuago eldu nintzen eskolara. Meisuek, Izekotxuri mandatu bat bialduarren, uste euen enintzela ioango ta larri egoan. Eskolara sartu nintzenean, aren poza! Abadeari ta Alkateari belarrire zer edo zer esan otsen; da burutik beatzetara ondo \*aitu osten guztiek. Alkatea asi iaten lenengo lenengo; erderarik ezekien berak gitxi baino; baie

---

<sup>35</sup> Jatorrizko argitalpenak (165.orr.) *egi* dakar. Kasu honetaz kanpo, ez da ordea, testuinguru berean, honelakorik gertatzen.

<sup>36</sup> Batxi ari denean, bere lekuan maizenik *euen* agertzen da. Ik. Hitzazurrea, 3.3.

arrokeriegaiti, ala eztakit zegaiti, erderaz asi iaten. Nik barriz erdera ura legez ikesi neuen, da erantzuten asi nintzen \*zarta, zarta, zarta. Alkateak buruegaz baietz esaten euen beti; baie begietan igarri notsen: ezeuen nire erderarik ondo \*ulertu. Beste batzuk bere edozer itandu ostien: liburuak ezeukezanak bere bai. “On neure \*sanyia,” esan euen Abadeak, eta ortiko ta emetiko ingurumari guztiek arakatu eragin ostezan da uts baten koiu ezin izan nendunean, “yausiko az ba, polit ori; bestela, igarten bok, neugaz bazkalduko dok gaur” esanda, itaune auxe egin euen. “Nundik sartzen da Elizara?” Neuk neure artean: “emen lakioa dago.” Egon nintzen luzerotxu Alkate-makileari begire, guztiek egozan aoa zabalik neuk zer-esango; ta onelantxe erantzun neuen: “Eleizako \*gizategira bakotxek al deian lekutik sartuten gara; Eleizara bertara barriz Bataiotik: eztago beste aterik.” “Zelan izan leike ori?” esan osten berak; eta nik orduen: “Esate baterako, gizon batek sartu gure deu San Krispiñen anaikide<sup>37</sup> edo kofradien, da San Krispiñen lagun onek batu deitezala Goiko kaleko ardan-tegi edo taberna zarrean<sup>38</sup>. Onegaiti esango dogu ardantegi orretara doazan guztiek direala San Krispiñen anaikide edo kofradikoak? Ez. Eleizea bere anaikide bat da, eta batzarrak egiteko etse<sup>39</sup> andi batzuk deukiez, Eleiz-izenekoak onek bere. Doala bat etse<sup>40</sup> orretara. Elizan sartuta dago? Elizeagaiti batzartokie<sup>41</sup> edo gizategie artuezkero, bai; Elizeagaiti anaiki-dea edo alkartasuna artuezkero, ez. Eleizako anaikide orretan

<sup>37</sup> *Anaikida*, gaztelaniaz *cofradía*. Ez dator Hiztegian. Ez dugu hemen baino lehenago beste inon aurkitu. Cf. Larramendi, s.v. *cofradía*, anaikidagoa.

<sup>38</sup> Hemen izan ezik, beste guztietan *zaar* idazten du.

<sup>39</sup> Jatorrizko argitalpenak (166.orr.) *etxe* dakar. Ohar bedi hizketan ari dena Batxi dela.

<sup>40</sup> Jatorrizko argitalpenak (166.orr.) *etxe* dakar.

<sup>41</sup> *Batzartoki*, gaztelaniaz *lugar de reunión*. Ez dator Hiztegian. Iadanik Iztuetak erabilia (Ik. *Gipuzcoaco Provinciaren condaira...* Donostia, 1847, 51.orr.). Cf. Larramendi, s.v. *capítulo, sala o lugar donde se juntan*, batzarretoquia.

(benetako Elizan) sartuteko zer da egin bear dana? Bateatu.” Au esan neuenean, Abadea etorri iaten neu nengoan lekure ta \*mosu egin osten. Gero esan otsen meisueri: Au entzunezke-ro, zer geiyago entzungo dogu? Ni baiño geiyago az, txotxo. Ator ointxe neugaz esanda” bazkaritera eroan nendun.

—Batxi: emen diñue ze lengo eguneko esaeran arratsal-dian ixan ziriala *esamiñak*.

—Ori beste urteren baten izengo zoan, Urabila. Ni, ez neuk esatearren baie, lotsaturik nengoan. Abadeak ian bere gitxi egin euen \*egurdi atan: neuri begire egoan beti. Azke-nean eskupeko ederra emon da gero, esan osten (etxat eguno bere \*aiztuko) argiegia nintzela, ta iltea nai ezpanendun, esko-latik ainbat goizen urteteko. “Arimia geiyegi azi<sup>42</sup> yak, esan osten beren berbakeran, gorputza gitxiegi; ta itxi eikezak libu-ruok eta yuan ai itxasora, eta andi egiñarte, ez libururik gomutara ekarri. Andi egindakuan, neuk egingo aut, euk nai bok, Eleizgizon, neure kontura; urte bete naikua ixangok ik, bestiak sei edo zazpi urtetan egitten dabena egitteko.”

Izekotxuri esan notsen zer iazo iaten; da, ondo gomuta dot, biok alkarregaz ioan ginean urira urrengo egunean, esko-lako \*atarteragino. Ni beti' legez barrure ioan nintzen; da Izekotxu abadeanera. Meisuek (Markina-aldekoa zan bera) ikusi nendunean, asarrez aitu ta esan osten: “Batxi: edo eu, edo neu.” Ni isilik nengoan, zer zan enekiela. “Batxi oiñartekuek be naikue jituguk: edo eu maisu, edo neu maisu. Eskola baterako geixegi gaituk bi. Atzo lotsatu egin nenduan: ez juat geixago lotsatu nai.” Nik esan notsen: “Jaune, ba, Jaune, eztot uste geuze txarrik egin dodanik. —Geixegixa beti da txarra; geixegi ikastie be bai. Goguez kontra sarri ikesten izen dok: euk nai eztuala, buru andi sakon orretan gauza asko sartu dozak urte onetan. Dana dala: edo eu, edo neu.”

---

<sup>42</sup> Testu honetan hitz hau bitan agertzen da: honako hau (166.orr.) -s-z, bestea, berriz, behar bezala, -z-z. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

Onek entzun neuzanean, batetik Abadeak esanikoa neukan gogoan, laster ilgo nintzena; bestetik meisuek seme-alaba asko ta \*etorri gitxi eukezan; da etxaten eder egiten gizeisoari \*ogi-bidea kendutea; ta mutilek, zer egin neuela uste dozue? Txapela artu, ikusi-arte agur egin, ta gero Izekotxugana ioan nintzen. Eta eztot\*damu bere.



## BOSKARREN AGERRALDIA

### ITXASMUTILLETAN

“*Ondo eginen pagoa, atondoan paloa;*” baie egizu egileari bere esaten da ta nik beintzet eztot damu ondo egine: esan eban Batxik. Nik meisuegaitik egin nebana <sup>43</sup> (eskola-meisu izateari istea) egin ezpaneu, eneuen gero izen dodan zoririk eta adu onik izengo.

—Batxi, gero geldi geldi esan gero on datorrena, politta da-ta.

—Urabila, ez neuk esatearren baie, niri iazo iatezan geuzekaz liburu eundi bet egin lei. Apurren baten ibili nintzen arrantzale Lekeition, \*marie erdiko, lenengo egun batzuetan baino ezpazan bere. Sartu ta urrengo astean marie osoa emon ostien —gero esango dot zegaiti— eta geiago bere emoteko egozan, neuk arrantzuan lotu gure izen banau.

—Esan ia, Batxi, zegaittik urten zenduan, nai dan barria egin daigun.

—Itxasora-ostera abie-orduko, Izekotxuk, negue zala-ta, etxean <sup>44</sup> euki nendun iru-ilebete edo lauten. Ude barrie ondo

---

<sup>43</sup> Bere lekuan, Batxi ari denean, maizenik *neuen* eta bizpahiru aldiz *nendun* aurki daitezke. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>44</sup> Jatorrizko argitalpenak (172.orr.) *etxean* dakar.

eldute egoala, Doniane-aurretuen, Simon-gorri txalupen sartu nintzen, len esan dodan legez, marie erdiko. Neu geur legez sartu ta arik zortzi egunera atunetan asi ginean, edo obeto esateko egalaburretan; bada lurak lenengo lenengo dakazan ikoai \*ikolorak legez, itxasoak lenengo lenengo dakazan atunei, egalaburrek<sup>45</sup> esaten iake. Ta badakizue zegaiti?

—Batxi, esan eban Urabillak; emen diñue ze geu be ezkariela Otxandiyon yaiyuak, egalaburra ta egaluzia zertzuk dirian ez yakittek.

—Tire ba, tire ba. Badakizue, ezta? nik esan bearrik ezteukezue ta eurrera. Lenengotan loa neriola ioaten nintzen, baie gero, Abe Marie!! egunek txirrist egin-orduko, Batxi gora iagiten zan. Banenbilen da banenbilen, etseti kaira, kaiti munduen atzenara, munduen atzeneti kaira, kaiti etsera; ta olantxe ibili beti. Lenengo egunetan sartu-barrie nintzen da, maite nenduen baie, isilik ibili bear, zer ba? Baie gero txalupen etsekotu nintzenean, mutilek, guztiak egoten zirean neuri aora begire. Amuek lengoen orde z barriek asmeu neuzan, atunetako birrari edo \*firu sendoak baltzekotu neuk eragin notsiez; da beste onelangoxe asmo batzukaiti, nire besoak inder asko euki ezarren, marie osoa emon ostien. Simon gorri etzan pozik gelditu; bada semea euken, da semeak sei ilebete itxesoan eroanarren, marie erdiko baino etzan; baie tire... \*Auske bere sarri egin gendun Simon gorri semeak eta nik; baie tire... au bere ezta esakizuntzet artu bear.

—Batxi, zelan zan arako olezko atunena?

—Aotik kendu deustek atune, Urabila. Gizonak legez marie osoa ipini ostenean, esan notsen neure burueri: “Batxi —Zer?— Ik eztekok gizonak beste<sup>46</sup> inder besoetan; baie beste inder

---

<sup>45</sup> Jatorrizko argitalpenak (172.orr.) *egalaburrek* dakar.

<sup>46</sup> Jatorrizko argitalpenean (172.orr.) *beste* dator. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

batzuk dekozak ik. Gizonak gorputza nekatuten dauden<sup>47</sup> artean, ik burue nekatu bear izengo dok.” Asi nintzen orduen geure guztiek ondo aitu ta arakatuten. Beste geuze askotan barrireztasune sartu lei, baie asi<sup>48</sup> geizen lenengo ertz bateti: karnatati. Karnatea esaten dautse Bizkaian...

—Batxi, ezkariela Otxandiyotarrak.

—Baie, Urabila, au eztakizue: Donostien *beita* esaten iako emengo karnateari. Emen *malutea*, Arratien *mokoloa* ta *kapatxa* bere bai esten iako, atunek koixuteko amu-ertzean ipinten dan karnateari. Ta ementxe asi nintzen burue austen. Goizalde baten bat edo bi ezeze beste guztiok lo gengozala, *dapa*, bat batera itzertu nintzen da iretzartu neuzan lagunek. Mutilek, esan notsen, gure dozue biertik eurrera geur arte baino eun bider atun geiago artu? Konkortute egozan, au entzun ebenean<sup>49</sup>. Ames bat euki dot. Atunek koixuteko kapatxa edo maluten ondoan beste zerbait ipini bear zala, atzo buruek emon osten: burutasun onetxegaz loak artu nendun, da gero... baie artez berba egin bear da.

—Batxi, esan gero Simon gorrik esanikua be.

—Baite ori bere, Urabila. Gizonak, esan notsen, txoriek koiuteko, zein da biderik onena? txorie. Kaiola-txoriek kaiola-txoriekana, \*larratxoriek larratxoriekana ta txirrizkilek txirrizkilekana, lendik erreta ezpadagoz, itsu itsurik etorten dire: \*lika-puske bat adarrean ipini ta gero kolkora kaiolatxori ta larratxori ta txirrizkilek. Ezta egie? Usategi batera usoak urrunetik etorri deitezan, zein izaten da eroakarririk onena? Usoa: benetakoa edo antzeraturikoa. Ezta egie? Oiloak arreutzek

---

<sup>47</sup> Testu honetan, Batxi ari denean, euskara batuaz *dute* esango genukeena adierazteko, hirutan *daude* (behin *dauden* eta birritan *dandien*) eta behin *dabe* agertzen zaizkigu. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>48</sup> Jatorrizko argitalpenak (172.orr.) *azi* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>49</sup> Euskara batuaz *zuten* esango genukeena adierazteko, Azkuek Batxiri *eben*, *euen*, eta behin *euden* esan arazten dizkio. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

egiten asteko<sup>50</sup>, zein izaten da egikaririk egokiena? Arreutzea. Ta agaiti baserrietan \*abizarie iminten iako oiloari abien, eta bera izeten da arreutze utse karez baterikoa, eta alan oiloa igjerri barik legez aurreutzek egiten asten<sup>51</sup> da. Atunek koiuteko, zein dala uste dozue karnatarik onena, abizaririk egokiena? Mokoloa edo molutea? Ez. Zein bada? Beste atun bet.

—“Demonimes demonimesa” esan euen orduen Simon gorrik. Txo, Satika, lo dagozan gixonak onetarako iratzartu dozak? Uste dok itxasuan liorrian lez dala? *Mokoloa* diño berorrek, *mokoloa*. Zer dok ori? Surrak eriyonian dagozala lo eittia? —Baie Simon... —Zelako Simon? Satikako soluetan gariyak urteteko gariya ereitten dan lez, uste dok, atunak uretatik atarateko, atunak ereiñ biar diriala? Egalaburra ezta gero artaburua. —Simon, esan notsen, Simon: besterik ezpalitz bere, mokoloa edo malutea urrunetik ezin ikusi leike, atuna barriz, zurezkoa izan deitela ur-azalean egon daitean da *Santa-legua*-ti ikusiko leukie ta gero... —Egiya, esan euen batek. —Ezta egiya, guzurra baiño, erantzun euen Simonek.”

Eta alanik batak esan, besteak erantzun, eztabaida gogor bat euki euden<sup>52</sup>. Simon gorrik nire aldeko agurea zuritu ezin izen euenean, erramue goratu ta iotera ioan zan. Nik au ikusi neuenean, sartu nintzen euren artean, da esan notsen: gizonak, nigaiti eztot gure asarratu zaitezen. Banue ni. Auxe esanda, *blaust*, itxasoan must egin da \*urpe edo mustuger asi<sup>53</sup> nintzen. Gero iakin neuenez, guztiek arritu zirean, da baketu bere bai.

—Da etziñian itto, e?

—Esango ioat, Urabila. Atunetako txalupek, aizea eukiezkeru, aizea bera baino bere bizkorrago ibilten dire, burutasu-

<sup>50</sup> Jatorrizko argitalpenak (172.orr.) *azteko* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>51</sup> Jatorrizko argitalpenak (172.orr.) *azten* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>52</sup> Ik. 46. oharra.

<sup>53</sup> Jatorrizko argitalpenean (173.orr.) *azi* dator. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

na legez bizkor. Neu uretan sartu te batera, iaurtu eben txalupea neure bile. Nik ikusi neuzanean, eurei ikera bat emotearren, must egin neuen errirentz. Eldu zireanean, Simon gorri bera, zaarra izenarren, beragaiti must egin neuela ta, uretan sartu zen neure bile: beste gizon bi bere bai. Ni andi ia ordu-laurenera azalera urten da burue atara neuenean, nigan-di urrun egoan txalupea. Bat edo batek ikusi bear izan nendun, da itota urdaile puztute agertu nintzelakoan, neugana etorri zirean; nik bigarreanean bere must egin da ordu-lauren baino luzeroago urpe ibili ta burue agertu neuenean, etzan txalupea agiri. Orduen esan notsen neure burueri "Batxi: astiro astiro goazan." Uger da uger, A zan uger egitea! Egun da erdi barru eldu nintzen Bermeo-ondoko atxarte batera. Urabila, enintzen ito.

## SEIGARREN AGERRALDIA

### ZORGINDU EBENEOA<sup>54</sup>

—Batxi, esan eutsan Urabillak itto ez, baiña ikaratu edo estutu edo larrittu edo keixu ixan edo (eztakitt zer esan be ba) egingo ziñian orraitino?

—Urabila, bide-erdi-ingurure eldu nintzanean ol andi batzuk aurkitu neuzan, da, ez nekatuta nengoalako, gose nintzelako baino, euren ganean ordu ta erdi igaro iatazan.

—Zigarrotxu bat edo beste erreteko astiya ixan zenduan orretara-ezkero.

—Asto kokoloa! Zigarroa dinok?

—Ori baiño gauza andiyagorik entzun deusut eta...

—Enekién zigarrorik erreten, bestela nundik edo andik eskuratuko nendun<sup>55</sup> ori bere. Urabila, Lekeitiorako leia edo priesatxue dauket eta neuk esango dot esateko daukedana.

---

<sup>54</sup> Jatorrizko argitalpenak *zorqindue benegoa* (sic) dakar. Bestalde, arrazoi etimologikoak direla-eta, *zorgin* beti z-z idazten du. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>55</sup> Euskara batuaz *nuen* esango genukeena adierazteko, testu honetan Batxi ari denean, maizenik *neuen*, baina bizpahiru aldiz *neban*, eta beste hainbestetan *nendun* agertzen dira. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

—Berandu ezta izango Lekeitiorako, bederatziyak be ba dira-ta?

—Kokolo orrek, zer dinok? Oin enago Lekeitiorako, orduantxe baino. Onetara bagoaz, eztot inoiz amaituko ta ago isilik.

Banago zuren ganean, alkondarea erdi-usteldute neuken da, part! uretara iaurtigi nendun, da gizona, nok esango leuke? nire aragi zurie ikusi euenean, txibi-azurra zalakoan, ainbat tximini txiki etorri iatazan. Au zan bat, bestea ondiokarren andiegoa: bero berotan irakiten legez gelditu nintzen. Badakizu gero udako gauletan zelarik atsoak egoten direan *txut* orain, *txut* gero, nai ta bere lorik egin ezinik, ardiakaz egon ezinda? Onetaraxe nengoan ni zur-ganean lo-gure ta egin ezinik, ardien ordeztximinoiak *pik* orti, *pik* emendi egiten eustiela. Zeinbat eta artuago ainbet geiago etorten iatazan. Gordinik ian nendun bat edo beste, baie, mutilek, ezta ona. Ordurarte etxatan gogora etorri: neuk kaltzerpean neuken sue ta ez gitxi, ta zer egin neuken? Artu esku bategaz arrain bat edo bi, txikiak izanezkero, ta beste esku-aldeko kaltzerpean apurtxu baten euki ta egosita urteten ostien. Gauza gozoagorik ostatuen bere ez arean. Gaurrarte egongo nintzen ni bertan, baie etserako<sup>56</sup> gogotxue etorri iatan da goizaldean izarrari begiretu ta non nengoan gitxi bat gora-bera igarri ta tximinoiari agur eginde, geldi geldi, abuzil bat egurdi<sup>57</sup>-eurrean legez, erri-alderantza etorri nintzen. Amarrak zirean ni Lekeitio-ondora eldueran. Ni orduantxe sartu neitekean, baie neuk atara neuken kontua: “Batxi, alkondararik eztaukek, ire kaltzari onezkero kaltzerdiek imini lekioe izentzat, eta etxak eder egiten erdi-biloizik kalerik kale ioatea.” Ta zer egin neuela esango zeukie? Amaiak ioarte, ur-goreari kaian sartu-

<sup>56</sup> Guk zuzendua. Jatorrizko argitalpenak *etxerako* dakar.

<sup>57</sup> Jatorrizko argiltapenak *eguedi* dakar. Batxi ari denez gero, *egurdi* —ez *eguerdi*— zuzendu dugu. Ik. obraren azken aldean Azkueren Hiztegia, s.v. *egurdi*.

teko begira egoten direan ontzi andien antzera, ni bere eskolako mutiltxuek uger egitera etorriarte begire egon nintzen.

Agertu zirean eskola-mutilek alako baten, iaurtigi euezan txapelak gora goraka, ondartzera edo aretzara eldutakoan, da txapelak iausi zirean tokietan erantzi edo biloiztuta, bata baino bestea arinago uretara sartu zirean. “Ia Batxi, ortxe az ba” esan notsen neure burueri ta lau besakadatan, egin kontu, eldu nintzen euren urrera; must egin da must-uger sartu nintzen euren artean. Mutiko gaisoak! Aren ikarea ta izue ta estualdie! “Igarabiria, igarabiria dator” esanda, biloiz biloizik, egozan legez, ioan zirean mendiraino igesi. Nik orduan makur makur eginde, aretzara ioan da mutiltxuen alkondara bi edo irugaz neutzat bat eginde, uretan sartu barrero ta kaira ioan nintzen.

Eskola bateko ume, *Jesus abezean* dabilzanak, eztabe<sup>58</sup> esaten goiz osoan, ni ikusitakoan esan zirean beste *ene*. Atso guztiek egozan aitearen-ka, ta ene-ka. Ene semetxua! Illarra atzo ixan tzan aremaittaketan. Lekitto guztian zabaldu ra, Otoiyo lakoxe baloi andi batek iruntzi auana.

—Ene bara ta ni! Satikak neure semien alkondaria dakar soiñian, da egingo neuke baloiak iruntzi dabela neure semia be. Ene bara ta ni!

—Erdi koittaru ori, gurian, etxe probia-ra ta, Kaungoi-kuen graziya baiño besterik eztago baiña.

Zer egiten neban bere enekiala legez, eroan ninduan beragaz atso batek. Emon osten iaten, aldagarriak bere emon ostezan da lotara bialdu ninduen. Urrengo egunean neure elizkarietara ioateko egozanak neu ikustera etorri zirean. Edozein txalupa<sup>59</sup> iaubek eroan gure izen ninduen beragaz; baie

<sup>58</sup> Ik. 47. oharra.

<sup>59</sup> Jatorrizko argitalpenak (190.orr.) *txapula* dakar.



nik, neure alde urten euen agureari dei egin de, esan notsen: Ioane, nai zor nai lor, txalupe barri bet egin bear dozu. Aste ta erdi barru zorrak garbitu ta nai beste diru eukiko dozu. Zelanik, iakin gure izengo dozu? Egin deiguzan zurezko atunak sei edo zazpi. Guztia bere zer izango da? Amar errealen gora-beerea.”

Aste ta erdi barru, itxasoko atun guztiek geuri begire egozala esan zeikean. Mutilek! Beste txalupe zaar bat, Madalena-ondoan ustelduten bedartzan egoan bat, zelan edo alan azpi erdiekaz ipiñi ta arraina ekarteko geure atzetik eroaten genduen. Andiki bat ezkonduen<sup>60</sup> danean, zelan egoten dira alberrietako oilloak sanyea edo txandea artuten andiki-etsera<sup>61</sup> sartuteko? Alantxe egoten zirean atunek, geure amuetan kati-gatuteko astia artu ezinik. Eta beste txalupe guztiek utsik.

Zer esango<sup>62</sup> zeunkie egin ostela ni erritik kanpora bialduteko? Zorginek neukezala edo zorgine nintzela asmau ostien. Egun baten banator, itxaso-erdie atun biurtute neugez nekarrela, ta oina nasan (Nasa, erderaz *molle* (?) da, Urabila) imini neueneko, Simon zaarrak mutiko batzuri (onek orduko egozan txapelkada arria besoetan ebela) esan otsien: “Txo, bota ardura barik arri orrek Satikari arpegira, miñik ezteutse egingo ta, zorgiña-ra ta.”

Neure buruaz bakeak egiteko (bestela<sup>63</sup> nor edo nor ilgo neban) erritik kanpora iges egin bear izan neuen.

---

<sup>60</sup> Jatorrizko argitalpenak (190.orr.) *eskondu* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>61</sup> Jatorrizko argitalpenak (190.orr.) *etxera* dakar. Ohar bedi hizketan ari dena Batxi dela.

<sup>62</sup> Jatorrizko argitalpenak (190.orr.) *ezango* dakar.

<sup>63</sup> Jatorrizko argitalpenak (190.orr.) *bertela* dakar.

## ZAZPIGARREN AGERRALDIA

### BATXI IZENA OSTUTA

Batxi, esan eutsan Urabillak, zuk naiyago ixango dozu gugaz baiño neuk dakidan bategaz egon, da oba ixango da bakotxa beren abira yuatia.

—Urabila, zegaiti dinok ori?

—Esan-biarra dago? Maalen-plautiri sartun da zeuenian.

—Galduak gozak orduan. Ointxe ezin ioan neikek etsera.

—Zer ba?

—Zelan esan dot eskuz gura gaine arrain koiu neuzala, arako egun da erdien itxasoan egon nintzenean? Bada ordu-xean itxas-kabra andi bet etorri iatan esku-artera ta euxe agine-kaz da al neuen moduen ezarri notsan lepo-ganean, ezpi-ondo ondoan: 1864-BATXI.

Ta gizona, aitzuta neuken nik; eta goizeon, gaur gero, gaur goizeon banago Aizurdipean arrainetan, da *ara* ots baten eroan iaustek kordeleta urrun, amora emon nik beti, “euk gogaituko dok, arraine, nik baino lenago,” emon nik amora, errie errie errie; ta ordu-erdi garrenean, ito izengo dala uste izen dodanean, ala ala ala txakurre lango itxaskabra eundi ikaragarri bet koiu dot. Amue ataraten da zakatza austen

nagoala, begiretu dotsat lepora, ta nok sinistuko leuke ikusi barik? Ezpi-ondo ondoan, 1864-BATXI euki deu lepoan ezarrite. Ogeta amar urtean Batxin izena lepoan dauela itxasoak eusten ibili dan arrainari, nok esango otsen Batxin eskuetara etorri bear euela? Zakatza eusi ezpanotso, gizona, buztenganean ipiniko notsan neure izena ingelesak esaten ostiena: 1894-BASKISH; baie orduko il iat eta etsera ekarri-bearrean Iparragirreko Kosantoneri bialdu dotsat, txikitako lagune bere bada-ta.

—Orrek zer dauko zer-ikusi Maalen-plautiri ona etortiaz?

—Euki ez, ostera? Iparragirren sarri egoten dok ori, ikusiko ioan arraine, ta bertakoak uketu gure izenarren, arrainek antxe agertu izengo ioan nire izena, ta aor suak arturik etorri izengo de ori, berorrentzat ekarri eztodalako.

—Aulan bai. Orretarazkero Maalen or dagan artian, ezin etxera yuan zeikez, e?

—Eztok etxura.

—Orduan-a, Santa Kataliña, egon gaixan beste pixkaten, ontxe dator polittena ta. Batxi, Zumaiyarrena ta Ingalatierrakua ta Donostiakua ta eztatoz ontxe?

—Lelengo lelengo Zumaiyarrena, gero Donostiekoa ta gero Ingalaterrakoa ta alanik.

—Tira ba.

—Lekeitiotik zorgin-izena arrika lepoan ezarri-ostenean, ibili ta ibili ta ibili (orduen ez egoan bide barririk) Ondarroaraino enintzen gelditu. Nire ustea zan Donostiera eldu ta andi Frantziera edo norabait gizon egitera ioatea. Ondarroako zubire eldu nintzenien, ardantegi-batera sartu nintzen, zein zan Donostiera-bidea iakitera. Mutilek, arpegien igerri bear izen ostien dirurik eneukena; ta an egozan marinel batzuk esan ostien:

“Lekaittioko itxas-sapuu: ire urdailiin aspaldiyon ezta gauza andirik sartu ta beste ordu betiin jan barik baengo, abadii etorriko litzake oliaziñoiaz, da artuik ze o zer, il baiño lenago, geure kontura, koittau orrek.”

Mutilek, eztozu <sup>64</sup> Ondarrutarrak <sup>65</sup> langorik ikusi. Adiskide askok baino Ondarrutar arerio batek sarri mesede geiago egiten daki. Alkar ikusi ezinik egozan orduen Ondarrutarrak eta Lekeitiarrak, eta a ta guzti bere errukitu ta gura neuen beste sagardao ta ogi emon ostien. Ni orduen oker-samarra nintzen, da eskerrak emon-bearrean, badakizue zer esan notsien? “Agur, Apostoluek.” Eta au esanaz, arineketan asi <sup>66</sup> nintzen zubien zear. Atzera begiretu neuenean, bost ukubil ikusi ta zemai andiek entzun neuzan. *Zemaiek* esateko gure errien *amenazuek* esaten da.

—Lenago be ittandu neutsun Apostoluak zegaitik esaten deutsen Ondarrutarrai Lekeitiarrak.

—Ortozik sarri ibilten direalako.

Gau-ilunean eldu nintzen Zumaiara ta txalupa baten barruen lo egin neuen. Goizean goizeti eguzkiez batera ioan nintzen bonbo batera. Bonboa esaten da gure itxaserrietan Galiziarren *Falucho*, ingelesen *Vessel*-gaiti. Patroiekana ioan da esan notsen ia ezeuken nietzat ogibiderik. Nor da nungue nintzen itandu ostenean, enotsan esan gura izen Batxi Satika nintzenik, osterantzean eztakit zer iazoko zan-da. Txotxo-tzat artu ninduen. Iru ilebetean nik irepaziriko diruegaz Lekeitio barri bet Sati-kan egin leike.

—Lenago Bilbo esan zenduan, on Lekeitio.

—Gizona, asko gitxiago bere ez.

---

<sup>64</sup> *Eztozue* beharko luke. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

<sup>65</sup> Jatorrizko argitalpenak (221.orr.) *Ondarrantarrak* dakar.

<sup>66</sup> Jatorrizko argitalpenak (221.orr.) *azi* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

—Ainbeste diru zelan?

—Batetik *pleit* onak (gaur galdute dago *kabotajea*), bestetik *kontrabandue*. Urabila, nik orduen, neuk gura izenezkero sartuko nendun kontrabandue, sartuko nendun karabineruen begi begitik, eurak ikusi barik.

Bagatoz bein Baionati Donostiera ta laungoikoaren asareak, aberastasun larregi gura genduelako, putz eginda bota ginduzen Amen etsera<sup>67</sup>, itxasoen erdi erdira. Alakorik! Orduko aizetea ta ekatxa langorik eztau gizonen begik ikusi. Gure ontziek masta bi eukazan da biek zati zati egin euskuzan aizeak; da geure buruek osorik atara gura bagenduzan, zer egin bear izan genduela uste dozue? Artu urrezko erloio edo orduari ederrak eta, part! itxasora, artu diramantetzko belarrirakoak eta, part! artu eskuturretako baliotsuak ederren ederraz begiratu ezin lekioenak eta, part! Orduen itxasora ieurtigi genduzan aberastasunek emen pilotuta balegoz, beste munduren baten zagozela uste izengo zeunkie.

Ta au egin ezipagendu ondora ioango ginean. Urabila! Nok esango leuke nire mosuko bizar erdi-gorri erdi-uridin onei begiretute, nik onenbeste aberastasunegaz neure burue itxasoari erosi neutsela?

—Zelan etorri ziñean ba liorrera mastak zatitu eukiezkero?

—Ori etzan gauza gatxena. Aizea eukiezkero, edozer egin leike, baie guk aizerik ez. Gizonak ezekien zer-egin. “Ia Bizkai, esan osten patroiek, ia Bizkai, guk eztegu asmatzen nola demontre juun lezaken Donostira aize gabe ta arraunik ere gabe. Ia Bizkai.” Nik orduen esan notsen: “neuk esaten dodana egiten bada, ogetalau ordu baino lenago Donostien sartuko gara.” Neuk gure nebana egiteko esan ostenean, eskatu neuen iketza ta ezegoan, arrasta edo su egiteko *posporoa* ta

---

<sup>67</sup> Jakorrizko argitalpenak (222.orr.) *etxera* dakar.

eze goan. Gizonak, esan notsen orduen, zuek gurago izango dozue Donostiera ontzi erdiaz eldutea, ontzi osoaz itxasoan gelditutea baino, ezta?

—“Zer esanik ere etziok” erantzun osten batek. Bada (nik orduen) bada ontzi erdiegaz Donostiera elduteko, beste ontzi erdie erre bear da. Ezostien au ulertu, baie an egozan zortzi beso neuk esaten neuena egiteko, zabal zabalik.

Kareleko ol guztie kendu genduen lenengo, zatitu bere bai, ta zatiek zatiekaz zuzitu ta ezkotasuna edo ur guztie kendu, alkar igortziez su egin, da gero ipini genduen bela eeundi bet oerako txanoa legez beera begire. Eztozue inoiz ikusi, mutilek, komediantek Lekeitiora datozanean, zelanik ipinten daudien<sup>68</sup> Eliza-aurrean *globo* bat eta dingilizka iru edo lau katakuma; ta zelan sue egiten daudien, da ke guztie globoan sartute, globoa gora ta gora zeruetan ostendu edo ezkuta-arte katakumak lagun dabezala<sup>69</sup> ioaten dan? Geu ginean, egin kontu, katakumak; neu *komediantea*; ontzi erdie egurtuta sua egin da beren kea bela andi baten barruen sartute, zeruko aize-puskarik bere ezegoala, ziri zara ziri zara Donostien sartu ginean. Orduen patroiek ukabillaz belaunburue iota, “Txotxo: eo alde txarrekoa, eo Batxi Satika aiz i”, esan euen.

---

<sup>68</sup> Ik. 47. oharra.

<sup>69</sup> *Dauzala* beharko lukeela dirudi, dena den, ez dugu honelako —NOR (haiek) —NORK (hark)— besterik aurkitu. Ik. Hitzaurrea, 3.3.

## ZORTZIGARREN AGERRALDIA

### ARTZAINAK ASARRATU, GAZTIAK AGERTU

Donostiako iazoeraak esaten asi ta batera zarata bat entzun eban Batxik beren etxe-inguruan, eta isillik eta adi ta zurt egoan zer etezan ezekiala. Madalen Plautiri ta Kose Satika zirean atea edegi ta urten ebenak.

Batxi ta lagunak orduan, euren arnasea zurrust egiñaz, gerizea batu nairik, geldi geldi egon zirean. Arek ostendutakoan, Batxik etxeratu bere nai eban, ez bere bai... Baeteekian berak barruak zer eskatuten eutsan?

Koseparen ekiñak baiño Kose-ren astuntasunak ardura geiago emoten eutsan. Izan balitz bera esku-zabala... diruagako ain itsutua izan ezpalitz... diruaz edegiten eztan aterik, samurtuten eztan biotzik, baketu ta baretu edo iabalduten eztan aserrerik eztago ta etxeratuko zan; baiña... zer edo zer aaztu bailitzakion, beera begira ta atzazalak iaten egoan.

—Onan egoteko gara, Batxi? Goiazan, goiazan etxera ta lotara; ta nigaittik-i lorik egin nai ezpada be... guztia be zer ixango da ba? Biyar iru sermo entzun-biarra: bat Elixan, bi etxian: aor nun dirian iru. Etzi beste iru ta or konpon. Tira, Batxi, perretxikotu barik: edo atzera, edo aurrera. Ogei esanda yuango gara. Bat... bi... iru...

—Ogei, esan eban Batxik, irri-barrezka zutunduaz. Urabilla: umea gizonduteko, urte asko bear izaten dira; gizona umetuteko, gau bat izaten da naikoa.

Aurrera: datorrena datorrela. Urabila; io ate ori ta ikusiko dogu Kosepak zer dinoan.”

Lagunak orduantxe etxera bidea artu eben. Urabillak io eban atea ta auzoko txakur guztiak itzartu edo esnatu zirean. Kosepak ezaban itzartu zaneke ezaugarririk emon. Bigarrenan ots egin ebanean bere, txakurrak bakarrik erantzun eutsen. Irugarrenez atea io ebanean, agertu zirean eskerreko aldetik Madalen Plautiri ta Kose Satika.

—Iparragirren eidago ostatu ona: biar dabenak, antxe eskatu, esan eban Madalenek.

—Urabillak barriz destainaz erezi eban:

*Allegretto*

Ma-da-len      Bus-tu-ri-ko

as-ti-an      bi-ri-ttan      Bilbora

yuaten da      bo-ti-ka      gorrittan

Eta Madalenek: “Urabilla i nor azan badakik? Badakik toilla zer dan, itxasoko arraiñik bastuena? Axe baiño be bas-tuago az i.”



Urabillak lengo soiñuaz:

*Madalen Busturikok  
gabian gabian  
errondia darabill  
bere portalian.*

Onetan agertu zan Kosepa ta buruko zapia lotuten ziar-  
duala, esan eban.

Eztogula guk iñor biar: geu gara gu naikua. Orrutz!  
Iparragirrera egunez, da gabaz Satikara? Eztogu biar gabontzik.

Urabillak orduan astiro astiro ta burua okertuta:



Kosepak berari: Urabillako buru andi, orra banaiyatok,  
aurreko agiñ andi prantzes-txirritxirriyen agiñ andiyok kendu-  
ko dauadaz. Yuadi eure etxera, astoko; ta kantaiyok antxe  
eure arreba papu-andiri Batxik ekarririko kanta ganora bakua.

—Batxi isilik dago, esan eban Batxik berak.

—Baitta geure kortako idi ta txalak be ixillik yagozak.  
Entzun dozue Iparragirren daguala ostatu ona ta eztaukagu  
zer-esan geiyago. Kose, neu be eugaz naiyoiak, Madaleneri  
lagun egittera.

—Orrek esan nai dau ze (iarraitu eban Urabillak) emen-e  
Maalenegaittik euki dabela Batxi, lengusua dalako ez.

—Orrek esan nai dau ze i-lako umiak<sup>70</sup> dabillan gixona eztala gixona; ta eztabela ezkonduko asmorik artu biar, txori-abiyatan ibilli baiño.

—Aunetxek emon yeustak ontxe ogeta amaika esku esku-tik! Atzo be neugaz ebillen Batxi, araiñegun be bai, araiñegun-atxeti be bai; baitta astelenian be, arako Maalenen Ama neugana etorritta neuk dakidan gauza bat esan eustanian.

—Guzurra be berbia da, Urabilla.


—Da guzurra da, Madalen, atzo arratsaldian geurian egon ziñiala ta geure Amari zeuk esan zeutsala Batxik aureskua egitteko biyar, neu ixateko neskaak ataratekua; ta atara biar zirianian Elixapian egongo ziñiala zeu? Guzurra da?

—Lotsabaga lotsabagiori, ume gorri, baba-lasto, tentel...

—Urabillak orduan, txapela erantzita:



A - mo - to - ko Le - ta - fi - a



Ar - tu - a ta lu - kain - ki - a.

Esan geiyago be, Maalen. Bariak yaniko surra ta azpilldu-riko zakatza baneukaz, beste bat edo batek daukazan antze-<sup>71</sup> rik entzungo neukez entzutekuak!! Ezta Maalen?

<sup>70</sup> Testuhonetan kontatzailea nahiz Batxi ari direnean, pluralean beti *-kaz* agertzen da. Honako hau dugu Lekeitioko herria ari denean pluralean gertatzen den kasu bakarra. Ohar bedi **BB**-n lekeitieraz ere idazten duen arren ez duela *-kin* erabiltzen, *-kaz* baizik. Ik. **BB**-n 12. orrialdeako 12. oharra.

<sup>71</sup> Jatorrizko argitalpenak (310. orr.) *autzera* dakar.

—Txotxo: isillik ezpaago, musturreko bñ emongo deudaz txistua baiño ariñago.

—Musturrekuak? Esaten errezago ixaten da, Kose.

—Aor daukazak. Geiyago nai?

—Gero zeuk be arpegiya daukazu gero, ta neuk be ukabilla.

—Aor beste bat be.

—Gero zaarrago zara, baiña beste beiñ yoten banazu...

—Baitta beste birritan be, nai baldin badok. Geiyago?

—Batxi: testigu<sup>72</sup> ixango zara: iru bidar yo nau beronek lenengo.

Oratu eutsen alkarri. Emakumak txilioka, txakurrak zaunkaka ta arnasa-oska auskari biak ziarduela, atarietara erdi-iantzita urten eben auzoak.

—Matasa bat azkatutea<sup>73</sup> baizen gatxa edo zaila izaten da auska<sup>74</sup> edo burruka bat adierazotea, batez bere tartean emakumarik badabil. Ukabilkada asko ta berba iraingarriak ugari artu ebazan aizeak. Ukabilkada osdunen artean konturakoena Batxik, bakeak egitera ioala, Urabillagandik arturikoa izan zan. Kose Satika, Urabillak beste indar euki baleu, Urabilla-lako biren bildur etzan izango. Urabillak barriz euki izan baleuz Kose-ren maltzurkeriak, Kose-lako lauri arpegi emon al izango eutsen. Urietako erloio edo orduariak pisu astun bi dingilizka daukazala ibiltzen direan gizan, Urabillak bere beso banatatik Kosepa ta Madalen erdi-dingilizka eukazan, Kosegaz ekionartean.

---

<sup>72</sup> [Azkueren oharra:] Lapurdi-aldean *lekuko* esaten da, ta beste berba egokirik eztaukagunezkerok, auxe guztiok oitu bear genduke.

<sup>73</sup> Ez dugu zuzendu jakinen gainean egon daitekeelako -z-z idatzia. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>74</sup> Beste guztietan -z-z datorren arren, honako honetan jatorrizko argitalpenak (310.orr.) *auzka* dakar.

Nekez berezi edo alendu ebezan auskari biak. Batxik eroan eban beren adiskidea goiko bidean zear. Beste auzo guztiak gelditu zirean beste auskariaren inguruan.

Urabillak orduan, esker ona erakustearren, lagunari: Batxi, eztago ardurarik, esan eutsan. Satikan baiño obeto bizi izango zara Urabillan. Alkarregaz lo eingo gaur.

—Eskerrik asko, baia guztiak eztire i-lakoak. Urabilan txakurrik ezpalego, etsekoak eurek zaunke egingo leuskite; ta oba da bakea. Geurkoa edonon igaroko dot: biar Iaungoikoak argi egingo deu.”

## BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

### \*IRETARGIA BATXIREN BEGIETAN

Iretargi zuritan iatzi zirean bide barrira Batxi ta laguna. Eurak alkarri zer-esan andirik ezeukenezkero (bada Urabilla asten bazan zer edo zer isiltxurik erezi edo kantaten, bestea ezeutsan iarraituten), geuk euren ordez zerbait esan daigun.

Batxiren barrua azaldutea ezta dirudien baizen gauza erraza. \*Eguargiz \*aiñube edo toki \*laiotzean dagozan gauzaak, \*illartargitan bere illun egoten dira. Biotz asko iaio dira beti aiñubean egoteko. Beste batzuk barriz besoen \*eragikeran, ezpanen irribarrean da miiñeko berbetan, \*egiñenetan baizen argi ikusten dira.

Oraiñarteko agerraldietan Batxik eztau berba gitxi egin, beren arpegia ezauna dabe irakurleak; onan da guzti bere, eztau iñok esan al izango zelango biotza eukan.

Gure gorputzeko odola zanetan zear giblean sartu ta \*birien arnasa-gorabereaz beaztunaz batera bizi al balitz, gizon asko biotz bagarik bizi al izango litzakez: Batxi bai beintzat. Alako gizonakaitik, iñor benetan maite izaten eztabelako ta iñori gorrotorik eztautselako, sarri esaten da: "biotzik eztauko orrek."

Beste bular askotan barriz biotz asko bizi dira, lurrak gozatuteko euria ta eguzkia bear izaten dabezan antzera, negarra ta barrea bear izaten dabezanak. Esaten baiake gizon askori alargun bat bizi dala iru edo lau seme-alabagaz, \*arrenean, sukalde su bagakoaz, gauza berorik egun osoetan sabe-leratu ezinda... nai gizon basto ardantegi-zale batek emazte langille, maratz, \*berakatz-atala makillaka ausi ausi egiten dabela... nai txaltxu bategaz, seme bakarragaz legez, gozaro bizi dala agura iñor bagako bat, eta bera lo dagoala, motzaila edo ijitanoren batek txala ostuta, bizi-lagun barik gelditu dala... onako gauzarik entzunezkero, biotz askotatik begietara negarrak igoten dau. Entzun baleie barriz mutiltxu bati, sagar-lapurretan ibilli dalako, baserritar gizatoren batek iarraitu dautsala ta orduantxe eskua \*saputzean ezarteko eukala, larrapast edo laban eginda iausi zala gizatoa ta bitartean mutiltxuak iges egin al izan ebala... onakoetan biotz andiak ezpanetara barrezka igoten dau.

Eguraldi ta biotz \*aldakorrakaitik esaten da:

*Eguzkia ta euria  
Martiko eguraldia.  
Negar da barre  
txitxi-burduntzi*<sup>75</sup>.

Negar da barredun biotzak biotz andia dabe euren izena.

Biotz andiko geienak izaten dira onegiak, eta onegi geienak elduten dira *egi* orretara onak izan baiño leenago. Azalduko dogu au bere, Batxik eta lagunak euren isiltasunaz astituten gabezanezkero.

Biotz onegi guztiak eztira onak izaten. Neska zaar bi balegoz alkarri esaten "nor da gure artean gazteena," gazteen-tzat bat edo bestea eukiko gendukez, gaztetzat barriz ez bata

<sup>75</sup> [Azkueren oharra:] *Zuzu-burduntzi* beste batzuk.

ez bestea. Sarri izaten da gaztea gazteena baiño gazteago. Biotz ona beti izaten da onegia baiño ohea. Biotz onegiaz ona egiteko, aza orritsu buru txikidunakaz \*anabakea egiteko egiten dabena egin bear izaten da: bare ta \*marraskulo ta osterantzeko mamu txikiak ianiko ta eguzki sargoritsuak zimel-duriko orri edo ostoaak, \*mutuldu edo \*mutildu edo \*soildu. Biotz onegiak, ukatu bear dabenean bere, eztabe ezer ukatuten. Eurontzat egiñak dira batera datozen esakune onek:

*Kanpo ederra, etxean gerra.*

*Kanpo ederra, etxean bela.*

*Kanpoan eder, etxe-kalte.*

*Kanpoan uso, etxean otso.*

Urabillako morroskoa, biotz onegikoa barik, onekoa izan balitz, beren oe-alde bat eskiñitakoan Batxik aintzat artu ezeutsanean, auxe gitxi bat gora-bera esan ber eban: "Adiskidea, nigaz lo egin nai ezpadozu, nik ezin or zear lagundu neizu." Eta au esan bear eutsan, ez bakarrik etxeakoak arduratan eukazalako ta gazteentzat, batez bere, etxeako beroa ta argia, kanpoko otza ta illuna baiño egokiago direalako; besterik ezarren antxiñako esakune zaar onegaitik:

*Munduan nai dabena*

*luzaroan bizi,*

*oilloakaz oera,*

*txoriakaz iagi.*

Baiña Urabillak ezekian ezetzik esaten, da, txakurrak ugazabari legez, Batxiri zintzo zintzo lagun egin eutsan gau atan bere.

Berbetako gogoia eukan Urabillak, Batxik ezeutsan ez \*aurrerazpiderik ezta erantzuerarik bere emoten lagunaren esate geienari.

Lau edo bost bidar esan eutsan au: “Gero ni Alkatien aurrera eruango banendue, bakizue zer yaso dan: Kosek berak iru bidar<sup>76</sup> eskua ezarri deust.”

Iru bidar gitxienez beste berba onek: “Maalenek onezkerro esan dau beren artian: Urabillak daukaz erruak.”

Urruneko txakurren zaunkari egiten iakena egin eutsan Batxik bestearen esanai: iaramon ez. Baiña arako asi iakanean belarriak gozatu ta izena gooratuten, orduan Batxi gogoz adi egon zan.

Eztaigun galdu eurenik ezer.

—Zuk, Batxi, dana dakizu ta yakingo dozu iretargiya zegaittik agertuten dan batzuetan, gaur lez, arpegi andi andiyaz; beste batzuetan, abadiak mutil-neskatillatxuari emoten deutsen Garizumako txartela legez, atala kenduta; beste batzuetan barriz, zelan izaten da bedarra ebateko edo mats-batzeko \*makets edo \*gurguillua? alakoxia; edo gaztaiari egaletik kenduriko azala letxe mee mee, kako kako ta zuri zuri. Iretargiya bat ezta ba?

—Bat da iretargie, ta beti arpegi-biribilkote arpegi-andie; ezta inoiz bere argaldu edo makartuten, loditu bere ez, baie badakik zer egiten dauen? Eguraldi on ona, egun onetan langoa, dagoanean, adurre dariola, esaterako, egoten da geugana begire. Eguraldie aizetara nai euritara aldatu bear dan egunetan, aizea ta eurie zerutik datoza badakik eta iretargi papu-andie zerura begire geldituten da. Ta gero guk arpegi erdie baino ezin ikusi. Ulertu dok? Esaterako, neu naz iretargie ta iri begire naiagok, eta ik niri arpegi guztie matraile biekaz ikusten deustak. Aditu edo begiretuten baioat barriz Iparragirrera, ik orduen nire arpegi guztie ezin ikusi izango dok, surra ta alderdi bat baino. Zegaiti? \*Biredea emon dodalako. Bardin iazoten da zeruko arpegi-andigaz.

---

<sup>76</sup> Jatorrizko argitalpenak (318.orr.) *bedar* dakar.



—Eta zelan da iretargiya beti geuri begira egotia? Itxasondora bagoiaz, itxasondora bera be; mendira yuanezkero, bera be mendira; ta ni Elantxobera banoia ta zuk Motrikura yuan nai badozu, alda edo era batera yuango da nigaz Elantxobera ta zugaz Motrikura. Andiya ezta au?

—Ezadi arritu: andiegorik ikasiko dok, nigaz baabil. Bada-kik zegaiti dagoan ibiltaunari begire? Bateti eztok ori logure izaten, egunez lo egiten dauelako: iretargieri esan leio zeruko *serenoa*. Bestetik kontu egin deigun odei-ertzean<sup>77</sup> doala ontzi aaaundi bet; eta i agoala ari begire. Ontziti i ikusi al izanezke-ro, esango leukee euren artean: “Mutilko orren ikusgurea! Geldi geldirik dagoala, orren begie beti dago geure ganean.” Urabila, ik eztakik ingeles-berbetea ta agiri da: ingeles libu-ruek dinoe ze iretargiek adikune edo begirekune bategaz ikus-ten dauela lurreko ta itxasoko une andie; ta une orretan dabilzan gauzek ikusteko, eztaukela zirkin egin bearrik. Uler-tu dok? Euk ontzie dabilela ikuseran, burueri eragiten deutsak, a ordu erdien ikusteko? Ez. Txori bi bide baten pekorotz-arte-ko artagaraunek iaten dagozala, inok arririk ieurtiezke-ro, bata bateti ta bestea besteti doazanean, ire begiek batzukaz Elantxobera ioazak ta besteakaz Motriku-aldera, eztok egie? Bada iretargiek, gu ikusteko, eztau zirkin egin bear.

—Eta une orren ertzera elduezkero, iretargiyak zirkiñ eit-ten dau, ala atzia ikusten yako?

—Zelan dan: batean zirkin egiten deu, bestean atzea ikus-ten iako.

—Zeuk ikusi deutzazu sekula?

—Madaleneri arpegie baino sarriago bai.

—Madalenen arpegia! A ze ikustekua! Bariak yaniko surra, plautiriyak \*sakatzetan, belarriyak udan be azkordiñ edo ozpel-eske, agiñak iñori kenduak dirudiyenak, begiyak barriz txalena

<sup>77</sup> *Odei-ertz*, gaztelaniaz. ‘horizonte’. Azkueren neologismoa?

bata, katuak egunez eukitten dabezan lakoxe txiki betule bakue bestia. Arpegiya da a?

—Egon adi, neurea esan daidan. Iretargien atzea ikusi etedodan? Nik ikusi eztodan gauzarik eztago.

—Neuk be bakit ori.

—Banaioak bein (Inglaterrako *Upland*-en zan au: gero esango deuat *Upland* zer zan) banaioak, ioan, da ioan, da ioan, eurrera beti, ta beti iretargieri begire: amakak (gaube-koak) io ta Batxi ibiltan, io amabiek eta Batxi eurrera, io ordu batak eta ordu biek eta irurek... eta Batxi Amaren atzetai \*akitika dabilen txaala baino bizkorrago. Bildur nintzen \*albi-zarra amata edo itzali ta bera ostenduko eteiaten; baie Batxi bereagaz orduen bere urten euen. Urabila, badakik zelan egoten dan \*laratzuti beera dingilizka, esnea egosteko maskilotxue, barruti garbi garbie ta kanpoti kez da kedarrez edo \*i-iutukoz baltziturikoa? Alangoxea da iretargie: aurreti argie, atzetai gabaren Ama.

—Iparragirrera yuanezkeko, ikusiko litzakiyo atzia?

—Eztot uste; baie euk gura dok eta eurrera.”

Eta gure biotz andikoa ta biotz bagakoa Iparragirrera ioan zirean: bata iretargiari garondoa ikusteko \*leian, bestea Iparragirreko neskatilleari arpegia ikusteko gogotan.

## AZKUEREN HIZTEGIA

*Abizari*, *abiondoko*: biok esaten dira bai Bizkaiko ta bai Gipuzkoako erri askotan, oilloari, arrautzak<sup>1</sup> egiten asi<sup>2</sup> eragiteko, ipinten iakan arrautzeari.

*Abotxa* sardiña-antzeko arrain txiki bat da. [Hiztegian, s.v. abotx, *agnacio*].

*Agerraldia* ta erderazko *capítulo* (baita *escena* bere) bat dira. [Ez dator Hiztegian. Azkueren neologismoa.]

*Ainbatu* ta Markiñarren *antz emon* ta Gipuzkoarren *alde alde bota* ta erderazko *tantear* edo *calcular* bat dira.

*Aiñube* (b), ta *laiotza* (g) eguzkirik sartuten eztan tokiakaitik esan daroaguz.

*Aitu* *aditu*-n ordezkoa da: Txorierrin da Arratian *begiratu* esan gura dau; Gipuzkoan barriz *amaitu* edo *bukatu* edo *atzendu*. Bizkaiko berba bik (*amaitu* eta *gogaitu* dira eurok) Gipuzkoarren *aitu* au daukela esan leike. Baita *ulertu* edo *entenditu* (??) esateko bere<sup>3</sup> ekanduten dogu berba au.

*Aizorri* esaten eida Oñati-aldean *aiterri* edo *asaberri* edo *iaioterri* esateko. [Ez dator Hiztegian.]

*Aiztu* Arratia-aldean *aaztu*-n ordez esaten da.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko argitalpenak (173.orr.) *aurratzak* dakar.

<sup>2</sup> Jatorrizko argitalpenak (173.orr.) *azi* dakar. Ik. Hitzaurrea, 3.2.

<sup>3</sup> Jatorrizko argitalpenak (166.orr.) *bera* dakar.

*Akiti* da txal nai idizko nai moxal edo txikoen brinko edo i-utia. *Albizarra* askoren miñean goizeko izarra edo *argi-izarra* edo *artizarra* da.

*Aldakorra* da sarri aldatuten dana.

*Aldatza* ta *aldapa* ta *erripe* ta *aur* da *gain* bardiñak dira. *Aur-gora* ta *aur-bera* Bizkaian toki askotan esaten da; *gain-gora* ta *gain-bera* Markiñan, Oñatin da Zegaman; *aldatza* ta *aldapea* ta *erripea* Bizkai ta Gipuzkoan.

*Aldauri* esaten da Mundaka-aldean uri baten inguruko auzotegiakaitik; Markiña-aldean *errebala* (?).

*Amaka* (Arratian da Txorierrin), *Ameka* (Zuberoan) da bestean *amai-ka* bardiñak dira.

*Amaloka* [gallina clueca] esaten da Markiña-aldean *oillo lokeagaitik*.

*Anabaka* esaten da lapikokoa egiteko ortuariakaitik.

*Ankilla* (b) ta *aingura* (g) erderaz *ancla*.

*Anporra*: Bizkaiko *anporra*, Oñatiko *enporra* ta Gipuzkoako *enborra* bat dira.

*Antzau* Markiña-aldean esaten da, gauzaak euren lekuruatuz, gela nai etxe bat iasean ipinteari. Mundaka-aldean *taintu* esan oi dabe.

*Antziar* edo *antkiarra* (sic) esaten da Bizkaian da Gipuzkoako Goierriin erderazko *escarcha*-gaitik. Oñati-aldean *brisa* bere esaten dabe. *Antziarra* edo *antxiarra* nunbait aize otzagaitik bere esaten da: erderaz *matacabras*. [Bere ordez Hiztegian *antzigar* dakar.]

*Aparika* esaten da Markiña-aldean, *maiñaka* Lekeitio-aldean umeak iokoa edo iolasean ibiltari.

[*Arakatu*:] Arratiarren *arakatu*, bizkaitar geienak *aratu* esan daroagu; ta erderazko *registrar*, *escudriñar* esan gura dau. Gipuzkoan askok *arakatu* erderazko *despreciar* adierazoteko oituten dabe.

*Arrasta* esaten eben aldi baten Ondarroan beste erri batzuetako *suprametxa* (?) ta *lumen*-ordez. [Hiztegian *arrast* dakar 'fósforo'.]

*Arrastaria* da nekazale edo nekazari beargin utsa, beti zerbait egiten ibili bear dabena.

*Arreanean* bizi da estu, edo etetean, edo apapuan, edo guztia bearean, edo *miserian* (?) bizi dana.

*Arrera* ta *aurmen* da *txera* esaten dira Bizkaian erdaldunen *acogida*-gaitik. *Artasika* (Markiñan), *jaikika* (Oñatin), *ipurturtika* (Markiñan), *brinkoka* (?) ta *saltoka* (?) ta *gora-goraka* erdi bardiñak dira. Abereak saltoka ibiltuari batzuk *i-iutika* edo *ijutika* esaten dautse, beste batzuk... dakienak esan beie mesedez.

*Arturena* batzuk, *artzekoa* beste batzuk esaten dabe, zoorrean emoniko zerbaigtaitik. *Arkiña* esaten dabe barriz nunbait, zoorrez beterik eta zoorrak garbituteko uste bagarik diru-eske dabillegaitik.

*Atarte* (Arratian), *atari* (Bizkaian eta Gipuzkoan), *etartea* (bizkaitar batzuk) ta *atalondoa* (Gipuzkoar batzuk) bardiñak dira.

*Aturau* Mogelek dakar, buruan sartu edo gogoan artu esateko.

*Atzekatxu* eta erderazko *retraído* erdi-bardiñak dira.

*Aurrerazpide* erderaz *aliciente*, *attrait*. [Hiztegian bere ordeaz *aurrerapide* dakar.]

*Aurrerea* ta *azartua* edo *azarria*, ta *urtena* edo *irtena* edo *ertena* batera datoz.

*Auska* esateko Oñati-aldean *autsak batu* esaten dabe; Txorierrin *erreietan*, toki askotan *burruka*. *Ukabilka* ta *muturka*, iotea bada; bestela, bera botatea, azpiraketea makurrean, da beste izen batzuk daukaz. [Ez dator Hiztegian.]

*Baie* Arratian gure *baiña*-gaitik esaten da.

*Bakotxak beren* (edo bere) *opilari su* (Mogelek eta Txorierrin da Araban bere bai), *bakotxak bere opilari gatz* (Markiña-aldean): esakune onek esan gura dau noberak noberentzako alegiña egiten dabela gauza askotan.

*Baltzeran* (b), *Beltzeran* edo *beltxeran* (g) erderazko moreno da. Gauzai *baltzizkak* deritxe.

*Baratza* ta *maratza* ostetuak dira. *Baratza* da gizon edo emakuma geldia, alper-samarra, ganora gitxikoa. *Maratza* barriz eragina, langillea ta ganoraduna. Esaten da *baratza* erderazko *jardina* gaitik bere.

*Bedar* edo *pipa-bedar* esan oi dabe pipa-artzaillak tabako-orriagaiti.

*Berakatz-atala* gizon nai emakuma zintzo, maratz, langilla, etxera-koiagaitik esaten da. [Ez dator Hiztegian.]

*Biredea* ta *biradaa* bardiñak dira: erderaz *evolución*, *evolution*. [Ez dator Hiztegian.]

*Biri* (b), *birika* (g), erderaz *pulmón*, *poumon*.

*Birigarro* edo *biregarro* txori ezauna da, malviz.

*Birreskua* esaten iako Txorierrin auresku ta atzeskuen ondokoai edo dantzarako lagunak ekarri bear izaten dabezanai.

*Bizi-bidea* ta *ogi-bidea* eztira bardiñak: lenengoak erderazko *estado de vida* esan gura dau, bigarrenak *profesión*.

*Bonbil* esaten da Donosti-aldean erderazko *botella*-gaitik; eta gora begirako musturdun morko edo murko biribil lurrezkoagaitik besteok esan arrren, Donostian legez edozein *botella*-gaitik esan bear litzatekeela esan leike.

*Brinbelak* erderazkoa dirudi; baiña toki guztietan esaten da atezazpiko arri edo zuragaitik.

[*Dandarra*. [Ik. *dindirri*.]

[*Dantza-toki*:] *Ibiltokia* esaten da Oñatin *dantza-toki*agaitik.

*Dindirria* esaten da dingilizka edo dandilizka edo zinzilizka dagoan gauza bategaitik: Surretatik dingilizka egoten dan *okarana* ta oial edo soineko maiztuak daukazan *zertzenak*, *dindirriak* dira. *Zertzena* ta *dindirria* (Lekeitio-aldean), *ilbitza* (Arratian), *altzi* (Arabán, Markiñan ta Txorierrin), *pistiña* (Txorierrin), *pristingia* (Arratian), *litxa* ta *listua* (Gipuzkoan). *Dandarra* bere euron antzekoa da: andiangoa izatea ze.

*Dzanga* (Lekeitio), *must* (Mundakan), *murgil* (Gipuzkoan) buruz uretan sartutea da. *Muxean* (Markiña-aldean), *luzean* (Lekeitioan), *ondoigiri* (Oñatin), *mustuger* (Txorierrin) esaten iako uretan barruan igiri edo uger egiteari.

*Edu* (b), *era* ta *giza* ta lapurtarren *eredu* antzekoak dira.

*Egillea* esaten dabe bizkaitar askok *langille* edo *beargiña*-gaitik.

*Egiñena*, erderaz *el acto*, *l'acte*.

[*Egotzi*:] *Edurra* egotzi (Arratian), *edurra erakutsi* (Markiña-aldean), *elurra eratzi* (Gipuzkoan) esaten da beste toki batzuetako *edurra iausteagaitik*.

*Eguargiz* da *egun-argitan* bat dira.

*Egurdi* (Arratian), *eguardi* (Tolosan), *eguerdi* edo *eberdi* (Lekeitio), *eberdi* (Markiña-aldean) esaten da *eguerdia* esateko.

[*Eio*:] *Gorputza eio* (Gipuzkoan *ler egin*, Oñatin *malkartu*, Bizkaitar askok *abaildu* edo *adikatu* edo *arikatu*, Lapurtarrak *unatu*) nekatuteari esaten iako.

*Elikatura* esan eroen antxinako bizkaitarrak lapurtarren *otrontze* edo *oturuntza* edo erderazko *mantenimiento*-gaitik. *Elikatu* ta erderazko *mantener* bat dira. Zaarren batek esaten eidau gaur bere.

*Eliz-ingurua* ta *Eliz-ondoa*-k batera ioten dabe. Ganera *Eliz-ingurua* (Arratian, Oñatin ta Mungi-aldean) erderazko *procesión*-en ordez esaten da; Marķiña-aldean barriz *Eliz-jira*, Txorierrin *Eliz-biredea*.

*Eragikera* ta *zirkin*, erderaz *movimiento*, *mouvement*. [Hiztegian bere ordez *eragiera* dakar.]

*Etorri* asko ta *etorri* gitxi esaten da irabaziakaitik.

*Etsea* esaten dabe Bizkaiko toki askotan *etxea*-gaitik, gipuzkoar batzuk *itxea*.

*Eurrera* esaten dabe Gernika-aldean, Txorierrin da Arratian, *aurrera* esateko: *au*-n ordez *eu*, ta *ai*-n ordez *ei* esaten dabe.

*Ezizenari* batzuk *gaitzizena* esaten dautse, beste batzuk *izengoitia*. Beste batzuk barriz *izengoitia* esaten dabe, ez erderazko *apodo-*-gaitik, *apellido*-gaitik baiño, ta beronelangoak dira *goizena* (Arabian), *abizena* (Abandotar batek polito asmaua), *lombrabidea* (??) (Izpasterren da inguruetan)... beste izenik dakianek egin bei mesede bialdutea, zein erritan esaten dan agertuaz<sup>4</sup>. [Zenbait orrialde geroago honako hau erasten du:] *Izen gaizto* (Arratian), *gaitzizen* (Gipuzkoan) da *ezizen* (b) bat dira.

*Firua* Arratian da Bilbo-ondoan ariari esaten iako.

[*Galdatan*:] *Eguzki galdatan*, *lamatan* da *bero berotan* bat dira.

*Gardean* begiak esaten iake amurruzkoai. Eztakigu zer dan *gardea*.

*Geitu* (Arratian, Txorierrin...) ta *deitu* bat dira.

*Giñoa* ta *neurria* alkarren antzekoak dira: erderaz *proporción* da *medida*.

*Gizagiña* edo *gizagille* zer dan iakiteko, irakurri bei gei onetakoxe ipuin bat: *Andra gizagiña* [(*Euskalzale*, 1897, 143-144) Hiztegian, s.v. *gizagin*, *mujer que cuida bien al marido*.]

*Gizategi* esaten dabe batzuk *sala* edo *salón* esateko. [J. A. Moguelen neologismoa.]

<sup>4</sup> Esan gabe doa abandotar hori Arana Goiri dela. Ohar bedi, bestalde, hemen ez dela *deitura*-rik ageri.

*Goi-ariña* ta *buru-ariña* bat dira.

*Goiena* edo *burua* (Arratian da Txorierrin) ta *guena* (Markiñan da Gipuzkoan) *barrenen-ostekoak* dira. *Udaguen* ta *udagoien* edo *udazkena*.

*Gona-dantzea* emakumen aureskuari esaten iako Oñati-aldean.

*Gozaga* ta *gozotasun* *baga*, *bardin*.

*Gurguilla* ta *maketsa* bat dira: erderazko *hoz*, *faucille*.

[*laiotetxe*. Ik. *oiñetxe*.]

*I-iutuko* Deustu-aldeko zaarrai entzunikoa da *kedarre* edo *gedarrearen* orde. [Ez dator Hiztegian.]

*Iketan* da *iteketan* da *itano* berba egitea bat dira: *zuketan* ez egitea.

*Ikolorari* batzuk *astapikoa* (Markiñan da Oñatin), *uztapiko* (Arabian) esaten iako. *Uztapikoa* andiagoagaitik batzuk esaten dabe.

*Illartargi* Gipuzkoan esaten da illargiaren argiagaitik.

*Iolas* edo *jolas* (Bizkaian eta Gipuzkoako Goierrin), *josta* (Gipuzkoako Beterrin) da *olgeta* (?) bat dira.

*Iretargi* (b) ta *illargi* (g) bat dira.

*Isio* ta *ixio* ta *isetu* ta *irazeki* ta *eresegi* ta *biztu* edo *piztu* bat dira.

*Ispilla* ta erderazko *pinta* bat direana, lenagoko gei baten agertu zan; *ispil-duna* da *ispillak* edo *pintak* (?) daukazan edozein gauza nai bedarki<sup>5</sup> nai abere. [Ez dator Hiztegian.]

*Itsu-soiñuari* batzuk *orripekoa* esan oi dautse. [Ez dator Hiztegian.]

*Itzaltsua* ta *gerizpetsua* edo *kerizpetsua* ta *aiñubea* batera datoz.

*Izeko*: Bizkaitarren *izekoa*, Gipuzkoan *izeba* ta Nafarroan *izoa* da.

*Karatxa* edo *karaitza* ta *kare-arria* bat dira ['piedra caliza'].

*Koiu* esaten da Arratian, *koixu* Txorierrin, Bilbo-ondoan *koixidu*, *antxitu* edo *arrapau* esateko. Itxaserri batzuetan (Bizkaian da Gipuzkoan) arraiñetako *birrariak* (ari sendoak) batu edo bilduteagaitik esaten da *koiyidu*. Erderazko *coger* ete da?

<sup>5</sup> *Bedarki*, gatzeleraz *vegetal*. Sarasola irakasleak dioenez, *belarki* 'belar-landare', lehenengoz 1775-ean agertzen da (Ik. *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Donostia, 1984, s.v. *belarki*). Cf. Larramendi, s.v. *menestra*, *belarquía*, *bedarquía*.



*Kuku-balea* (Arratian), *kukurreta* (Arabán), *kurkubita* (Zegaman), *pospolin* (Lekeitio, Markiña-aldean da Tolosan), *poxpól* (Villafrancan) garau gogor gogor, zugatz-adarretan urteten daben batzukaitik esaten da.

*Kuku-sagarra* (b. g.), kuku-adarretan urteten daben garau edo ale bigun gorrizkai esaten iake. *Kuku-adarra* edo *belakadarra* esaten da zugatz bat (batez bere aritxa ta pagoa) iñausi ta gero usteldu eztaín, ebagi barik isten dan adarrari.

[*Laiotz*. Ik. *aiñube*.]

*Laratzu* Arratian da Orozkon, *laratz* Bizkai geiñean, *gelaratz* edo *elaratz* Gipuzkoan esaten dira ['llar'].

*Larratxori* (Ubidea), *txemenentxa* (Oñate), *kalandresa* (Lekeitio), *erderaz calandria*.

*Lau ta esku* emoteagaitik gaur askok lau ta *sakea* (??) emon esaten dabe.

*Leia*: [1.] Alkarren *leian* ibiltea zein geiago ibiltea da. Erderazko *prisa*-gaitik esan daroe batzuk *leia*.

[2.] *Leiza* (sic) edo *leia* Markiña-aldean, *leia* Gipuzkoan, *lebia* Lapurdin: onetxen antzekoak dira *etsigitasun* (b. g.), *mendu-a* (b), *unia* (Otxandio-aldekoa), *guraria* ta *gutarra* ta *antzia* ['de-seo, ansia'].

*Lika* (Araba, Oñate), *lizka* (Lekeitio), *bizka* (Naparroan), txoriak arrapateko gauza inkakorari esaten iako.

*Maiatz-Pazko Pentekosteskoari* deritxo.

*Maketsa* zer dan iakiteko, ikusi *gurguillua*.

*Maratza* len esan dogu zer dan: *narrasa* ta *lardaskea* eztañari esaten iako. [Ik. *baratza*.]

[Aurrerago honako hau eransten du:] *Maratza* da langilla esku onetakoa ta gauzaak arintxu ta ondo egiten dabezana.

*Maria* arrantzaleen alogerari esaten iako. Dirutan barik arraiñetan artuten dabe.

*Marraskulo* (b. g.), *barraskil* (Txorierrin), *marrakurrillo* (Zumaian), *kokolaiko* (Ubidean), toki batzuetan *karakola* (???)

*Mena* edo *men menekoa* erderazko *docil*-en ordezkoa da.

*Morrosko* (b) ta *asarre* (g) esaten dira mutil galant mardo bategaitik.

[*Mosu*]: Bizkaiko *mosua* Gipuzkoan *musua* esaten da.

[*Mutildu*. Ik. *mutuldu*.]

*Mutuldu* (Lekeition), *mutildu* (Markiñan), *muskildu* (Ubidean), *soildu* (Gipuzkoan): erderaz *desmochar*.

*Nakar* (Mundaka-aldean), *naikar* (lenagoko Arabarrak), nai izate edo *borondate* (?) otzekoagaitik esaten dira; zein da ian gitxikoari *iankar* esatea legez. *Nagikorra* ta *nakarra* bat etedira?

*Ogi-bidea* zer dan iakiteko ikusi bei *bizi-bidea* zer dan.

[*Oiñetxe*]: Oiñati-aldean *oiñetxe* esaten da *iaiotetxe* edo asaben etxeagaitik.

*Opil* toki askotan esaten da berarizko ogi zapal mee bategaitik; *ope* (Zegana-aldean), *asme* (Mundaka-aldean), *pametxa* garizkoari ta *opila* artozkoari Arratian, *izpi* (Zumaian), *ogi mee* (Markiñan). Iru musturrekoari *mokotsa* edo *mukutsa* esaten dautse batzuk. *Olata* da Elizara eroateko zapal zapala. Latiñeko *oblata* eteda?

[*Otsein*:] *Kriaua* ta *kriada* erderazkoak dira. Euskeraz orren orde berba asko or da emen esaten dira. Ona entzunenak: *Morroe* (gizonezkoagaitik Bizkaian da Gipuzkoan), *otsein* (gizon nai emakumea Bizkaian), *ogipekoa* (Añibarrok dakar berba au), *ogitukoa* (au Mogelek), *mirabea* (Gipuzkoan nai gizona nai andrazkoa), *seia* (Naparroan da Lapurdin), *neskame* (emakumeagaitik Gipuzkoan). *Mutil* da *neska* esanaz bere batzuk *kriau-kriadak* (i?) adituten dabez.

*Plautiri* Lekeition erderazko *fistula*-gaitik esaten da.

[Aurrerago honako hau eransten du:] *Plautiri*, erderaz *escrófula*, *escrofula*.

*Pozkor* (b), *alai* (g), gogaldi edo umore onekoagaitik esaten dira. *Pozkorren* antzekoak dira, bardiñak ezarren, *pozik*, *pozez* da *pozarren*.

*Sakela* ta erderazko *bolsillo* bat dira.

*Sanya* (b), *santxa* (Bizkaian au bere), *aldi* (Arratian), *txanda* (g) erderazko *turno*-gaitik esaten dira. Lapurtarrak bere *sanya* esaten dabe. Euren egunari edo almanaketan *Besta* (?) *sanyakorrek* esaten dabe iai aldakorraitik.

*Saputz* (b), erderaz *cerviguillo*, *chignon*.

*Sast* esaten da tresna zorrotzen bat sartuteari.

*Siniskorra* ta *sinisterraza* bardiñak dira. *Sinisgorra* esaten dabe napar batzuk *siniskorra* eztanagaitik.

[*Soildu*. Ik. *mutildu*.]

*Soortu* (b. g.), *txingorritu* (g), *narrastu* (Markiña-aldean) esaten da, kadera bat edo iztarra edo onetariko gauza ibilkor bat astun edo ibilli-eziñik dagoanean.

*Sunda* (Bizkaiko toki askotan), *atsa* (b. g.), *antza* (Markiña-aldean) ta *kiratsa* (g) bat dira.

*Susunkordan*, arrituta begiak zabalik geldituteari esaten iako Lekeitio-aldean. *Sursum corda* esaeran, begiak gora dabezala, Abadeak egoten direalako, esaten eteda *susunkorda* ori?

*Tartaiña* esaten da nai pospolin nai intxaur nai pelota bizi edo saltokariagaitik.

*Topez tope* edo *topez egin* esaten da Bizkaian Gipuzkoako *topo egin* esateko.

*Txomin y Kolente* esaten dabe baserritar askok, Elizan erezi edo kantaten dan "Iste Confessor *Domini collentes*"-gaitik.

[*Txordo*]: Bekoki *txordoa* esaten da bekoki itzal illunagaitik.

*Txotak* erdaldunen *txapel* mustur-zorroztak dira ['cachucha'].

*Txutxu egin* esaten dabe batzuk *ernegau* (?) esateko.

*Ulertu* askon miiñean *aditu*.

*Urpe* edo *mustuger* edo *ondoigiri* edo *muxean* edo *luzean* zer dan 18-garren geian esanda dago [Ik. *dzanga*]).

*Urretxindorra* (b.) ta *erritxiñoleta* (1.), erderazko *ruiseñor* dira.

*Zabalkote*<sup>6</sup> ta *zapparote* ta *trapalote* esaten dira Bizkaian, laguna (erderaz *persona*) txiki ta zabal ta lodi edo gizena danean.

*Zakatz* (b) erderaz *fauce*, *gorge*.

*Zarta zarta* esaten da, bai Bizkaian da bai Gipuzkoan, ugari ta azarri edo geldiune barik gauzaak esan edo egiteari. [Ez dator Hiztegian].

[*Zoor*]: *Koska* esaten dabe Napparoko alderen baten *zoorragaitik*. *Zoorrean* gauza bat erostea ta *epetan* da *koskean* da *sotzera* [azken hau ez dator Hiztegian], bat dira. *Koska* da saltzailleak, batez bere ogidunak, *zotz* edo *tailla* erazko baten egiten daben akatza; ta akatz edo koska onek erakusten dabe zeinbat gauza *zoorrean* eroan direan.

<sup>6</sup> Jatorrizko argitalpenak (141.orr.) *zabalhote* dakar.

*Zoritsua* ta *adu onekoak* erderazko *afortunado* esan gura dabe.

*Zubil* Bizkaian da *zupil* Gipuzkoan esaten iako sutondoko anporrari.

*Zurru* ta *purru* ian da edan egitea da apurrak (iaten bada) edo tantaak (edanezkero) dariozala iatea ta edatea. [Ez dator Hiztegian.]

## AURKIBIDEA

### HITZAURREAK

Agur, irakurle. <i>Luis M.<sup>a</sup> Bandrés</i> .....	7
Liburu sorta zaharberritu baten atarian. <i>Koldo Mitxelena</i> .....	9
Resurreccion M. <sup>a</sup> Azkue. <i>Ines Pagola</i> .....	21

BEIN DA BETIKO .....	33
I. Txakolintegi baten .....	39
II. Kai-ganean egotalditxu bat .....	51
III. Maripa ta katalin .....	63
IV. Txantonen barriraztasuna .....	71
V. Olgetan-benetan .....	75
VI. Aupada bidebagako baten atzea .....	83
VII. Guena .....	93
Azkueren hiztegia .....	95

BATXI GUZUR .....	105
I. Apalaurrean .....	107
II. Batxi azaletik .....	113
III. Batxin lagunak .....	117
IV. Umetako ikasteak .....	123
V. Itxasmutilletan .....	129
VI. Zorgindu Ebenekoa .....	135
VII. Batxi izena ostuta .....	139
VIII. Artzaiñak asarratu, gaztaiak agertu .....	145
IX. Iretargia Batxiren begietan .....	151
Azkueren hiztegia .....	157